

## KORONABIRUSA



### HERRITARRAK MASKAREKIN BABESTUTA KALEAN

Horiek erabiltzeko agindurik eman ez duten arren, jendea hasi da erabiltzen, seguruagoa dela iritzita / 2



Atzo, martitzena, Arrasateko kaleetan hainbat herritar segurtasun maskarak jarrita.

ARGAZKIAK: XABIER URZELAI



- TXINA**  
Fagor Arrasatek abian jarri ditu berriro ere Txinan dituen bi lantokiak / 2
- NEURRIAK**  
Iaz sobratutako diru poltsa erabiliko dute udalek koronabirusaren kalteei aurre egiteko / 4
- EKITALDIAK**  
Bergarako jaiak "normaltasunez ospatzea zaila" izango dela dio alkateak / 4
- KIROLA**  
Uxue Otxoa, kirol psikologoa: "Kirolariak orain dute aukera mentalki indartzeko" / 30
- KULTURA**  
Sortzaile eta programatzaileak irtenbide bila, egoeraren larritasunean / 32

#### SINADURAK

 MIKEL MUXIKA / 10	 MIEL GURIDI / 29
 OSCAR GARCIA / 17	 AINTZANE OIARBIDE / 40

**Dei egin dute domekan Aberri Eguna balkoietatik aldarrikatzera eta ospatzera / 11**

### Aste Santuan ez da oporrik: nola eragin die koronabirusak herritarrei?

Alerta egoerak opor sasoi honetan nola eragin dien kontatu dute hainbat alorretako herritarrek / 6



Ane Bereziartua, itxita dagoen Arrasate Bidaiak agentziaren parean. XABIER URZELAI

**Lapiko jotzea egin dute Zaldibarreko zabortegian gertatutakoa argitzea eskatzeko / 9**


#### ASTE SANTUA

Honako egun hauetan jasoko dituzue hurrengo aldizkariak: **GOIENA**: apirilaren 24an. **'Puntua'**: apirilaren 24an.

Ondo izan!




## Kutsatuak Debagoiengan / Astebetean metatua



ITURRIA: OSAKIDETZA

## Kutsatuak Gipuzkoan / Astebetean metatua



ITURRIA: OSAKIDETZA

## Kutsatuak azken astean

	Apirilak 6	Aldea
Arrasate	114	+ 45
Oñati	27	+ 7
Bergara	24	+ 6
Aretxabaleta	23	+ 2
Eskoriatza	7	0
Antzuola	2	0
Aramaio	2	0
Elgeta	1	+ 1
Gatzaga	0	0
<b>Guztira</b>	<b>200</b>	<b>+ 61</b>

ITURRIA: OSAKIDETZA

# Malda bat beste guztien gaineratik

Debagoiengan 200 koronabirus kasu baieztatu zituzten atzora arte, eta Arrasate da kasu gehien dituen herria, alde handiarekin, gainera; bailarako gainontzeko herrietako datuak aztertuz gero, halere, badirudi kutsatzeak egonkortzen hasi direla

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Konfinamenduaren laugarren astean sartuta, badirudi geroz eta intzidentzia txikiagoa izaten ari dela koronabirusa eskualdean. Debagoiengan bi kasu berri baieztatu dituzte atzora arte, eta guztira 200 dira COVID-19 duten debagoiendarrak. Arrasate da koronabirus kasu konfirmatu gehien dituen herria: 114. Oñatin, 27 dira kutsatuak; Bergaran, 24; Aretxabaletan, 23; Eskoriatzan, 7; Antzuolan eta Aramaion, bina; eta Elgetan, bat. Leintz Gatzagan oraindik ez dute kasurik konfirmatu.

Hego Euskal Herriko datuei dagokionez, 330 kasu berri konfirmatu zituzten atzora arte. Kasu berri gehien Nafarroan atzeman dituzte; 124 zehazki. Bizkaian, 109 positibo berri identifikatu dituzte; Araban, 66; eta Gipuzkoan, 31. Gainera, 53 per-

tsona hil dira azken orduetan: 38 EAEn eta 15 Nafarroan. Honenbestez, krisia hasi zenetik 12.376 kasu baieztatu dituzte Hego Euskal Herrian, eta 788 dira hildakoak. Bestalde, 4.149 herritarrek jaso dute alta jada, gaixotasuna gaindituta.

## MASKARA GEHIAGO DAUDE KALEAN MASKARAK GEROZ ETA OHIKOAGO BIHURTZEN ARI DIRA HERRITARRENGAN

Iritzi desberdinak daude maskaren eraginkortasunaren inguruan, baina Espainiako Gobernuak "ezinbestekotzat" jo ditu azken egunotan, "kutsatzeak areagotzea ekidin dezakeen neurri bat" dela iritzita. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, ez du gomendio orokorrik egiten mas-

karen erabilerarekiko. "Momenturen batean, gure adituen eta Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioen baitan maskarak erabiltzea kontsideratzen badugu, gomendatuko dugu", azpimarratu du Mikel Sanchezek, Jaurlaritzako Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariak. Iñigo Urkullu lehendakariak berretsi egin du hori. "OMEk ez du gomendatzen maskaren erabilera masiboa, langile soziosanitarioek bakarrik erabili dezaten lehenesten du. Guk bat egiten dugu gomendio horrekin".

Errealitateari erreparatu, geroz eta maskara gehiago ikusten dira kalean. Arrasateko Agirre-Etxe harategian, adibidez. "Duela bizpahiru aste baino dezente bezero gehiago ikusten ari gara maskarekin, gazte zein heldu", arduradunen esanetan.

Mendizabal okindegikoez ere bat egin dute horrekin: "Nahiko maskara ikusten ari gara, baina batez ere jende heldua da maskara darabilena, gazteek ez dute horrenbeste erabiltzen". Bolintxo okindegikoez, bestalde, aitortu dute ez dutela diferentzia handirik igarri arlo horretan.

## INDUSTRIA, ZALANTZAZ BETERIK ESPORTAZIOAN DIHARDUTEN HAINBAT ENPRESA GUTXIENKO JARDUNEAN ARI DIRA

Industria alorrean ere hainbat gorabehera izaten ari dira Espainiako Gobernuak "ezinbestekoak" diren jarduerak eten zituenetik. Izan ere, horren berri eman ostean, Industria Ministerioak jakinarazi zuen nazioarteko enprekin esportazio eta inportazioan diharduten enpresek gutxieneko jardue- ra bati eutsi ahal izango ziotela. Hori dela eta, enpresa batzuek jardunari eutsi diote, eta beste batzuk gelditu daude.

Coprecin, esaterako, oporrak aurreratu dituzte, eta apirilaren 13ra arte ez dute lanik egingo. "Martxo amaieran, erabaki genuen oporrak aurreratzea, lana jaisten hasi zelako, eskaera gutxiago genituelako, eta Italiako edota Alemaniako merkatu batzuk Pazko astean aktibatuko direla jakin genuelako, eta merkatu horiekin batera joateko, ahal den neurrian", azaldu du

Kiureka Etxebarriak, salerosketen arduradunak.


Fagor Automationen, bestalde, zerbitzu minimoekin lanean ari dira, medikuntza eta elikagai sektoreei erantzuten dieten lanekin bakarrik. "Lantaldearen %10 ari da bakarrik lanean", azaldu du Aitor Irure presidentek. "Asteleheneetik aurrera lan gehiagorekin hasteko asmoa daukagu, nazioarteko eskariei erantzun ahal izateko. Printzipioz, behintzat, normal hasiko gara lanean arlo horretan".

Metagra, bestalde, jardueraren %10-15 artean ari da joan den egunetik, Pello Txintxurreta zuzendariak adierazi duenez. "Azken operazioetan zentralizatutako lana egiten ari gara, bukatu eta esportatzeko prest dagoen materialarekin. Europara bai, baina, batez ere, Txinara ari gara bidaltzen, apurka martxan jartzen ari dira-eta han".

## UDALEN NEURRI EKONOMIKOAK KRISIARI AURRE EGITEKO NEURRIAK HARTZEN ARI DIRA BAILARAKO UDALAK

Nabaria da osasun krisi honek ekonomian ere eragin handia izango duela, oro har, eta baita udaletan ere, Foru Funtsetik jasoko duten dirua asko murriztuko delako, besteak beste. Dagoeneko horri aurre egiten saiatzeko hainbat neurri hartzen ari dira Debagoieneko udalak.





Herritar talde bat dirua ateratzeko ilara egiten eta horietako bat maskarekin. XABIER URZELAI

Guztiek hartu duten neurria da, esaterako, udal zergak eta tasak ordaintzeko epea atzeratzea, bakoitza bere berezitasunekin.

Arrasatekoak, esaterako, 930.000 euro inguru bideratuko ditu ekonomia berraktibatzeak. Besteak beste, komertzioei laguntzeko 350.000 euro izango dira. Komertzioetan edo autonomoetan gastatzeko 15.000 bonu aterako dituzte -iturgin, igeltsero, ile-apaindegiak, eta abar-, 30 euroko balioa izango dutenak. 10 euro erosleek jarriko dituzte eta gainontzeko 20 euroak, aldiz, Udalak. Bestalde, 25.000 euro jarriko dituzte herriko komertzioetan erosteko sentsibilizazio kanpaina baterako, eta, azkenik, 25.000 euro, kalean egingo diren kultur ekitaldi gehigarriak egiteko. "Kaleetan aktibitateak daudenean herriko komertzioek eskertzen dute", dio Maria Ubarretxena alkateak.

Bergaran, zerga eta tasenaz gain, ez dute neurrik hartu oraindik. "Lan-ildo inportanteak zabaldu beharko ditugu, eta egoerak sortu dituen eragin guztiei irtenbidea aurkitu. Baina ikusten dugu aztertu beharra daukagula oso ondo ze eragin edukiko duen honek udal baliabideetan eta udal antolaketan. Kanpora begirako erantzun horiek emateko orduan, beste administrazio batzuek egiten dituzten lanketa eta dirulaguntza lerroekin koordinatu beharko ditugu", adierazi du Gorka Artoala alkateak.

Oñatiko Udalak ere tasak ez kobratzea erabaki du. "Urarena ez kobratzea ere aztertzen ari gara, baina, Gipuzkoako Urak partzuergoaren eskumena denez, haiekin harremanetan ari gara", dio Izaro Elorza alkateak. Bestalde, etxebizitza sozialen kobrantza eten egin dute. "Gero, kasurik kasu aztertuko ditugu, kobratu edo ez erabakitzeak".

Aretxabaletako Udalak, bestalde, bonu batzuk jarriko ditu komertzioendako, Gabonetan egin ohi duen moduan. "Baina oraindik ez daukagu zehaztuta. Asmoa da ahalik eta herritar gehienengana iristea, eta sektore ezberdinetarako bonu ezberdinak egitea ari gara aztertzen, oraindik ez dakigu. Hasieratik asmatzea zaila izango da; beraz, ikusten joango gara ea hileko bonu horrekin asmatzen dugun edo ez. Juridikoki forma ematea ez da erraza, eta ea Aste Santu osterako martxan jartzen ditugun", dio Unai Elkoro alkateak.

#### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ASTELEHENEAN HASIKO DA ERRENTA AITORPENA EGITEKO EPEA, TELEFONOZ

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere askotariko neurriak hartu ditu ekonomiari aurre egiteko. Errenta aitortpenari dagokionez, esaterako, bide berriak ireki dituzte datorren astelehenean hasiko den 2019ko errenta kanpainan

zergadun guztiek "etxetik mugitu gabe" aurkeztu ahal dezaten.

Jabier Larrañaga foru diputatuak azaldu du ezinezkoa dela aurrez aurreko arreta ematea. Beraz, atzeratu egin behar izan da errentaren modalitate mekanizatuak. "Hau honela izanda, gure ahalegin guztiak dauzkagun zerbitzu telefoniko eta telematikoa jarri ditugu". 943 11 30 00 telefonoa jarri dute herritarren zerbitzura, eta "indartu" ere egin dute zerbitzua. Ogasunak 289 milioi euro itzuliko ditu, eta beste 264 milioi jasoko 2019ko errenta kanpainan.

Horrez gain, ehun ekonomikoari zuzendutako online plataforma bat prestatu du Aldundiak, "koronabirusak jarduera ekonomikoan eragindako kalteak arintzeko" dauden programa, laguntza eta baliabideei buruzko informazio guztia eskura jartzeko: [www.gipuzkoa.eus/es/web/covid19ekonomia](http://www.gipuzkoa.eus/es/web/covid19ekonomia).

#### MERKATARITZA BAZKUNDEA TOKIKO KOMERTZIOEI LAGUNDUZ, ONLINE SALMENTA ETA ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

Gipuzkoako Bazkondeak ekimen bat jarri du martxan, ahal den neurrian behintzat, tokiko merkatarien, salmentak bultzatzeko. Horretarako, lurraldeko merkataritza-enpresen direktorioa sortu du, "online salmentak eta etxez etxe zerbitzua sustatuz".

Gipuzkoako Merkataritza Enpresen Direktorioan merkataritza enpresen zerrenda bat egongo da, non kontsumitzaileak online denda, posta elektronikoa edota telefonoa erabiliz nahi duen produktua erosteko aukera izango duen etxean jaso ahal izateko. Halaber, Gipuzkoako kontsumitzaileak merkatariei laguntzera animatzen ditu. [www.camaragipuzkoa.com](http://www.camaragipuzkoa.com) webgunean dago informazio gehiago.

#### EUSKO JAURLARITZAREN NEURRIAK 16 MILIOI EURO GEHIAGO BIDERATUKO DITUZTE GIZARTE LARRIALDIETARAKO

Ogasun eta Ekonomia Sailaren arabera, 2020an EAEko Barne Produktu Gordinak %3,6ko kontrakzioa izango du, eta langabezia tasa %11,6an kokatuko da. Horretarako, abiapuntu moduan jarri dute konfinamendu egoera apirilaren 29ra arte luzatuko dela eta normaltasunera pixkanaka itzultzeak 45 eta 60 egun arteko trantsizio epealdia eskatuko duela. Dena den, 2021an ekonomiak berriz ere hobera egingo duela gaineratu du Pedro Azpiazu sailburuak.

Era berean, gizarte larrialdietarako 16 milioi euro gehiago bideratuko dituela jakinarazi du Jaurlaritzak. Modu horretan, 43,5 milioi euro izango ditu guztira arlo horretarako. "Behar gehien duten familia eta pertsonendako izango da, oinarrizko beharretarako". Eskaerak udal bakoitzeko gizarte zerbitzuen bitartez egin beharko dira.

Horrez gain, 76 milioi euro bideratuko ditu Eusko Jaurlaritzak autonomoendako, gazte bermearren sistemarako eta kontziliaziorako. "Neurri ekonomiko gehiago ere hartu beharko ditugu datozen egun eta asteetan, egoerara egokitzen joateko".

#### DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA GARAPEN AGENTZIA ARRETA PERTSONALIZATUA ESKAITZEN ARI DA

Mankomunitateko Garapen Agentzian lanean jarraitzen dute Debagoieneko "ehun ekonomiko eta sozialaren zerbitzura, eta bereziki enpresa txiki eta ertainen, autonomoen eta merkatarien

zerbitzura; baita lan-bitartekaritzaren eta orientazio eta enplegu zerbitzuen esparruan ere". Hori horrela, COVID-19aren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko, zehaztu diren laguntza programekin eta neurriekin lotutako informazio guztia jasotzen dabilta. Zuzeneko arreta pertsonalizatua eskaintzen dute, telefono bidez 943 79 30 90 zenbakira deituta.

TXINA, NORMALTASUNERA BIDEAN

#### FAGOR ARRASATEK BERRIZ JARRI DITU MARTXAN TXINAN DITUEN BI LANTEGIAK

Fagor Arrasatek Txinan dituen bi lantegiak berriz operatzeko baimena jaso dute, prebentzio, instalazioen desinfekzio eta material sanitarioaren erabilgarritasun arloan Txinako Gobernuak ezartzen dituen neurri zorrotzak betetzen dituela ziurtatu ondoren. Fagor Arrasatek bidalitako ohar batek dioenez, lantaldeak "pixkanaka" sartu dira, "tokiko agintarien jarraibideei jarraituz", eta, gaur egun, %97ko ahalmen operatiboa lortu dute.

"Gure lehentasuna beti izan da pertsonen segurtasuna eta ongizatea, eta gure esku dauden neurri guztiak hartu ditugu horiek bermatzeko", nabarmendu du Fagor Arrasatek Txinan daukan lantegiko gerente Alberto Sarasquetak.

OINHERRI EKIMENA

#### HAURREN HEZKUNTZA ETA AISIA ARDATZ HARTZEN DITUEN EKIMENA SORTU DUTE

Oinherri Herri Hezitzailea ekimenean elkartu dira haurren hezkuntza eta aisia ardatz dituzten hainbat eragile, Arrasateko Txatxilipurdi, esaterako, sinistuta horiek beste era batera egin daitezkeela. Konfinamenduaren baitan egindako hausnarketa partekatuta gura izan dute, zaintza eta komunitatea erdigunean jarri beharraz. Hiru lan-ildo zehaztu dituzte: teoria eta praktikaren arteko giltzaduraz gogoeta egiten duten liburuxkak argitaratu eta formakuntza eskaintzea; jardunaldiak antolatzea; eta Oinherriren ardatzak aintzat hartuko dituzten proiektu hezitzaileak sustatzea.

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE

Koronabirusaren ondorio batzuk agerian daude hasieratik. Bereziki, kutsatutakoen, sendatutakoen eta hildakoen kopuruak aintzat hartuta. Beste hainbat ondorio aurrerago ezagutuko dira. Bereziki, ekonomiari, diruari, langabeziari... erreferentzia egiten dietenak. Horieta bat izango dira 2020ko udal aurrekontuak. Herri gehienek onartuta dituzte aurtengorako partidak. Sarrerak, gastuak eta proiektuak. Hala, koronabirusak eragin zuzena izango du urte hasieran onartutako kopuru horietan. Are gehiago, Foru Aldundiak apirilaren 2an hartutako erabakiaren ostean. "Udal ordezkari guztiak egon ginen bilera hartan, eta esan ziguten Foru Funtsetik %25 gutxiago jasoko dugula aurten. Arrasateko Udalaren kasuan, lau milioi euro lirake. Horrek, derrigorrean, aurrekontua moldatzera behartuko gaitu. Inoiz baino gehiago, zuhurtziaz jokatu behar dugu", esan du Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak. Era berean, esan du iazko aurrekontuetako soberakinak erabiliko dituztela COVID-19aren harira hartutako neurriak estaltzera: tasen eta zergen hobariak, Gurutze Gorriari laguntza, kiroldegiko bonuaren hobariak, erosketak bonuak... "Zorionez, gure zorpetze maila 0 da, eta horrek asko laguntzen du", dio Ubarretxenak.

Bide beretik egingo du Oñatiko Udalak. "Martxoan onartu genuen 2019ko likidazioa, eta iazko proiektu batzuk aurtengo aurrekontuan txertatu genituen. Gaur-gaurkoz, aurrekontu berekin egingo dugu aurrera. Izan ere, 2019ko soberakina ia 2.600.000 eurokoa da, eta hori bideratuko dugu epe motzera zehazten ditugun laguntzetara", azpimarratu du Izaro Elorza alkateak. Dena den, Oñatin ere oso argi dute egunerokotasunak markatuko dituela udal jarduna eta udal proiektuak. "Malguak izango gara. Alarma egoera hasi zenetik, egunero gabilta neurriak hartzen. Hangoak eta hemengoak aldatzen. Aurrerantzean ere, hori guztiori hartu beharko dugu kontuan. Ez gara zurrinak izango", esan du.

#### Malgutasun handiagoa

Osakidetzak osasun zentro berria egitea aurreikusten zuen Are-



Hainbat herritar Arrasateko Biztanleen Arreta Zerbitzuan ordainketak egiten GOIENA

## Iazko soberakinak aurtengo aurrekontuen osagarri izango dira

2019ko aurrekontuetatik sobratutako diru poltsa erabili beharko dute udal gehienek, koronabirusak eragin dituen neurriei eta dirulaguntzei aurre egin ahal izateko; era berean, aurtengo proiektuetan eta inbertsioetan aldaketak egin beharko dituzte

### Herrietako jai nagusiekin, zer?

Konfinamenduan sartu aurretik, ekitaldi jendetsuak debekatu zituen Espainiako Gobernuak. Apirilaren 26tik aurrera hasiko den normaltasunerako itzulera horretan jaiak eta ospakizunak zein baldintza edukiko dituzten jakitea ezinezkoa da. Baina bailarako herriek lanean dihardute euren jai nagusiak ospatzeko esperantzarekin.

Erabaki zailena Bergaran daukate. Pazkoak maiatzaren 29tik ekainaren 2ra ospatu beharko lirake. Oraingoz, ez dute erabaki zehatzik hartu. "Zaila izango da jaiak normaltasunez ospatzea. Baina lanean jarraitzen dugu, eta irizpideak argitzen joan ahala argituko da ospatzerik izango

diren edo ez, edo zein mugarekin. Egoera hau guztiarentzat berria eta oso aldakorra da", dio Artolak.

#### Antolaketan, aldaketak?

Egutegian hurrengoan sanjuanak eta sanpedroak dira. Arrasaten eta Eskoriatzan. "Badihardugu San Juan jaiak antolatu guran. Izan ere, ez dakigu nola egongo garen orduan. Era berean, ez dakigu zein baldintzarekin egin ahal izango ditugun jaiak. Hortaz, zirriborroarekin hasi gara, eta ostean, egunerokotasunak markatuko digu bidea", dio Ubarretxenak.

Eskoriatzako sanpedroekin zer gertatuko den ezezaguna da baita udal arduradunendako ere.

"Maiatzetik aurrera, Eskoriatzan, bailara osoan bezala, jai asko egoten dira, baina ez dakigu buelta nolako izango den", esan du Joserra Zubizarretak.

Uztailen dituzte jaiak Aramaion eta Antzuolan, eta han ere arduratuta daude. Azken ordukoen zain. "Akaso, jaiak antolatzeko modua aldatu beharko dugu. Kanpotik ikuskizunak ekarri beharrean, auzolana bultzatu beharko dugu", dio Kortabarriak.

Aretxabaletan oso baikor daude andramaixetarako. "Pentsa, uztailen, Portasolgo jaiak indartuko ditugu", esan du Elkorok. Irailerako, San Migel jaietarako, egoera "normaltasunaren barruan" egotea espero du Oñatiko alkateak.

txabaletan. Horrekin zer gerta daitekeen da Aretxabaletako Udalak duen zalantzetako bat. "Adibide bat besterik ez da. Duda barik eragingo duela koronabirusak aurrekontuan. Foru Funtsetik milioi bat pasa euro gutxiago jasoko dugu. Diru asko. Zorionez, iaztik soberakina daukagu, eta poltsa horrek lagundu egingo digu. Baina, benetako egoera zein den jakin arte, zaila izango da hori guztiari kudeatzea", esan du Unai Elkoro alkateak.

Soberakinetatik tiratuko du baita ere Antzuolako Udalak. "Ez dakigu zenbateko sarrerak edukiko ditugun zerga kontzeptuetatik, baina badakigu Foru Aldunditik diru gutxiago jasoko dugula, eta egoera honek ondorio latzak ekarriko dizkiela herritarrei. Horrek guztiorrek urte hasieran planteatutako aurrekontua aldatu egiten du. Martxan zeuden lanak geratuta daude, eta epeak ezingo ditugu bete. Gure kasuan, badaukagu aurreztutako diru poltsa bat, hori erabili beharko dugu. Baina hori ere ezin dugu edonola eta edozertarako erabili. Arau batzuk daude. Nik malgutasuna eskatzen dut diru hori erabili ahal dezagun. Askatasun gehiago eman beharko ligukete", kontatu du Beñardo Kortabarria alkateak.

#### Erabaki zehatzak hartu barik

Bergarako udal aurrekontuetan lehentasunak aldatu beharko dituztela uste du Gorka Artola alkateak. "Koronabirusa gizarteko eta ekonomiako arlo asko gogor kolpatzen dabil; horregatik, egoera zailenean dauden familia eta pertsonak babestu eta herriko ehun ekonomikoa bultzatu beharko dugu. Argi dago beharrik aldatu diren moduan lehentasunak ere beste batzuk izan beharko direla".

Elgetako eta Eskoriatzako udaletan ere badabilta COVID-19aren ondorioak aztertzen. Moldatu egin beharko dira. "Nekeza izango da aurten aurreikusita geneuzkan proiektuak aurrera ateratzea", uste du Iraitz Lazkanok. Bestalde, Joserra Zubizarretak dio "datu zehatzak" eduki arte ezingo dutela ezer erabaki.

Arabako Foru Aldundiak oraindik ez du esan laguntzak murriztuko dituenik, eta horren zain daude Aramaion, aurrekontuak nola moldatu zehazteko.



# #GuEtxean

## Mozorrotu eta atera familia-argazkia edo egin bideoa eta irabazi asteburua Sendavivan lau lagunendako!

Irudiko figurak erabili edo patroitzat hartu, edo zeuen gustukoak egin.  
Jantzi etxean dauzkazuen mozorroekin batera, eta bidali familia-argazkia edo bideoa.  
Argazkiak eta bideoak [Goiena.eus](http://Goiena.eus) webguneko #GuEtxean atalean egongo dira ikusgai.




Figura hauek erabiliz gero, gogortasuna emateko, euskarri gogor batean itsatsita erabil ditzakezue.



### Zozketako saria:

- Bi heldurendako eta bi umerendako aste bukaera bat inguruko hotel batean.
- Eta egun baterako laurendako [Sendavivarako](#) sarrerak.

Parte-hartzaile guztien artean egingo da zozketa.

**Zozketan parte hartzeko epea: apirilak 19.**

### Argazkiak bidaltzeko bideak:

✉ Posta elektronikoz: [argazkiak@goiena.eus](mailto:argazkiak@goiena.eus)


📞📧 Whatsapp/Telegram: #GuEtxean [izen abizenak eta telefonoa]  
688 69 00 07 zenbakira.

BABESLEA: ARRASATE BIDAIAK



**goiena**

Zu hemen zaude.



Ane Bereziartua, itxita dagoen agentziaren parean. X.U.



Marga Romaniz, Oñatiko Etxe Aundi jatetxeko jangelan, hutsik. E.A.



Jesus Kalboetxeaga, itxita dagoen Elgetako Maialde landetxean. L.Z.

# Aste Santuko oporrak ezohiko egoeran; nola eragin du koronabirusak?

Bidaiari ugari hartzen ditu Debagoienak urtero Aste Santuan eta Pazko astean. Ostatu, jatetxe eta tabernentzat egun garrantzitsuak izaten dira, baita kristautasunean azpimarratutakoak ere. Bidaiarien kasuan, bertan behera geratu dira askoren planak

**Jone Olabarria** DEBAGOIENA

Hainbat dira dagoeneko Aste Santuko oporretan daudenak, gaurtik aurrera egongo direnak edota nahitaez lanera ezin joanda etxean dauden herritarrak. Egoera edozein izanda ere, guztiendako ezohiko oporraldia izango da aurtengo Aste Santukoa eta Pazko astekoa.

Debagoiendarren artean ere, asko dira bidaiaren bat egiteko asmoa zutenak eta dena bertan behera utzi edota planak atzeratu behar izan dituztenak. Kanpora joatekoak zirenak soi-

lik ez, bidaia agentzietan ere pairatu dute egoera, eta orain, bidaiari horiei konponbidea emateko dabilta lanean.

**Ostalaritza, bereziki kaltetua**

Aisialdiko jarduez gain, bai-larako jatetxe, taberna eta ostalduetan ere egoera "latza" bizi dutela aitortu dute; izan ere, Aste Santua lan handiko garaia izaten da haientzat. "Inongo diru sarrerarik gabe" daude, baina, hala ere, negozioaren gastuak ordaintzen jarraitu behar dutela salatu dute.

# 'Ttap' berritua eskuragarri!



'Gorabeherak' websailarekin!

**ttap**

Irakurri, ukitu, ikusi, entzun.

**DOAN**  
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure mugikor edo tabletan





Arrasateko parrokoak etxean igaroko du Aste Santua. V.E.



Amaiur Olalde, etxean, oportetako bidaia beharko lukeena ikusten. A.O.



Ikerne Altube Turismo teknikaria Oñatiko Turismo bulegoan. GOIENA

## ARRASATE BIDAIAK AGENTZIA ANE BEREZIARTUA: "BONUAK EMATEN GABILTZA BIDAIAK ATZERATZEKO"

Ane Bereziartua Arrasate Bidaiak bidaia agentziako arduraduna da. Etxetik lanean dabilzala azaldu du; hornitzaileekin, erreserbak zituztenei laguntza ematen... Egoera "larria" dela aitortu du: "Aste Santurako programaturako guztia bertan behera geratu da, eta, ez dakigunez egoera hau ere zenbat luzatuko den, oso zaila da aurreikuspenen bat egitea". Kontatu duenez, koronabirusaren kontua "serio" jartzen hasi zenean, herritar askok erabaki zuten bidaia arreratu eta etxera bueltatzea, eta, beste hainbaten kasuan, ostaturia bera edo hegaldia izan ziren bertan behera geratu zirenak: "Lanzaroten ezin bueltatuta harrapatuta geratu zen familia bat ere ekarri genuen Arrasatera bueltan, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean".

Bidaia "askoko" denboraldia izan ohi da Aste Santua, baita Pazko astea ere, "baina aurreten dena dago geratuta". Aurrera begira, ez dakite zer geratuko den: "Kruzero batzuk ditugu aurreikusita maiatzerako, baina oraindik ez dute ezer esan. Dena dago airean, baita udako erreserbak ere".

Une honetan, bertan behera geratu diren bidaiekin bonu bat egiten dabilzala, oraingoz, aurrerago dirua itzuli edo bidaia atzeratu ahal izateko. Hala ere, mezu positiboa helarazi nahi izan du Bereziartuak: "Trankil egoteko esango nieke herritarrei, osasun krisi honi aurre egin eta bueltatuko gara denak bidaiatzera".

## ETXE AUNDI JATETXEA MARGA ROMANIZ: "DNA DAGO AIREAN: EZKONTZAK, JAUNARTZEAK..."

Aste Santuko egunak urtero aprobetxatzen dituzte deskantsatzeko Oñatiko Etxe Aundi jatetxean, baina Pazko astean lan ugari izan ohi dutela aitortu du bertako arduradun Marga Romanizek: "Familia askok aprobetxatzen dituzte egun horiek bazkaltzera etortzeko edo ospakizunen bat egiteko, eta Oñatira bisitan etortzen diren asko ere pasatzen dira guretik". Martxoa "bete-betea" zutela azaldu du: "Erreserba asko genituen, eta bertan behera geratu zitzaigun dena. Apirilera eta maiatzerako ezkontzak eta jaunartze ugari ditugu aurreikusita, baina badakigu ahaztu egin beharko dugula".

Hau guztia bukatzean lanera itzultzen azkenak tabernak eta jatetxeak izango direla uste du Romanizek: "Pasa ditugu aurretik urte oso zail batzuk, baina oraingoa oso ezberdina izango dela uste dut. Laguntza beharko dugu".

## MAIALDE LANDETXEA JESUS KALBOETXEAGA: "ASTE SANTUA BETETA IZANGO GENUKE"

Normaltasun-egoeran, okupazioa "erabatekoa" izango litzateke Aste Santuko egunetan Elgetako Maialde landetxean. Bertako Jesus Kalboetxeagak azaldu duenez, neurri txikiagoan bada ere bisitari kopuru polita jasoko lukete Pazko astean ere: "Bertan behera uzteak ez du soilik egun hauetan eragin. Abuztura arte

genituen erreserba guztiak baliogabetu egin dira, nahiz eta ez ditugun, oraingoz, bertan behera utzi. Itxaron egin beharko da horiek mantentzen diren ikusteko".

"Une honetan, ez dakigu zenbatekoa izango den gure galera ekonomikoa, baina diru sarrearik gabe eta gastuei aurre egin beharrean gaude: zergak, gizarte-segurantza, BEZa, negozioaren hipoteka..." Azaldu duenez, "osasun publikoa babesteko" itxi zuten lehenengoetakoak izan ziren eta susmoa du azkenak izango direla, "ia ziurtasun osoz", normaltasunera itzultzen.

Kalboetxeagak dioenez, haien egoera ez da, hain zuzen ere, itxaropentsu egoteko: "Laguntzak eskatu behar dira; iragarri diren arren, arazo asko daude kudeatzeko, ikusi beharko dugu noraino iristen diren eta zer neurritaraino balioko duten datozen arazoak arintzeko".

## ARRASATEKO PARROKIA VICTORIANO ETXABE: "UNE HONETAN, OSASUNA DAGO DENAREN AURRETIK"

Gipuzkoako lehen herria izan zen Arrasate elizkizunak bertan behera lagatzen, martxoaren 13an. Arrasate eta Gasteiz arteko gertutasuna izan zen, hain zuzen ere, erabaki hori hartzearen arrazoi nagusia: "Adineko herritar asko gerturatzen dira elizkizunetara eta arrisku garrantzitsu bat zen. Ikusi genuen Gasteizen bertan behar laga zituztela elizkizunak, eta guk, hain gertu egonda, erabaki bera hartu genuen".

Kristautasunarentzat data garrantzitsua da Aste Santua eta aurten ospatu ezinda gera-

tzea "penaz" hartu du Arrasateko parroko Victoriano Etxabek. Hala ere, "edozeren aurretik" osasuna dagoela adierazi du: "Une honetan, berebiziko garrantzia du koronabirusaren krisi hau ondo kudeatzea, horretarako beharrezko neurriak hartuta. Ezin badugu Aste Santua ohiko eran ospatu, ez dugu ospatuko. Hala ere, nork bere etxean otoitz egin dezake, fedea leku guztietara iristen da". Alternatibak egon badaudela azaldu du, *streaming* bidez edota telebistan jarraitu daitezke egun hauetako ospakizun erlijiosoa.

## ISLANDIARA BIDAIA AMAIUR OLALDE: "DIRUA BUELTATU GABE, AURRERAGO JOATEKO AUKERA POZIK HARTUKO GENUKE"

Amair Olalde oñatiarrak eta lau lagunek Islandian beharko lukete gaur. Apirilaren 4an joatekoak ziren, baina koronabirusaren krisiak eraginda Oñatin daude, etxean: "Bi webgune ezberdinetatik hartu genuen hegaldia; bi lagunek baten eta hiruk beste batean. Kasu batean, hegaldiak aurrera jarraitzen zuela zirudien, ez ziguten inolako abisurik helarazi eta dena normal joango balitz bezala jakatu zuten. Egoera ikusita, argi zegoen ezin ginela joan, eta irtenbideren baten bila gabiltza orain, ea bidaia atzeratzen diguten edo dirua bueltatzen diguten".

Hornitzailearekin harremanetan jartzen saiatu diren arren, oraingoz ez dute ezer lortu: "Internet bidez, gure egoera berean

dauden bidaiariekin harremanetan jarri gara eta haien laguntzarekin gabiltza erreklamazioak egiten". Islandian bertan furgoneta bat alokatzeko asmoa zuten, baina oraindik ez zuten ezer hartuta, eta alde horretatik dirurik galdu ez dutela azaldu du Olalde. Hegaldiko dirua itzultzeko itxaropen "gutxi" dutela aitortu du, eta, bidaia atzeratuta, aurrerago joateko aukera emango baliote "pozik" hartuko luketela adierazi du.


## OÑATIKO TURISMO BULEGOA IKERNE ALTUBE: "BISITEN %10 INGURU ETORTZEN DIRA ASTE SANTUAN ZEHAR"

Turista gehien hartzen dituen bailarako herria izan ohi da Oñati. Hala, Aste Santuko egunak "onak" izaten direla aitortu du Ikerne Altube Turismo teknikariak: "Oñatin Aste Santuko bost egunetan normalean 2.500 bat lagun hartu ohi ditugu; Turismo Bulegoetan, Arrikrutzen eta Txokolatexian. Opor egunek irauten duten 15 egunetan 4.000 inguru izaten dira, guztira".

Azaldu duenez, bisitarien jatorriari dagokionez, Euskal Herrikoak edo gertukoak izan ohi dira: "Bizkaitik etortzen dira asko, baita Nafarroatik ere. Kataluniako bisitari ugari ere ibiltzen dira, baita Madrilakoak ere".

Datuek diotenez, urteko bisitarien %10-12 Aste Santuan hurbiltzen dira Oñatira. Aurten, baina, ezohiko oporraldia izango dela aitortu du Altubek: "Martxoaren 14an bat-batean eten ziren zerbitzu guztiak, eta erreserba gehienak bertan behera gelditu dira COVID-19-aren eraginez".





# Neurri bereziak munduan zehar

Atzerrian bizi diren debagoiendarrak "kezkaturata" agertu dira, orokorrean, gaitzak bizileku dituzten herrialdeetan eragin ditzakeen ondorioengatik

## TXILE

**"Kalera irteteko, lau orduko baimena eskatu behar da"**



IDOIA  
ARMENDARIZ  
ARETXABALETA

"Hemengo egoera ez da, oraingoz, hain larria. 4.000 kasu inguru daude eta hildakoak ez dira 50era iristen. Hala ere, neurriak hartu dituzte; etxeratze agindua dago ezarrita, lurralde osora zabaldu dute, eta hamarretatik goizeko bostetara arte ezin da kalean ibili. Hori orain hamabost egun ezarri zuten arren, konfinamendua auzoka edo zonaka doa; kasu gehien dituzten guztiak biztanleek soilik geratu behar dute derrigorrez etxean. Kasu horietan, etxetik irteteko lau orduko baimena ematen dizu poliziak. Nire auzoan ez dute konfinamendurik ezarri; etxetik nago lanean, baina ez da derri-gorra".

- **Kutsatuak:** 4.815.
- **Hildakoak:** 37.

## SUITZA

**"Herritar askok ez du mediku kontsulta egiteko dirurik"**



BEÑAT  
ABIO  
BERGARA

"Neurri batzuk hartuta dauden arren, konfinamendua ez da hain gogorra hemen. Establezimenduak itxita daude, beharrezkoa ez den dena. Konfinamendua, baina, herritarren esku dago, kalera irten zaitezke eta poliziak ez dizu ezer esango bost lagun baino gehiago ez badaude. Datuak ez dira hainbesterako Suitzan, baina ez dakit zenbat fidatu gaitzkeen datu horietaz. Osasun Saila pribatua da hemen, eta jende askok ez du kontsulta egiteko aukerarik. Apirilaren 19ra arte egongo da dena geldirik; estatu kapitalista da Suitza eta ekonomia doa osasunaren aurretik. Ez dut uste denbora askorik emango dugunik horrela".

- **Kutsatuak:** 21.907
- **Hildakoak:** 787.

## ALEMANIA

**"Herritarren kezka nagusia ekonomia arlokoa da"**



LAURA  
LAKONTXA  
OÑATI

"Ekonomiaren etorkizuna da herritarren kezka nagusia eta Gobernuak hasi da laguntzak ematen enpresa txikiak. Komertzio txikiak eta dendak itxita daude, tabernak ere bai. Baina herritarrek horietan kontsumitzeko deia ari dira babesten eta zabaltzen sare sozialen bitartez. Jatetxeak edo tabernak itxita daude, ez dute bezerorik, baina beraiek lanean daude barruan eta noizean behin etxean jateko bazkari edo afaria taberna batean enkargatzea da proposatzen dutena, adibidez; gero, beraiek ekartzen dizute etxera. Guk auzoko liburu denda batean enkargatu ditugu liburuak; gero, etxera ekartzen dizkigute".

- **Kutsatuak:** 103.375.
- **Hildakoak:** 1810.

## FRANTZIA

**"Etxetik kilometro batera urrundu gaitzke"**



AMAIA  
NAVARRO  
OÑATI

"Guretzat, kezka handiena momentu honetan ekonomia da, eta eskolak noiz irekiko diren. Konfinamendua ofizialki apirilaren 15ean bukatzen da, nahiz eta seguruenez 15 egun gehiago luzatuko den. Eskolak maiatzaren 4ra arte itxita daude hemen Lyonon oporregatik, oraingoz, baina entzuten da eskolak irailan irekiko direla berriro ere. Kalera irteteko aukera dugu ziurtagiriarekin; etxetik kilometro batera urrundu gaitzke eta soilik ordubetez egon gaitzke. Ekonomiako ministroaren hitzetan, aurtun ekonomia biziko duen atzeraldia handia izango da; 1945. urtetik ez omen da halako atzeraldirik egon".

- **Kutsatuak:** 98.100.
- **Hildakoak:** 8.911.

## NORVEGIA

**"Suediara begira gaude neurriak hartzeko orduan"**



OIHANA  
ZUBIA  
OÑATI

"Biztanle gehienek begi onez ikusten dituzte Gobernuaren neurriak; Gobernuak etxean egoteko gomendioa egin du, baina paseora joatera eta haizea hartzea ateratzea ere gomendatzen du. Momentuz, egoera kontrolpean dute; oraingoz, ez dago saturaziorik ospitaleetan eta ez da entzuten arnasa hartzeko makinak beharra dagoenik. Norvegia, Danimarkara eta Suediara begira ere badago; Danimarkan mugak Norvegiar baino egun batzuk lehenago itxi zituzten eta badirudi laster eskolak irekiko dituztela berriro. Suedian nahiko bizitza normala egiten ari dira eta gaixo eta hildakoak gora doaz".

- **Kutsatuak:** 5.866.
- **Hildakoak:** 83.

## HEGO KOREA

**"Berrogeialdia GPS seinale bidez jarraitzen dute"**



UNAI  
URRETZO  
ARRASATE

"Ekialdeko herrialdeetan badute esperientzia pandemiak eta krisia urtariletik hasi dira kontrolatzen; neurri zorrotzak hartu zituzten hasieratik. Korean ditugun kasuak nahiko kontzentratuta daude zona bakar batean. Jende asko pilatzen zuten ekin-tza guztiak suspenditu zituzten aspaldi. Hasieratik oso ondo presatu ziren, test asko egiten foku guztiak kontrolatzeko. Berrogeialdia GPS bidez jarraitzen dute, eta, apurtzen baduzu, 1.000 euroko isuna jartzen dizute. Maskaren erabilpena hemen oso barneratuta dago; ez dugu ulertzen nola beste herrialde batzuetan zalantza jartzen duten eraginkortasuna".

- **Kutsatuak:** 10.331.
- **Hildakoak:** 192.

## MEXIKO

**"Bihar jan nahi badute, lan egitera joan behar dira asko"**



ANE  
ZANGITU  
BERGARA

"Mexikon badoa hedatzen koronabirusa, baina erritmo motelagoan Euskal Herriarekin alderatuta. Hiru bat aste goaz konfinamendua, nahiz eta ez duten isunik jartzen, ez da Debagoienan bezain gogorra. Dendak itxita daude eta eskolak ere bertan behera geratu dira. Mexikoko herritarrek bizi izan zuten 2009an halako pandemia bat eta oso kontzientziatuta daude maskaren erabilerekin. Tamalez, herritarren ehuneko handi batek hemen Mexikon ezin du etxean geratu; egunean irabazten dutena da hurrengo eguna pasatzeko dutena, eta, hortaz, gaur lanera ez badoaz, bihar ez dute jango".

- **Kutsatuak:** 2.439.
- **Hildakoak:** 125.

## ITALIA

**"Lau aste daramatzagu dagoeneko, gogorra da"**



ELI  
SAINZ  
OÑATI

"Dena dago itxita hemen, gasolindegia ere bai. Pixkanaka joan dira neurriak ezartzen. Lau aste daramagu etxean sartuta eta, orokorrean, herritarrek ondo hartu dute neurria. Euskal Herriarekin alderatuta egoera nahiko antzerakoa da, baina, gu aurretik joan garenez, Oñatin ditudan familiarrei esan diet hasieratik neurriak jarraitzeko eta kontu handiz ibiltzeko. Etxetik ari gara lanean senarra eta biok. Gogorra egiten da, batez ere ez dakigulako noiz arte egongo garen egoera honetan. Azken aste honetan neurri batzuk arindu dira eta badirudi argia ikusteko gutxiago falta zaigula, baina ez dakit zer esan".

- **Kutsatuak:** 132.547.
- **Hildakoak:** 16.523.

## SINGAPUR

**"Gobernuak asko kontrolatzen ditu herritarrek"**



JON  
BARRENETXEA  
ARETXABALETA

"Singapurren badute esperientzia izurriteekin eta hori asko igarri da oraingo honetan ere, asko dute ikasia dagoeneko. Kasu positiboekin, zelan isolatu, beharrezko ekipamendu eta azpiegiturak ospitaleetan bermatu, txandaka eta taldeetan lan egiteko plangintzak antolatu ospitaleetan... Gaurtik aurrera behar-beharrezkoak ez diren zerbitzuak -janaririk/edaririk saltzen ez duen edozein zerbitzu- itxita egongo dira maiatzaren 4ra arte. Tarte honetan, enpresa guztiek etxetik lan egiteko aukera eman behar dute, posible izanez gero. Horrez gain, kontaktu sozialak murrizteko gomendioak eman dira".

- **Kutsatuak:** 1.375.
- **Hildakoak:** 6.

## AEB

**"Pobrezia asko dago, eta hauei asko eragingo die"**



NAIARA  
AKIZU  
ARETXABALETA

"Une honetan koronabirus kasu gehien dituen herrialdea dira Ameriketako Estatu Batuak. Aurreikuspenak ez dira batere onak, eta uste dut okerrera ere joan daitekeela. Pobrezia asko dago hemen, eta hauei bereziki eragingo diela uste dut. Duela hilabete batzuk, Trumpen esanetan ez zen koronabirusa heldu ere egingo gurrera. Oraingo egoera oso ezberdina da, baina. Kalera irten gaitzke, baina etxean egoteko dei egin dute, nahiz eta polizia ez dabilen hainbeste kontrolatzen. Erosketak egiteko, farmaziara edo medikurengana joateko edota kirola egiteko irten gaitzke hemen Philadelphian".

- **Kutsatuak:** 367.650.
- **Hildakoak:** 10.943.





Elgetan egindako lapiko jotzearen une bat. GOIENA

## Burrumba egin dute, Zaldibarren gertatu zena argitzea eskatzeko

Gertaera salatzen bakoietatik egindako lapiko jotzean hainbat herritarrek hartu dute parte

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Martitzenean bete dira bi hilabete Zaldibarko zabortegia amildu zela eta hainbat izan dira astelehenean Zaldibar Argitu Plataformak deitutako protesta ekitaldian parte hartu dutenak.

Plataforma osatuta duten zapi herrietan entzun ziren bereziki ozen zartagin eta lapiko hotsak; tartean, Elgetan. Elkartasuna hotsak, dena den, urrutia egiteko ere heldu zirela adierazi dute antolatzaileek, eta pozik daude, haserre eta tristura zarataz adierazi baitzuten hainbat herritarrek.

"Entzungor egiten dutenei zuzendutako ekintza" izan zela esan du Janire Lazkano plataformako kideak eta salatu du zabor azpian jarraitzen dutela Alberto Sololuzek eta Joaquín Beltranek eta oraindik ere asko dagoela argitzeko Eitzagan gertatutako inguruan.

Hondakinen kudeaketa eredu aldatzeko ere eskatu dute plataformatik, eta herritarrek etxetan konfinatuta egon arren aldarrikapenak ez dutela etenik adierazi dute.

**Gorpuen eremutik gertu**

Bien bitartean, lanek aurrera jarraitzen dute Verter Recycling zabortegian. Segurtasun Sailetik adierazi dute "lan handia" dagoela egiteko, baina uste dute iritsi direla gorpuak egoteko probabilitate handiena dagoen eremura. Domekan agertu zen Alberto Sololuzeren autoa; bascularen eremuaren inguruan.

Bestetik, Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen batzordeak ez du ezohiko batzarrik egin Epeleko zabortegiarekin zer egin erabakitzeko. Batzarra egitekoak ziren astean ezarri alarma egoera koronabirusagatik eta bertan behera geratu zen.

## Landa eremuetako plastiko biltze-guneetan, zaborra

Deba Garaia Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarteak salatu du baserri-guneetako plastiko biltzen den hainbat gune "kontrolik gabeko zabortegi" bihurtzen ari direla, jendeak plastikoaz gain "beste zabor mota batzuk botatzeko ohitura" hartu duela iritzita. Gune horietako zerbitzua bertan behera gelditzeko arriskuaz ohartarazi du.

## Eskualdeko irudiak sare sozialetan partekatzen deia

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak dei egin du Aste Santuan eskualdeko tokien irudiak Instagramen partekatzen deia, #ezagutudebagoiena etiketa erabilita. Mankomunitatetik adierazi dute apirilaren 26ra bitartean argitaratutako argazkien artean Debagoieneko baserrietako produktuen sorta bat zozkatuko dutela astero.

## Goienaren banatzaileei eta okindegiei, kioskoei, denda txikiei...

Esker mezua helarazi nahi die Goienak astero-astero banaketa egiten dabiltzan pertsonari, ezinbesteko lankideei. Irakurleekin asteroko hitzordua betetzeko hautuak eskatu dizkigu moldaketak, babes neurriak zorrotzea... eta, hala ere, inprimatzen diren ale guztiak ari dira banatzen fin-fin. Goienan ezin eskertuago gaude Batu Banatu SL enpresako banatzaileekin. Seguru gaude irakurle bakoitzak ere eskertzen duela egiten ari diren lana atariko tinbrea jotzen duten aldiro.

Zaila jarri da ohiko lana egitea, eta komertzioetako atea jo dugunean esku zabalik hartu gaituzte Debagoieneko dendek: kioskoetakoak hor daude, egunerokoari aurre egiten. Baita okindegiak, herri eta auzoetako denda txikiak, harategi, fruta denda, estanko, farmazia... Alarma egoeran eta hau pasatutakoan ere zor diegu gure begirunea. Komertzioei eta denda txikiei esker jaso dezakezu zuk GOIENA aldizkariaren ale hau. Horrela izango duzu gertuan gertatzen denaren berri, informazioa eskubide bat baita, premia biziko ondasuna.

Aldizkari honetako letra bakoitza idaztea alferrekoa litzateke hauen guztien inplikaziorik gabe, eta dagokien eskertza helarazi nahi izan diegu lerro hauekin:

**Eskerrik asko.**



ZABALIK

MIKEL MUXIKA

## Bizitza lehentasun?

Komunikabide eta arduradun edo ordezkari –politikariak edo enpresakoak– guztien ahotan dabilen moduan, bizitza da gaur egungo egoeran lehentasun nagusia –aurretik ere hala zen, ezta?–.

Mundu guztian da horrela, edo, behintzat, Europan bai; Erresuma Batua jada ez ei da Europa, langile eta gizarte mugimenduen indarraren ondorioz, akaso.

Horrela izanik, COVID-19 eritasunaren eraginaren eboluzioak argi uzten du lehentasunak argi edukitzearen ondorioz egindako aurreikuspen eta prestaketak zenbaterainokoak izan diren: material mediku prestaketa eta distribuzioa, kutsatze prebentzio material eta neurriak, osasun alorreko langile eta instalazioen prestaketa eta organizazioa... eta hauetan sortutako behar edo aldaketei erantzuteko plan sendoak.

Prestaketa honen adibideak argi ikusi dira: nagusien egoitzetan ez da ezbehar berezirik egon, larrialdi zerbitzuak edo zainketa intentsibo unitateak (UCI)

### AURRETIK ERE AHAZTUTAKOEN EGOERA KONTROLATUA EGONGO DA

gainezka egiteko beldurrik ez da egon, posible den kasuetan langileak etxetik lan egitera bidali dituzte lantokira joanarazi beharrean, edota prebentzio materialik ez zegoenean lantegia itxi

dute patroien ardura eta lehentasunei esker –Gasteizko Mercedes–.

Dena kontrolpean hasieratik, ezta?

Pandemiaren eraginez, bizitza eta bizibidea zuzeneko konfliktuan daude –aurretik baino gehiago, behintzat– eta bizibidea aurrera ateratzeko norberaren eta inguruko bizitza –inoiz baino gehiago– arriskatzeko du.

Aldi berean, denon ardura omen da pandemia hau gelditu edo geldotzea.

Baina agintedunek heriotza kostua bizitza kostua baino txikiagoa balitz bezala erabakiak eta neurriak hartzen dituzte? Bestela zail izango da gizartea partzialki geldituta emaitzarik lortzea, gehienok ez baitugu lanera joan gabe bizitzeko aukerarik.

Aurretik ere ahaztutakoen egoera kontrolatua egongo da.

Baina bizitza da lehentasuna, beti?

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Palafoxiana

ANDER IZAGIRRE

"TTAP"-EN ARGITARATUA

Amerikako lehen liburutegi publikoan sartu nintzen, Pueblan (Mexikon). Liburu zaharrak sare metalikoen atzean itxita zeuden, kaiolatan bezala, eta apalategiei zedro eta larru usaina zerien. Liburutegiaren sortzailea nafar bat izan zen: Juan Palafox gotzaina. Txirripaz zen nafarra –tira, nafar guztiak bezala–: markes aragoiar baten sasikumea izanik, ama Fiteroko bainuetara eraman zuten han ezkutuan erditzeko.

Espainia Berriko erregeorde izendatu zuten 1642an. Hango arazoak eta gabeziak

aztertuta, oso aktuala dirudien diagnostikoa idatzi zuen, inperioaren gainbehera azaltzeko: "Portugal ez zen Portugalen galdu, ezta Katalunia Katalunian ere, baizik eta Madril; eta Madril galduko dira Mendebaldeko Indiak, Ekialdeko galdu ziren bezala, gehiegikeria publikoak saritzen diren lekuetan sortzen baitira ekaitzik gogorrenak, gero erresumetaraino zabaltzen direnak; eta erresumak, bortxa eta tiranien ondorioz, koroatik banandu egiten dira". [...]

Beste kezka bat zeukan: Espainia Berrian oso liburu gutxi zegoen, eta gutxi haiek

sitsen bazka izaten ziren edo txokolatea biltzeko hostokatzen zituzten –"baita eduki sakratukoak ere"–. Pueblan inprenta bat zabalduta eta, 1646an, bere bost mila aleekin liburutegi bat sortu zuen, baldintza honekin: elizgizonen bakarrik ez, edozeinek erabili ahalko zuen. "Probintzia hauetan oso beharrezkoa da liburutegi publiko bat, pobreek eta libururik ez daukatenek modu erosoan ikas dezaten". Liburutegiaren asmo demokratikoarekin lotura ikusten diot bere beste esaldi honi: "Galduta daude prebentzioekin gobernatu ordez erremedioekin gobernatzen diren erresumak".

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza,  
Maite Igartua.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua:

SS-965/2014  
ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Arebaleako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta  
Hizkuntza  
Politika Sailak  
(Hizkuntza  
Politikarako  
Sailburuordetzak)  
diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



## BERBAGAI

# "Aberri Eguna balkoietatik ospatzera dei egiten dugu"

MIKEL IRIZAR EUSKAL HERRIA BATERA EKIMENAREN TALDE SUSTATZAILEKO KIDEA

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE Berrogeialdi egoera honetan, domekan Aberri Eguna modu berezian ospatzeko dei egin du Euskal Herria Batera ekimenak. Zehaztasunak eman ditu Mikel Irizarrek. **Nola eratu da talde hau? Zein izan da prozesua?**

Harreman pertsonaletatik abiatuta, hiruzpalau pertsonaren arteko kezka partekatua hasi zen, ideiarri forma eman genion eta horrekin bildu zen talde sustatzailea. Euskal herritarrek gara, batzuk ezagunagoak eta besteak ez hainbeste. Hauek dira garrantzitsuenak: erizainak, zaintzaileak, garbitzaileak, suhiltzaileak... Denon zaintzan ari diren pertsonak. Dena den, taldea osatzeko prozesua oso azkarra izan da, aste gutxiko kontua.

**Koronabirusagatik bizi dugun larrialdi egoera berezia, berez Aberri Eguna ospatzeko oztopo izan zitekeena, aukera baliatu duzue?**



Mikel Irizar, Gipuzkoako Hizkuntza berdintasuneko zuzendari zeneko irudian. E.A.

Bai, egoera honetan ezin da Aberri Eguna kalean ospatu; eta, aldiz, herritarrok balkoietan gaude elkarri sostengua ematen. Aukera bilakatu, batera keinu egin eta Aberri Eguna ospatzera

dei egiten dugu. Egiten dugunak indartu egiten gaitu. **Aberri Eguna ospatu eta euskal nazioa aldarrikatzeaz gain, larrialdi egoera honetan bizia galdu dutenak omentzeko, dolua adierazteko eta zaintzan**

**dabiltzanei denon esker ona adierazteko ere baliatuko duzue ekimena, ezta?**

Noski; komunitateko parte bat bereziki ari da pairatzen larrialdiaren zama. Lehenengo eginkizuna da haien sufrimendua aintzat hartzea eta gure maitasuna helaraztea.

**Ekimen honekin, komunitate sentimendua eta herri kontzientzia sendotu nahi dituzuela diozue...**

Hain zuzen, hor dagoelako nazioaren eta aberriaren oinarria, elkar zaintzeko eta denon eskubideak bermatzeko balio digun komunitate indartsuan. Berez gertatzen ari den zerbait da; gure ekimenak prozesu hori areagotzen eta esplizititzen lagunduko du.

**Abertzale ez direnei ere egin gura diezue dei?**

Komunitatea indartzeko helburu horretan denok gara parte. Denoi inporta zaigu eskubide oinarrikoak bermatzea, berdintasuna eta justizia bilatzea, elkarrenganako zaintza eta errespetua sustatzea... Eta eztabaida demokratikoak esango du zein norabidetan erabiliko dugun komunitatearen erabakimena. **Era berean, diozue lankidetzaren aldarrikatu nahi duzuela**

**erakundeen, eragileen eta herritarren artean. Nola gauza daiteke lankidetzaren hori?**

Bakoitzak bestea aitortuta eta gatazka ezkutatu gabe. Ahots eta interes diferentek ditugu, konfrontazioa ere egongo da behar adina, eta gai izan behar dugu osagai komunak ere indartzeko. Pertsona, eragile eta lurralde bakoitzaren jardunari jomuga bateratua ematen diogun neurrian, nazioa indartzen dugu.

**Aberri Egunean, mosaiko digital erraldoi bat osatu gura duzue. Herritarrek euren konfinamendu tokitik nola hartu ahalko dute parte ekimenean?**

Asteon zehar, etxean argazkiak atera eta webgunera igota, igandean guztiekin batera irudi kolektiboa osa dezagun. Balio du, baita ere, etxeko bizimoduan egindako keinuak partekatzea sare sozialetan, ekimenaren traolak erabilia ([#euskalherriabatera](#) eta [#aberrieguna2020](#)). Eta gero, Aberri egunean bertan, proposamena da balkoietan batera kantatzea, euskal irratietan emango den emisio bateratuari jarraituta. Kantatua batera eginda elkarrenganako hurbiltasuna eta animoa helarazteko elkarri.

## ITURRI ONETIK

## Mikel Laskurain eta 'Etxekoak' telesaila

Hedabideak, beste hainbat jarduerak bezala, egiteko moduetan eta edukietan berrasmutzen dabiltza larrialdi egoera honetan. ETB1ek, esaterako, gaur, eguaztana, abiatuko du fikziozko saio berri bat: *Etxekoak*. Umorea oinarri, berrogeialdian etxean dauden hainbat pertsonaiaren gorabeherak kontatuko du. Protagonistetako bi izango dira Mikel Laskurain bergararra eta haren bikotekide eta, era berean, aktore, Miren Gojenola lekeitiarra.

## ALBISTE IZAN ZEN

2004-04-03

## Euskal Herriko Itzuliaren hasiera Bergaran

Jon Odriozola, Iban Mayo, Joseba Beloki, Tino Zaballa, Alejandro Valverde... Sasoi bateko –eta oraindik ere, gaur egungo– txirrindularien izenak dira. 2004an Bergaran izan ziren guztiak. Izan ere, Euskal Herriko Itzulia Bergaran hasi zen urte hartan. Hasierako etapan, gainera, Valverde izan zen azkarrena Ibargaraiko helmugan. San Martin plazan elkarren ondoan izan ziren txirrindulariak, zaleak eta kazetariak, atarikoan.



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

## Umore festak etxetik jarraitzen du

Koronabirusaren krisiak etxean egindako umorezko edukien gorakada ekarri du:

*@iraitz\_24*: "Garai txarretan ere ezin delako umorea galdu nire buruaren memea egin dut konfinamendua animatzeko".

*@unzabetxe*: "Bigarren bakarrizketa, hementxe. Eutsi gogor! Osasuna zaindu eta umorea ez galdu".

*@olatzbalda*: "Adinduek eman digute aholkua: pasako da, beraz, pazientzia eta umorea!".

*@dendenanahidugu*: "Gaixotasuna, beldurra eta isolamenduaren aurrean umorea gure armarik onena".



**XABIER BERASATEGI**  
TTT TALDEKO ZUZENDARIA

## Ondorengo ikasketa berriak

Gizakiak malguak gara eta malgutasun horrek laguntzen digu bizitza jasaten. Ohituradun animaliak gara baita ere; astegunean bakoitzak bere errutinak ditu: esnatzeko ordua, gosari berbera egunero, eguerdiko etenalditxo, afaria prestatu... asteburuan lagunekin solasaldia, igandeko siesta... Eta bat-batean, etxean! Ohitu egin gara horretara ere. Gure atzoko errutinak ahaztu eta berriekin hasi gara: eskuak garbitu, lanera kafea termoan eraman, erosketak egiteko ilaratxoan zain, zortzietako txaloak, berriz eskuak garbitu... Benetan malguak gara eta malgutasun horrek lagunduko digu osasun krisia ahalik eta ondoen jasaten eta jada gure artera iritsi den krisi ekonomikoari aurre egiten. Noski, laguntza beharko dugu.

Enpresaren arloan, ohitura eta jarrera aldaketak bultzatu ditugu. Ez bakarrik ekoizpenean, zuzenezkoak ez diren aktibitateetan ere bai. Erreleboak txandaka, garbiketa

sakonagoa, etxetik lana, bisitak eten, bilerak lau pertsonatara mugatu eta beste hainbat neurri jarri ditugu abian kutsadurak murrizteko. Aktibitateak jarraitu egin behar duelako, noski; betiere, pertsonen segurtasuna lehentasuna izanik. Aktibitatea behar dugu, bertatik baitator aberastasuna, hein handi batean. Aberastasuna, zergak ordaintzeko. Aberastasuna, gure errutinak mantentzeko, gure ohiturak, gure estatusa: erosketak, solasaldiak, osasun zerbitzuak, hezkuntza... Osasuna eta ekonomia ez dira kontrakoak.

Osasun krisia menperatzen ari garen bitartean, paraleloki, sektore

### GLOBALIZAZIOAREN ETA BERTAKOAREN ARTEKO OREKA MANTENDU BEHAR DA: GLOBALA BAINO GEHIAGO, 'GLOCALA'

guztietako aktibitateak behera egin du. Langabeziak gora egin du eta kontsumoak, behera. Laguntza beharko dugu. Erakunde ofizialen laguntza, elkarrekiko laguntza... Guk, norbanako bakoitzak, erakundeek... indarra, gogoia eta aukera daukagu krisi honi buelta emateko. Kutsadurak beheraka egiten duten heinean, berraktibatzea iritsiko da eta berraktibatze honekin aukera berriak baita ere.

Asko ikasten ari gara egun hauetan. Identifikatu ditzagun ikasketa horiek, eta erabili ditzagun aukera berriak sortzeko. Sarritan entzun dugun bezala, krisi honek aukerak ere ekarriko ditu.

Ikasketa horien adibideetako bat bilerak bideokonferentzia bitartez egitea da. Eraginkorrak gara, bilerek gutxiago irauten dute, parte-hartzeak motzagoak eta sakonagoak dira. Bezeroekin harremana mantentze aldera, enpresa, denda eta negozio txikien

artearen Interneten erabilera areagotu egin da; batez ere, prozesu komertzialean: salmentak, publizitatea, eta abar.

Egun hauetan albisteetan ikusten ari garena ikusita, herrialde bezala ere aukera berriak ditugu: erosketak amankomuna, hornidura kritikoak ziurtatu, osasun munduan ikerketak bultzatu, eta abar.

Geopolitikari buruz ere ikasten ari gara. Globalizazioa, merkatu bakarra, mugikortasuna, aldaketa klimatikoa, hiri handietara migrazioa... Horrek ekarri al gaitu egoera honetara? Batek daki. Hala ere, etxeko produktua sustatzen ari gara, gure baserritarrek ekoizten dutena janez, gure arrantzaleek harrapatzen dutena erosiz... Maskarak ekoizten hasi gara, osasunaren industriarako makinak egiten ditugu eta esportatzen jarraitzen dugu. *Glocala* globala baino gehiago; bertan dago erantzuna. Globalizazioaren eta bertakoaren arteko oreka mantendu: globalizazioaz aprobetxatu eta etxekoa zaindu.



**AMAIA ZURUTUZA**  
GRAPHENEA-KO ZUZENDARI ZIENTIFIKOA

## Ikerketaren garrantziaz jabetuko gara?

Koronabirusak gizartea, langileak, hezkuntza, gobernuak eta enpresak mobilizatu dituela esan dezakegu, eta elkartasuna lantzen lagundu. Zientzialariok ere mobilizatu gaitu, asko baitabilta koronabirusa nola gainditu aztertzen edo azkar detektatu ahal izateko metodoen bila. Hala, enpresa batzuk txertoen bila dabilta, herrialde askotako gobernuak –Europako Batzordea– eta hainbat erakunde –CEPIK, adibidez, Epidemiatarako Prestatzeko Berrikuntza Batzordeak– horretarako dirulaguntzak eman dituztelako.

Moderna Therapeutics enpresarena da kasu aipagarrietako bat. CEPIK eman zien hasierako dirulaguntza, eta txerto baten bila hasi ziren, urtarrilaren 13ean. Ba, jadanik gizakietan saioak egiten hasi dira –proba klinikoen I. fasea–, animalietan testatu gabe. Hala ere, 12-18 hilabete baino lehen ez da prest egongo. Baina hori ez da

CEPIK finantzatu duen proiektu bakarra: beste sei enpresa eta unibertsitateen eta ikerketa institutuen proiektuak ere finantzatu ditu txertoa bilatzeko erronka honetan.

Hori bai, Euskal Herrian bertan ere badaude enpresak koronabirusaren erronkan laguntzen. Adibidez, gu Graphenean hidrogel desinfektatzailea egiten ari gara, eta grafeno-laginak dohainik ematen koronabirusaren ikerketa egiten duten taldeei, kit diagnostikoak garatzeko. Azken finean, koronabirusa duten pertsonen diagnostiko azkarra egitea oso garrantzitsua da, birusa ez zabaltzeko eta estatistika zehatzak edukitzeko.

Koronabirusak eta beste birus askok –ebola, HIV, eta abar– birusei izen txarra eman arren, aipatu beharra dago gaixotasunak osatzeko ere balioko dutela etorkizunean. Birusek zelula barruetan euren

material genetiko sartzen dute, eta mekanismo hori da, hain zuzen ere, desordena genetiko batzuk zuzendu ahal izatea ahalbideratuko duena: laborategian eraldatutako birus batzuek akatsa duen genea ordezkatu ahal izango dute. Donostian bertan badago enpresa bat, Viralgen, terapia berri horiek garatzen. Terapia genetikoak deitzen den arloaren barruan, hain zuzen ere.

Ez dugu ahaztu behar birusak gizakiarekin batera bizi izan direla urte askoan; seguruenez, betidanik. Horien jatorria zaila da zehazteko, ezin direlako fosil bihurtu.

Zientzia gero eta azkarrago mugitzen dela ezin da ukatu. Hala ere, zientziaren garapena ahalbideratzeko diru-inbertsio handiak behar dira, eta gobernu askok segituan ahazten dute faktore garrantzitsu hori; krisi egoeretan, batez ere. Eta ez bakarrik zientzian: gaur egungo egoerak ondo erakutsi

digu osasungintzan inbertitzeak duen garrantzia ere.

Etorkizunak zer ekarriko digun ez dakit, baina espero dut zerbait ikasi ahal izatea esperientzia honetatik.

Zientzialariek denboran bidaiatzeko makina sortuko balute, nik beti esaten dut etorkizunera joango nintzatekeela, eta ez iraganera, jakin-mina dudalako etorkizuna nolako izango den. Dena dela, gaur eguna bezalako momenturik ez dagoela ere sinesten dut. Beraz, momentua bizi behar dugu. Eguneroko bizitza bizitzea baino hobeagorik ez dago eta; etorkizun oso hurbilean, berriro kalera/mendira/hondartzara irteten garenean, askatasuna zer den biziko dugu berriro. Baina bitartean, etxeko giroaz gozatu.

### DIRU-INBERTSIO HANDIAK BEHAR DIRA, ETA GOBERNU ASKOK SEGITUAN AHAZTEN DUTE FAKTORE GARRANTZITSU HORI




**IÑIGO IÑURRATEGI**

MONDRAGON KORPORAZIOKO HEZKUNTZA KOOPERATIBOKO ARDURADUNA

## Aurrera begira

Izen zatarreko gaitz honi aurre egiteko ahalegin betearen ari gara guztiok, bakoitza bere modura. Batzuk lehenengo lerroan osasun zentroetan, beste hainbat oinarritzko zerbitzuak bermatzen eta gainontzeako etxean zain, lanetan, elkar zaintzen, guztiok ere bizitzak aurrera egin dezan ahalegintzen.

Momentu honetan lehenetsuna bat-bateko gaitz uholdeak gure osasun sisteman eragindako ataka estutik irtetea da. Baina, lehenago edo geroago, osasun sistema estutasunetik irten eta bere onera etorriko da, eta poliki-poliki etxeetatik irten eta bizitza normalagoa egitera itzuliko gara. Hala ere, hilabete luzeetan txertorik ez dugu izango, eta, beraz, gaitzarekin elkarbizitzen ikasi beharko dugu. Gaitza presente egongo denez, kolektibo zaurgarrienak babesteko neurriak hartu beharko ditugu.

Alde batetik, birusaren hedapenari aurre egiten jarraitzeko neurriak

hartu edo mantendu beharko ditugu, eta ikasi beharko dugu bizitza sozialean, bai kalean, bai lantokietan, guretzako berriak izan daitezkeen zenbait neurri hartzen. Adineko jendeak eta osasun arazoak izan ditzaketenean, gainera, neurri gehigarriak hartuz jarraitu beharko dute.

Bestetik, krisi sozioekonomikoari aurre egin beharko diogu. Horretarako, ezinbestekoa izango da, batetik, gure ekonomia berraktibatzea lehenengo sektoreari eta industriari dagokionez, lana berreskuratu eta lan errenten bitartez gainontzeko zerbitzuak finantzatu eta aktibatu ahal izateko. Lantegietan protokolo

**EGIZKIGUZUE ADOSTUTAKO PROPOSAMEN AUSARTAK, ETA HERRITARROK GOGOTIK ERANTZUNGO DIZUEGU, EZ IZAN DUDARIK**

zorrotzak ezartzea eta baliabide egokiekin negozioren bideragarritasunari eusteko gai izatea estrategikoa izango da. Baina hori ez da nahiko izango. Administrazio maila ezberdinetako erakundeek ahalegina egin beharko dute herritar guztiok oinarritzko baliabideak izan ditzagun, batez ere ahulenak babestuz. Merkataritzan, zerbitzu arloan edo kulturagintzan, besteak beste, aktibitatea berreskuratzeko baldintzak egon daitezkeen estrategia berriak landu beharko dira.

Horretarako guztirako diru asko beharko da. Tentuz, baina behar beste zorpetu beharra daukagu. Jakinda zorpetze horrek urteetarako faktura ekarriko digula. Belaunaldien arteko elkartasuna aktibatu eta ausart jokatzeko garaia da. Zorraren faktura ordaintzerakoan molde berriak asmatu beharko ditugu azken krisian bezala herritar soila izan ez dadin ordaintzaile nagusia.

Krisi honek gauza asko birpentsatu beharra ekarriko digu etorkizunera begira: osasun zerbitzu publikoan inbertsioa handitu beharra, zaintza aktibitate guztien zentraltasuna kontuan hartu eta, beraz, hauek balioestea, krisi egoerei aurre egiteko herrialde bakoitzak ekoizpen sektore estrategikokoak mantentzea... Hartu beharko dugu aurrerago denbora hau guztia patxadaz aztertu, hala badagokio kontuak eskatu eta ondorioak ateratzeko, baina orain adostasunak lortu eta elkarrekin aurrera egiteko garaia da.

Gurean, batez ere bai agintean bai oposizioan dauden politikariei, sindikatu eta arduraduniei, enpresaburuei eta kooperatibetako organo ezberdinei eskatuko nieke egoeraren osotasuna kontuan hartuz adostasun sendo eta berrien bila zorrotz eta eskuzabal jokatzeko. Jar ezazue komunitatearen interesa beste edozein interes partikularren aurretik. Egizkiguzue adostutako proposamen ausartak. Horrela izanez gero, herritarrok gogotik erantzunoko dizuegu, ez izan dudarik.


**MIKEL ARREGI**

EUSKADI IRRATIKO ETA RADIO EUSKADIKO BERRIEMAILEA MADRILEN

## Agintariak pandemiaren aurrean

Onartzen dut. Nik ere uste nuen hau guztia ez zela honaino iritsiko. Baina hemen gaude, etxean sartuta, pandemiaren tunel ilun honen bukaera gertu ikusi gabe. Birusarekiko izan dudana itsukeria, baina, ez da kasu isolatua izan. Itsukeria hori gizarteara ere izan da, jendarteara, eta noski, krisi hau aurreikusten jakin ez duten erakunde, gobernu eta agintariena.

Ez da erraza, XX. mende hasieratik bizi gabe genuen mundu mailako pandemia baten aurrean nola jokatu daitezkeen asmatzea; eta mundu zabaleko gobernuak nahaspila horretan murgilduta daudela dirudi.

Estatuan, badirudi hartu diren erabakiak gaizki eta berandu iritsi direla. Italian bezala, Espainian ere konfinamendu agindua hartu zenerako, birusa oso hedatuta zegoen, kontrolik gabe. Hala ere, eta Txinaren eta Italiaren pausoen atzetik, Pedro Sanchezen Gobernuak neurri zorrotzak hartu ditu jendea etxean

mantendu, eta birusaren hedapena geldiarazteko asmoz. Ekonomia jarduera hein handi baten gelditzea ere erabaki du, eta badirudi erabaki hori ere behar zenaren ostean hartu duela, argi baitzegoen Italiaren bide bera jarraitu beharko zuela Espainiak ere. Trakerkeria honen erdian, baina, Londresko Imperial College prestigiodunak esan berri du Espainiako Gobernuak hartutako neurriek 16.000 pertsonaren bizia salbatu dutela estatuan. Bada zerbait.

Sanchezek Gobernuak, behintzat, hartu du norabide bat: neurri zorrotzak hartzea, krisia lehenbailehen pasa eta normaltasunera itzultzeko. Ikusiko dugu ea bide ona aukeratu duen edo ez; horretarako, urteak pasa beharko dira, osasun krisiaren ostean krisi ekonomikoa sakona aurreikusten baita.

Azken honi heldu dio Eusko Jaurlaritzak bere sinesgarritasunari eusteko. Espainiako Gobernuak koronabirusaren krisira berandu iritsi bada, zer esan genezake Urkulluren

Jaurlaritzaren inguruan? EAEko hauteskundeak bertan behera utzi eta konfinamendua neurri eraginkor bezala defendatzeko berandu ibili da, eta COVID-19ak utziko duen krisi ekonomikoa heldu dio osasun krisiari aurre egiteko izan duen ahalezia falta ezkutatzeko. Izan ere, Espainiako Gobernuak inposatutako neurrien eraginaren zain, Jaurlaritzak prest du epe ertainerako marko diskurtsiboa: "Konfinamenduan hartutako neurriek kalte egin diote gure ekonomiari, hobe litzateke beste erabaki batzuk hartu izan balira".

Jokaldi aparta da, PNVk ondo baitaki horrelakoetan mugitzen. Lehendakaria kexu azaldu da, gainera, Espainiako Estatuak euskal erakundeengan egin duen esku hartzearekin, baina ahaztu egin du, nonbait, berak defendatzen duen itun estatutarioak aurreikusten duela esku hartze hori. Hau da, fikziotik kanpo, euskal erakundeak Estatuaren parte subsidiario besterik ez da –egunotan

ikusi bezala–; finean, benetako autogobernua Espainiako Estatuarena baita, eta ez bertako erakundeena. Dena den, guztiok dakigu Madrilgo Gobernuarekin ustez izan duen haserrearen eta krisi ekonomikoa tamaina aurreikusi zuela astintzeak mesede egingo diola Jaurlaritzako alderdi nagusiari etorkizuneari.

Bitartean, guk etxetik jarraituko ditugu politikak koronabirus eta konfinamenduaren garai hauetan uzten dizkigun gorabeherak. Faltan igarriko ditugu gertukoak, aspertu egingo gara, eta neguko hotzetatik udaberriko epeletara pasako gara etxeko balkoitik begira. Pazientzia, eta batez ere, osasuna beharko ditugu datozen astetarako inguruan dugun egoera beltzaren aurrean. Eutsi, irtengo dugu eta!

**FIKZIOTIK KANPO, EUSKAL ERAKUNDEAK ESTATUAREN PARTE SUBSIDIARIO BESTERIK EZ DA –EGUNOTAN IKUSI BEZALA–**

## Biktima pasiboak?

ANDONI IPARRAGIRRE CONGET

ANTZUOLA

Neolitoan, nekazaritzaren eta abereen etxekotzearen hedapenarekin, ingurune naturalaren lehen eraldaketa masiboa eragin zuen gizakiak. Orduz gero, praktika hauen areagotzeak eta eredu industrial estruktibista geroz eta globalizatu nahiz desarautu baten garapenak habitat naturalen suntsipenen azkartzea ekarri dute.

2019an, *The Scientist*s aldizkarian, deforestazio eta urbanizazio prozesuek animalia jatorriko agente patogeno mikrobiologikoen gizakietarako jautzia erraztu egiten dutela argitu zuen ikerketa batek. Azken mende eta hamarkadetan geroz eta maizago gertatzen ari diren animalia jatorriko birus eta bakterioen epidemia, beraz, gizakiak berak sorturiko ingurumen baldintzek erraztuta ugaritu omen dira.

Hortaz, ez gara gure kontra etorritako etsai baten biktima pasiboak, guk geuk sortu ditugu agente hauek gizakiotara jauzi egin eta hedatzeko baldintza aproposak. Osasun tragedia masiboak ekidin nahi baditugu, bizitzaren aurkako gerra baino gehiago, ikerketa, zaintza eta kontserbazio ekologikorako neurri prebentibo zorrotz eta erradikalak behar ditugu berehala.

Denon ardura da aldaketaren parte aktibo

izatea, sistema ekonomiko produktibista desorekatzaile hau indartzen jarraitzeko interes gehien dutenei, gure bizimodu eta kontsumo ohiturak arduraz aldatzen erantzunez eta alternatibak sortuz.

## Arrisku larrian dago presoen osasunerako eskubidea

JOSEBA AZKARRAGA, IÑAKI LASAGABASTER ETA RAMON ZALLO

SARE HERRITARRA  
DEBAGOIENA

Artikulu hau sinatzen dugunak Diputatuen Kongresuko taldeekin hitz egitera joan ginen martxoaren 10ean eta 11n, Sarearen izenean.

Bilera adeitsuak izan ziren, eta esateko geneukana entzun eta aditu zuten.

Gure mezuaren bidez, euskal presoen larrialdi-egoerari buruzko ohararazpen bat egin nahi izan genien, gaixotasuna, urruntzea eta gradu-aldaketa direla eta. Egoeraren larritasunak kezka sortu zien gure solaskideei.

Egun haietan, Madrilen zabaltzen ari zen ordurako pandemia; biral bihurtzen hasi zen *arrisku-taldeak* kontzeptua, eta talde horien artean bereziki zaurgarritzat jotzen ziren adineko pertsonak. Bada, espetxean dauden pertsonen txartel guztiak dituzte: adin handia, gaixotasun oso larriak, senideengandik urrun, informazioaren

opakutasuna... eta, orain, konfinamendu bikoiztua bihurtu den berrogeialdi hau.

Osasunaren Nazioarteko Egunaren astea den honetan –apirilak 7–, gogora ekarri nahi dugu egoera hori. Osasunerako eskubidea bizitzeko eskubidea da, preso daudenena ere bai. Espetxeak erabat oztopatzen du osasun-tratamendu egokia izatea, eta laburtu egiten du gaitz larriak dituzten pertsonen bizi-itxaropena. Horrez gainera, urratu egiten da, baldintza horietan egonda, zigorra etxean betetzeko duten eskubidea.

Legea betetzea eskatzen dugu, besterik ez. Espetxean hiltzea ekiditeko. Zuzenbidearen kontrakoa da espetxean mantentzea; eta Zuzenbidearen kontrakoa da, erabat bidegabea delako, Estatuaren krudelkeria.

Presoen osasunerako eskubide unibertsal eta utziezina aldarrikatzea erantzukizun kolektiboa da; pandemian *lein motiv* osasuntsua izan den bata bestea zaintzearen zati bat da, ezinbestekoa gizarte demokratiko batean.

Bizirik eta etxean nahi ditugu.

## Adinekoen egoitzak eta COVID-19a

ITZIAR USANDIZAGA GALARRA

GAURGEROA-DUINTASUNA ELKARTEAREN  
IZENEAN  
BERGARA

Lehenik eta behin, doakie gure doluminik sentikorrena

hildako guztien senitartekoei. Eta gure sentimendurik sakonena ospitalean hildako adineko pertsona nagusiekiko, senide eta lagun laguntzarik gabe, agur esan gabe eta gizaki orok behar duen bezala heriotzara igarotzeko aukerarik gabe.

Adineko pertsonok gure ohiko ingurunean egon nahi dugu, gure etxean, auzoan, gure senide eta lagunekin, hori da gure nahia. Baina gure bizitzan bada une bat non hainbat faktorerengatik egoitza batera joatea beste aukerarik ez dugun, hala nola mendekotasun-maila, etengabeko laguntza espezializatua izateko zailtasuna eta gure etxebizitzaren egokitzapen falta direla medio. Gure etxetik egoitza batera pasatzean, etxebizitzaz eta ingurunez aldatzen dugu, baina ez eskubidez. Adineko pertsonok, gure osasun-egoera eta mendekotasuna edozein izanda ere, eskubidea dugu osasunerako, autonomiarako, intimitaterako, erabakiak hartzeko gaitasunak ahalbidetzen duen bitartean, eta abar.

Hala ere, Gipuzkoako egoitzetako langileen borroka eskubide horiek ahalbidetzea zailtzen duten egoerak azaleratu ditu. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiogu kolektibo honi, egiten ari diren ahaleginagatik, batzuetan baldintza okerretan eta

babes-materialik gabe egoiliarrek zaintzeagatik eta beste batzuetan beraiekin bizitzen gelditzeagatik.

Bestalde, nabarmendu nahi dugu egoitzetako langileak eta Gipuzkoako Senideak ahaideen elkarte bat eginda borrokatu direla adineko pertsonak zaintzeko eta babesteko, eta guk haien aldarrikapenak babestu ditugula justuak eta bidezkoak direlako, hala nola plantilla handitzea, baliabide handiagoak eta lan-baldintza hobek izatea.

COVID-19aren pandemiak egoitzetako defizitak atera ditu argitara, eta une honetan erantzuna emateko zailtasuna gehitu du aurreko gabeziak direla eta, hala nola osasun profesionalen falta, zaintzarako falta, behar bereziei arreta ematea, eta abar.

Adineko COVID-19 gaitza dela-eta bizi dugun dramak argi erakutsi digu zenbait gobernarentzat alde batera utzitako gizarteak garela. Hala ere, ez da berandu Gipuzkoako Foru Aldundiak egoera honen gainean gogoeta egiteko.

Utz ditzala "garrantzitsuenak pertsona dira" bezalako hitzak; izan ere, ekintzetara pasatzeko garaia da eta horretarako ezinbestekoa da adineko pertsonak duintasunez zaintzeko egoitza publikoetarako aurrekontu handiago eskaintzea, hau baita bide bakarra pertsonak lehenesteko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA







## 'GOIENA' ETA 'PUNTUA' ALDIZKARIAK, BAITA KORONABIRUS GARAIAN ERE

Goiena Klubeko bazkideok jasoko dituzue bi aldizkariak etxean.



Goiena Klubeko bazkide ez zaretenok, honako leku hauetan izango duzue Goiena aldizkaria eskuratzeko aukera:

### ANTZUOLA

AIXA FRUTA DENDA (Buztinzuri kalea)  
AMAIA JANARI DENDA (Aiherra kalea)  
EROSKI (Dondarra plaza)  
FARMAZIA (Kalebarren kalea)  
ITZAR ESTANKOA (Kalebarren kalea)  
IZARRA ARRAINDEGIA (Kalebarren kalea)  
KLIKATU INFORMATIKA DENDA (Kalebarren kalea)  
KOXXOR (Buztinzuri kalea)  
M. KRUZ IPARRAGIRRE (Kalebarren kalea)  
MARTIN OKINDEGIA (Kalebarren kalea)  
MUJIKA HARATEGIA (Kalebarren kalea)

### ARAMAIO

BIXENTE LOPEZ HARATEGIA (Bixente Goikoetxea plaza)  
KINTELENA (Nardeaga kalea)  
IBARRA OKINDEGIA (Nardeaga kalea)  
FARMAZIA (Nardeaga kalea)

### ARETXABALETA

ALIPROX (Aralar)  
BOLINTXO (Durana kalea)  
DANDONA OKINDEGIA (Durana kalea)  
EROSKI (Basabe industrialdea)  
IBARRA ESTANKOA (Bizkalo kalea)  
IOSU HARATEGIA (Mitarte kalea)  
JON HARATEGIA (Durana kalea)  
KIOSKOA (Durana kalea)  
LORAMENDI OKINDEGIA (Loramendi kalea)  
BERDA OKINDEGIA (Basabe industrialdea)  
OBEKI (Erreka-barren kalea)  
OGIBERRI (Mitarte kalea)

### ARRASATE

AGIRRE-ETXE (Zarugalde kalea)  
ALEGRIA ESTANKOA (Zerkaosteta kalea)  
ARANA EZKURRA ESTANKOA (Kontzezino kalea)  
AZPILIKUETA (Doctor Bañez kalea)  
AZPILIKUETA M. (Erguin kalea)  
BALANZATEGI KIOSKOA 'TIBURON'(Biteri plaza)  
BEROGI (Maisu Aronbanbarri)  
BERTIZ (Kontzezino kalea)  
BIRIBIL (Zarugalde kalea)  
BOLINTXO (Arrasate pasealekua)  
BOLINTXO (Otalora kalea)  
CENTRO MEDICO UDALAITZ (Euskal Herria plaza)  
DIA (Olarte kalea)  
DONDEJON KIOSKOA (Erdiko kalea)  
EREIN DA JAN (Araba etorbidea)  
EROSKI CENTER (Zerrajera kalea)  
EROSKIKO PRENTSA KIOSKOA (Eroski Merkatal Gunea)  
FELI JANARI DENDA (Okeno kalea)  
FRUTAS PEREZ (Maisu Guridi kalea)  
FRUTAS PILAR E HIJOS (Seber altube plaza)  
GARAI GARAI ESTANKOA (Araba etorbidea)  
IRATZEDER OKINDEGIA (Nafarroa etorbidea)  
IZAGIRRE HARATEGIA (Kurtzetxiki plaza)  
J. RAMON OTAMENDI (Olarte kalea)  
JOSE MARI SALEGI (Olarte kalea)  
KORTABERRI (Antso Abarika kalea)  
KUXKUR (Lapurdi kalea)  
LANDALUZE HARATEGIA (Iturriotz kalea)  
LIDL (Gipuzkoa etorbidea)  
MALLALDE (Zarugalde kalea)  
MENDIZABAL OKINDEGIA (Seber altube plaza)  
MUSAKOLA ESTANKOA (Antso Abarika kalea)  
OGI BERRI (Deba etorbidea kalea)  
OGI BERRI (Erdiko kalea)  
OGI BERRI (Leintzibar kalea)  
OSPITALA (Nafarroa etorbidea)  
RITA (Errebuelta kalea)  
SABURDI HARATEGIA (Otalora kalea)  
SAGASTA JULDAIN ESTANKOA (Olarte kalea)  
SUPER BM (Araba etorbidea)  
SUPER BM (Gipuzkoa etorbidea)  
SUSTRAI (Olarte kalea)  
USUE KIOSKOA (Uribe auzoa)

### BERGARA

ANTIA HARATEGIA (Matxiategi kalea)  
ARTESAN OKINDEGIA (Barrenkalea)  
BIXAIN (Oxirondo azoka)  
CRISTINA ESTANKOA (San Antonio kalea)  
CRUZ HERMANOS (Ibargarai hiribidea)  
EROSKI CENTER (Kruz Gallestegi kalea)  
EROSKI CENTER (Leizeaga kalea)  
ESPOLDIA (Espolzia)  
ETXEBERRIA ESTANKOA (A. Fleming kalea)  
GISELA AUTOZERBITZUA (Aranerrika kalea)  
GOXO-TOKI (Matxiategi kalea)  
IGARZA HARATEGIA (Irizar pasealekua)  
SEBASTIAN IMAZ HARATEGIA (Aranerrika kalea)  
JOSEFINA ESTANKOA (Barrenkalea)  
PANADEROKUA OKINDEGIA (Tokieder plaza eta Burdinata)  
LARRAÑAGA GOZOTEGIA (San Pedro kalea)  
LETURIA HARATEGIA (San Pedro kalea)  
MIZPILDI OKINDEGIA (Mizpildi kalea)  
MUJIKA GOZOTEGIA (Artekalea)  
OGI BERRI ELKOARTI OKINDEGIA (Ibargarai hiribidea)  
OGIZUN OKINDEGIA (Ibargarai hiribidea)  
BIDEKURUTZETAKO FRUTA DENDA (Bidekurutzeta kalea)  
MATXATEGIKO FRUTA DENDA (Matxiategi kalea)  
RUZABAL GOZOTEGIA (Artekalea)  
SAN PEDROKO ESTANKOA (San Pedro kalea)  
SUPER AMARA (Amillaga kalea)  
TRIPONTZI-OGIBERRI OKINDEGIA (Matxiategi kalea)  
UDAREA FRUTA DENDA (Oxirondo plaza)  
URCELAY HARATEGIA (Ibargarai hiribidea)  
URRIATEGI ESTANKOA (Lizario kalea)  
FRAISKOZURIKO KIOSKOA (Fraiskozuri kalea)  
ZANGITU ESTANKOA (Irizar pasealekua)  
ZARE FRUTA DENDA (Irizar pasealekua eta Matxiategi)

### ELGETA

ELKORO BOTIKA (Salbador kalea)  
GOIKOETXE HARATEGIA (Salbador kalea)  
JULIAN KIOSKOA (11:30ak arte plazan; ostean San Roken)  
UGARI DENDA (Andra Mari plaza)

### ESKORITZA

ALOÑA FRUTA DENDA (Gaztanadui kalea)  
ALTUNA ANAIK HARATEGIA (Arama kalea)  
AZKAGA ESTANKOA (Gaztanadui kalea)  
BOLINTXO (Jose Arana kalea)  
COVIRAN (Aranburuzabala kalea)  
IRAZABAL JANARI DENDA (Aranburuzabala kalea)  
MARTIN FRUTA DENDA (San Juan kalea)  
OGIBERRI (Gaztanadui kalea)  
PAGALDAI (Gaztanadui kalea)  
SANTA ANA (Santa Ana auzoa)

### LEINTZ GATZAGA

LABIDEA (San Miguel plaza)

### OÑATI

AIASTUI OKINDEGIA (Olebarrieta auzoa)  
ALTUNA ESTANKOA (Kale barria kalea)  
ANTXON HARATEGIA (San Lorentzo auzoa)  
BIZIFÓZ (Portu kalea)  
BM SUPERMÉRKATUA (Olekua auzoa)  
DIA (Bidebarrieta kalea)  
EROSKI (Aranzazuko ama kalea)  
EROSKI (Errekalde auzoa)  
ERREKALDE AUTOZERBITZUA (Errekalde auzoa)  
ESKOLATXO OKINDEGIA (Atzeka kalea)  
GARAI HARATEGIA (Mendiko kalea)  
HARITZA LIBURU DENDA (Kale Zaharra)  
IBARRONDO LIBURU DENDA (Foruen Enparantza)  
IRAZOLA (Larrea auzoa)  
IRIZAR ESTANKOA (Foruen enparantza)  
IRIZAR OKINDEGIA (Atzeka kalea)  
SAN LORENTZO FRUTA DENDA (San Lorentzo auzoa)  
SAN MIGUEL KOOPERATIBA (Kale barria)  
SUSTRAI (Kale barria)  
URZELAI ESTANKOA (Lazerraga auzoa)

Informazio gehiago:

☎ 943 25 05 05

📞 688 60 00 07


**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA





ALKATEAREN PARTEA

MARIA UBARRETXENA



## Denok bat eginik

Osasun krisi honek bestelako krisi bat dakar ondotik: krisi ekonomikoa, alegia; jada ikusten ari gara, ia 11.000 pertsona geratu baitira langabezia Euskadin hilabete bakar batean, eta ia 140.000 pertsonak alde baterako enplegu erregulazioko espedienteen eragina pairatu baitute.

Argi dago merkatariek, ostalariek, autonomoek, enpresa txikiek, zailtasunak izango dituztela. Administrazio publikoak ere jasango ditu. Pasa den ostegunean Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izan genuen bilera telematikoa adierazi zitzaigun, gutxi gorabehera, %20-25ko jaitsiera izango dugula Gipuzkoako udalok Foru Fondotik datorkigun finantzazioan.

Zailtasunak izango dituzte, zailtzarrik gabe, hainbat udalek urtea ekonomikoki txukun amaitu ahal izateko. Arrasateko Udalaren kasuan, 4 milioi euro gutxiago jasoko ditugu Foru Fondotik. Kantitate handia da, baina gure kasuan, ordea, aurreko urteetan egindako gestioaren ondorioz,

zailtasunari aurre egiteko moduan egongo gara. Une honetan gure Udalak ez dauka zorrik eta aurreko urtetik geratutako soberakina izango dugu.

Ez da, ordea, nahikoa izango zuloa estaltzeko, eta aurrekontua berrikusi beharko da, baina oso garbi daukagu gure herriko ehun ekonomikoak gure beharra duela, eta jakin dezatela alboan izango gaituztela, zalantzarrik gabe.

Era berean, Udalak zituen hainbat zerbitzu kontratu lege dekretuz etenda geratu dira. Zentzu horretan, ordea, erabaki dugu kontratu horiei loturiko langileen soldatak %100 ordainduko dituela Udalak.

Batasunaren garrantzia ere azpimarratuko nahiko nuke. Une zail hauetan, batuta egoteko garaia da. Alderdi politiko bakoitzak bere ikuspuntua du, bere ideiak eta bere ibilbidea, bai, baina herriak momentu zailak bizi dituen ezberdintasunak alde batera utzi eta lotzen gaituenari heldu behar diogu, denok batera. Gure

herriak lotzen gaitu, gure herritarrek, aurrera egiteko gogoak.

Horri eutsi behar diogu; izan ere, pandemiari aurre egiteko modurik eraginkorrena hori da: denok bat eginik ekitea.

Euskaldunak beti izan gara komunitarioak, auzolana gure nortasunean dagoen bereizgarri bat da, eta ikusten ari gara auzoetan nola sendotu diren bizilagunen arteko harremanak balkoietan. Ezbairrik gabe, osasun larrialdi egoera honek ekarri digun gauzarik positiboenetakoa elkartasuna da, alboan dagoen horrekiko enpatia, alegia.

Horren adierazgarri ere bada herritarren jarrera txalogarria,

### %20-25EKO JAITSIERA IZANGO DUGU FORU FONDOTIK, BAINA UDAL HAU ZAILTASUNARI AURRE EGITEKO MODUAN DAGO

erantzukizunez jarraituz gomendioak, norbera babestu baina ondokoa ere babesteko helburuarekin.

Eta denbora zail hauetan utzi gaituzten pertsonen senide eta lagunei Udalaren aldetik doluminak emateko baliaitu nahiko nuke aukera; zaila da maite duzun horri agur esatea, eta zailagoa oraindik testuinguru honetan egitea. Udalaren aldetik gure elkartasun beroena guztiei.

Eta bukatzeko, aste honetako lerro hauek umeei eskerrak emateko erabili nahiko nituzke. Hilabete daramate etxetik irten gabe, ez ogia erostera, ezta txakurra, edo zaborra ateratzera ere ez dira irten. Balkoietan ikusten ditugu eskulanak egiten eta balkoia bera apaintzen, dantzan edo jolasean. Une latzak dira haientzako, eta baita gurasoentzako. Beraz, nire txalorik beroenak Arrasateko neska-mutikoentzat, aupa zuek!

Denok bat eginik irtengo gara honetatik ere. Aupa Arrasate!

## Kaleak, hutsik; balkoiak, beteta

Dotore jantzita, leiho eta balkoietara irten ziren zapatu iluntzean arrasatearrak, eta Maritxu Kajoi konfinatua ospatu zuten. Erantzun ona izan zuen ekimenak alde zaharrea zein auzoetan, eta balkoiak festa giroz alaitu zituzten herritarrek. Irudian, Erdiko kale, balkoirik balkoira zintzilikatutako ikurrinez eta bizilagun dotorez beteta.



IMANOL SORIANO

## Monterron parkea eta Garagartzako ortuak, behin-behinean itxita

Udaltzaingoaren proposamenez, Monterron parkea eta Garagartzako ortuetako eremua aldi baterako ixtea erabaki du Arrasateko Udalak, koronabirusaren hedapena gutxitzeko. Aipatutako bi eremu horietan herritar gehiegi zebilela eta osasun gomendioak betetzen ez zirela ikusita, aurreko ostiraletik daude behin-behinean itxita.



Parkeko sarrera, itxita. TXOMIN MADINA

## Kontratupeko langileen soldatak, %100 ordainduta

Hori da Udalak hartu duen konpromisoa. Aurrez aurre eman ezin diren hainbat zerbitzu publiko etenda geratu dira -TAO, lorezaintza zerbitzua, margo ikastaroa edo kirol jarduerak gidatuak, besteak beste-, eta zerbitzu horiekin lotutako langileen soldatak %100 ordaintzeko konpromisoa plazaratu zuten ostiralean.

## Alderdien eta zinegotzien dirua krisira bideratzeko proposamena

29.000 euro lortuko liratekeela dio EAJk; EH Bilduk, Ahal Duguk eta PSE-EEk iritzi propioa dute horri buruz

**X.G.** ARRASATE

Arrasateko EAJk ohar bidez azaldu du bai alderdiak eta zinegotziek jasotzen dituzten asignazioak koronabirusaren aurka bideratuko dituztela. Lau hilabeteko tartean jasoko luketen diruaren kalkulua eginda, 10.200 euro jarriko dituztela iragarri zuten joan den ostiralean, eta gainontzeko alderdiek gauza bera egitea nahiko luketela adierazi zuten, era horretan 29.000 euro lortzeko.

Arrasateko EH Bilduk azaldu du asignazio guztiak alderdi politikoak jasotzen dituela zuzenean; beraz, alderdi mailan hartu beharreko erabakia dela. "Gure kasuan, zinegotziok jasotzen ditugun dieten %80 ere alderdira bideratzen ditugu, baina gure poltsikora datorren %20 hori dohaintzan emateko prest gaude, betiere, behar larrian

dauden pertsona eta familiei laguntzeko bada".

Arrasateko PSE-EEko zinegotziak euren dietak COVID-19aren ikerketara bideratzeko prest azaldu dira. Zehazki, Madrilgo Carlos III Institutura bideratzea planteatzen dute, bertan egiten diren SAR-COV-2 eta COVID-19 gaixotasunekin lotuta egiten ari diren ikerketak finantzatzeko. Hurrengo osoko bilkuran zinegotzi guztien artean adostu nahi dute diru hori nora bideratu.

Arrasateko Ahal Duguk dio EAJren proposamena "propaganda hutsa" dela. Euren asignazioak dohaintzan emateko prest azaldu dira, Gobernuak "baliabide guztiak" jartzeko xedea izanez gero, eta horren frogagisa, 2019ko aurrekontuko 2,8 milioi euroko soberakina "larrialdi sozialerako plan" batera bideratzea eskatu diote.



# Musakolako jaiak egin edo ez, erabaki gabe

Aurreko urtean jai batzordeak iragarri zuen ez zituela jaiak berriz antolatuko, baina negoziazio prozesu baten ondoren segitzeko akordioa adostu zuten. Osasun egoeratik ezin badira maiatzean egin, uda ostean egitea dute buruan, beste formatu batekin

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Iazko jaietako agurrean batzordeak argi utzi zuen ez zuela jaiak antolatzen jarraituko. "Guk tokatzen zaiguna eskatu izan dugu beti; ez gehiago, ez gutxiago. Baina ikusten genuen Udaletik zetorkigun partida txikituz zihola, urterik urte. Diru hori ez da soilik jaiak antolatzeko, baita auzoan antolatzen diren bestelako ekintzetarako: sagardotegira irteera, San Nikolas eguna, Gazte Eguna, San Silvestre proba... Uztea iragarri ostean, kostata, Udalak negoziatzeko borondatea erakutsi zigun. Partida igotzea aintzat hartu zuten, eta espero dugu aurrerantzean bide on honetatik jarraitzea", dio Mikel San Miguel auzo alkate berriak.

**2020koak, airean**

San Miguelen esanetan, "pena handia" litzateke alkatezako lehen urtean jairik ez egitea, baina dio oraindik ez dutela erabakirik hartu. "Jai batzordetik, aurrez,



Musakolako jaietako ikur nagusi den astoa, 2014ko jaietan. IMANOL SORIANO

bagenituen hainbat gauza lotuta: kontzertuak, ekintzak... Baina, betiere, bertan behera uzteko aukera egon zitekeela kontuan hartuz. Baina ikustear dago zein erabaki hartzen diren: jende metatzeari buruz, tabernei buruz...

horren zain gaude. Baina maiatzean egitea ezinezkoa bada, beste formatu baten egin nahiko nituzke, uda ostean, irailean edo. Auzoarentzako oso garrantzitsuak dira jaiak, eta ostalari askorentzat, zer esanik ez".



Iazko San Andresko jaietako auzo-bazkarian. AMAIA ZABALA

## San Andresko jaiak, bertan behera

Egoerak behartuta, Arrasateko San Andres auzoko jaiak ere bertan behera utzi behar izan dituzte. "Seguruenik, hau da inoiz idatzi dugun oharrik tristeena", azaldu dute idatzi batean. "Osasun krisi honen aurrean, arduraz jokatu eta jaiak ez ospatzea erabaki dugu, kutsatzeak ekiditeko. Honen ondorioz, lotuta genituen ekintza guztiak bertan behera geratzen dira eta, ahal den heinean, 2021. urtean berriro ere eskaintzea ahalbidetuko dugu", azaldu du jai batzordeak. Aurten, adibidez, Reincidentes taldea lotzea lortu zuten, eta lanean ari dira 2021ean talde sevillarra berriz kartelean izateko. "Ahalik eta zentzuzkoenak" izaten saiatuko direla azaldu dute, eta, horretarako, egoera berri honen aurrean irtenbide hauek hartu dituzte: "Izertitzeko jertsea alde aurretik erreserbatu zutenei, Equis Taberna irekitzen denean bueltatuko zaie dirua, osorik; aurretik jaiekin lagundu duten bebarruei datorren urterako laguntza mantenduko zaie. Norbaitek laguntza bueltan nahi badu, zehaztutako korreora idatzi dezala eta bueltatuko zaio. Jaiak ez egotea konpentsatzen saiatuko gara; beraz, egun hauetan auzokideen aisialdia alaitzeko proposamenak zabalduko ditugu. Parte hartzera animatzen zaituztegu!". Denda guzkiei, tabernei eta auzokideei animoak eman gura izan dizkie batzordeak, "eta egoeratik zuzenean edota zeharka kaltetuak izan direnei, bihotz-bihotzez gure besarkadarik handiena!".

## Txatxilipurdik balioa eman dio euskarazko aisialdi hezitzaileari

Haur eta gazteentzako bideo bidez proposatutako erronkak, jolasak eta kirol jarduerak lantzen ari dira

**X.G.** ARRASATE

"Haur eta nerabeekin egiten dugun eguneroko lanean, askotan hausnartu dugu sortzen gabiltzan aisialdi ereduak; eta ezohiko egoera honetan ere aitzakia polita sortu zaigu honetarako. Zein motatako aisialdi ereduak garatu dezakegu baldintza hauetan? Sarea da komunikatzeko erabili dezakegun bide bakarrenetakoa, baina nola erabili modu egokian?". Hori da Txatxilipurdiko kideek ohar bidez egindako hausnarketetako bat, eta horri erantzuten lagun-

tzeko bide telematikoak aktibatu dituzte. Haur sailetik, adibidez, bideo bidezko erronkak, jolasak eta kirol jarduerak prestatu dituzte, baina, aldi berean, baita pantailetatik at egiteko bestelako ekintzak ere. Gazte saila ere ez da gelditu geratu, eta sare sozialen bitartez *TuperSex* bertual, drogen inguruan nerabeei duten ikuspegia jasotzeko *Testing* izeneko galdera-jolas bat, sukaldaritzarako errezetak, musikaz eta bideoz elikatutako erronkak eta *GTZULO* fanzine digitala jarri dituzte martxan.

## Ereindajanekeo bazkideek boluntario taldea sortu dute

"Gauden egoerari hobeki erantzuteko, eta elkarrekin errazago gaudituko dugun ustean, Ereindajanekeo bazkideek boluntarioen laguntza taldea osatu dugu arrisku taldekoei eta gaixoei enkaraguak etxera eramateko. Zerbitzu hori eduki nahi dutenek Ereindajanekeo 688 63 49 19 telefonora deitu dezakete", azaldu dute elkartetik. Dendako ordutegian aldaketak egin dituzte, eta horiek ere eman dituzte aditzera. Hala, astelehenerik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara emango dute aurrez aurreko zerbitzua, baina martitzen eta eguenetan arratsaldez ere zabalduko dituzte ateak, 17:00etatik 19:00etara. Zapatuetan denda itxita egongo da.



NIRE USTEZ

OSCAR GARCIA

## Beste bizitza bat posible da

Zeri buruz idazteak ez dauka inolako misteriorik egun hauetan, jakina, COVID-19 birusagatik denok gaudelako burua galtzen. Gauzak horrela, eta azken aste hauei bueltatxo bat emanez, nire bizitza beste prisma batetik begiratzearen esfortzua egin dut eta hona nire ispiluak islatu didana. Bizitza ez da lan egitea soilik eta etxera heltzerakoan afaria hartu eta ohera joatea... nire familiarekin hitz egitea eta nire alaba nagusiaren beldurrak eta barreak entzutea da -14 urte ditu-. Bizitza ez da arazo bat bestearen atzetik edukitzea -gehienetan, presak arazo txikiak kristorenak egiten baititu-, baizik eta gauzei behar duten neurria eta denbora ematea. Bizitza irakurtzea da, musika entzutea, barre batzuk egitea, 20:00etan balkoira ateratzea eskerrak emateko, nire semeekin jolastea, nire bikotearekin pastel bat egitea, nire buruarekin elkarriketa serio bat edukitzea... hori da bizitza.

Beraz, nahiz eta egoera gaiztoa izan, nahiz eta negar malkoak agertu izana joan direnengatik... beste bizitza bat posiblea da; zaindu zaitezte eta etxean egotearen alde polita atera dezazuen espero dut bihotzez. Eta gaur, inoiz baino gehiago... osasuna!



Herritar bat lbai-arteko denda bateko maukak ikuskatzen. IMANOL SORIANO

## Herriko komertzioetan erosteko 15.000 bonu

30 euroko balioa izango dute; herritarrek 10 jarriko dituzte eta Udalak 20. Neurri gehiago ere igarri dituzte koronabirusaren eraginak baretzeko; besteak beste, ostalariei eta komertzioei hiru tasa kentzea eta kiroldegia beriz ireki arte abonauk ez kobratzea

### Xabi Gorostidi ARRASATE

Udalak ia milioi bat euroko neurri ekonomikoak hartuko ditu koronabirusaren eraginak baretzeko. Jaurlaritzak eta Aldundiak emango dituzten laguntzen osagarri izango dira, eta lau ildo nagusitan banatuko dituzte: zerga eta tasak, komertzioari laguntzak, kiroldegiko kuotak eta larrialdietarako laguntzak. Zerga eta tasekin lotuta, hamabost langiletik behera dituzten negozioei hiru tasa ezabatuko dizkiete urtarrietik ekainera: zaborrarena, urarena eta bide publikoaren okupazioarena –terrazak eta bestelakoak jartzeagatik ordaintzen den tasa–. "Neurri honekin 656 negozio laguntzen dira eta neurri hauek 330.000 euroko balioa dute".

### Komertzioarentzat hiru laguntza

Enpresari txikiei laguntzeko 350.000 euro eta hiru neurri iragarri dituzte: lehenik, Arrasateko komertzioetan edo autonomoetan –iturgin, igeltsero, ile-

apaindegi...– gastatzeko 15.000 bonu aterako dituzte, 30 euroko balioa izango dutenak. 10 euro erosleek jarriko dituzte eta gaintzeko 20 euroak, aldiz, Udalak.

Helburu bikoitza izango du neurriak: diru-sarrerak gutxi tu zaizkien herritarren gastu ahalmena handitzea eta gastu horiek herriko komertzioetan egitea bermatzea. Aurrerago zehaztuko dute non, nola eta zein baldintzatan eskuratu ahalko diren bonuak.

Bigarrenik, 25.000 euro jarriko dituzte herriko komertzioetan erosteko sentsibilizazio kanpaina baterako, eta, azkenik, 25.000 euro kalean egingo diren kultur ekitaldi gehigarriak egiteko.

**AURRERAGO ZEHAZTUKO DUTE BONU HORIEK NON ETA NOLA ESKURATU AHALKO DIREN**

### Kiroldegiko abonamenduak

Kiroldegiko erabiltzaileei ere emango dizkiete laguntzak. Dekretu bidez instalazioak itxi zizuten martxoaren 13an; beraz, hortik eta ateak berriz zabaldu arteko abonamendu-kuotaren eta ikastaroen prezioaren kopuru proportzionala hobarian emango diete erabiltzaileei. "Lasaitasun mezua helarazi nahi diegu erabiltzaileei. Askok deitu dute egun hauetan abonamendua bertan behera uzteko, baina jakin dezatela itxita egongo den denboran ez zaiela kobratuko".

### Larrialdietarako laguntzak

Azkenik, gizarte larrialdietarako laguntzetan 129.000 euro gehiago jarriko dituzte. Lehendik 300.000 zizutzen, eta orain, ordea, 429.000. Laguntza hauek egoera zaurgarrian dauden herritarrentzako dira, eta nagusiki janaria edukitzera bideratzen dira. Gurutze Gorriak kudeatzen du laguntza hau, eta espeziatan ordaintzetan da.



Asier Sala abeslari arrasatearra Harro nago abestia jotzen. YOUTUBE

## Arrasateko musikarien tele-emanaldia, arrakastatsu

Aurreko egunerako Arrasate Kantuan taldeko lagunek antolatutako ekimenak erantzun "ona" izan zuten

### A.A ARRASATE

Arrasateko hamahiru musikariren kantuak batzea lortu ostean, 22:00etan egin zuten zuzeneko emisioa Youtube plataforman, eta 350 bat lagunek jarraitu zuten emanaldia euren etxeetatik. "Oso gustura gaude jasotako erantzunarekin, eta jendearen esker ona ere heldu zaigu", azaldu dute.

Bideoak dagoeneko 3.000 ikusalditik gora ditu eta antolatzaileek ez dute baztertzeko antzerako beste ekimenen bat egitea aurrerago: "Akaso, horrelako beste zerbaite egingo

dugu, Arrasaten barik, bailara mailan".

### Arrasateko musikariak

Paul Casal, Asier eta Lierni, Garazi Barrena, Serge, Iraitz Agirre, Tabu, Iraitz Gutierrez, Xabi Gorostidi, Bizarra Digital, Ekiñe Casado, Izadi Ramos Zumalde, Leire Etxezarreta eta Asier Sala Arrasateko musikariek abesti bana eskaini zuten. Bakoitzak bere etxean grabatutako bideoak batu eta egunean, estilo desberdinez osatutako emanaldia eskaini zuten Youtube plataforman.



MUSAKOLAKO JAI BATZORDEA

## 64 marrazki aurkeztuta

Musakolako jai batzordeak antolatutako lehen marrazki lehiaketan, auzoaren inguruko 64 marrazki aurkeztu dituzte 3 eta 12 urte arteko gaztetxoek eta apirilaren 10era arte egongo da irabazlea aukeratzeko aukera. Gehienez, hiru boto eman daitezke pertsona bakoitzeko eta [www.musakola.com](http://www.musakola.com) atariaren bitartez egin ahaliko da.





ALKATEAREN PARTEA

LIERNI ALTUNA

## Hilabete konfinamenduan

Hilabete konfinamenduan betetzera goazen honetan, egunak aurrera doaz eta konfinamenduaren laugarren astean sartu gara. Hamaika emozio dantzan egunero, *normaltasunera* noiz itzuliko pentsatzen, nola... Zentzu horretan, krisi honetan ere, konturatu naiz herri txiki-txikia izan gabe herri handitxo bat ere ez garelara, linboan gaudela, bailaran Elgeta edota Antzuolaren antzera esango nuke... Lerro hauek aprobetxatu nahiko nituzke titularrek azaltzen ez duten gure errealitatea kontestuan jartzeko. Gure baliabide tekniko eta ekonomikoak mugatuak dira. Herri handiak krisi honetan zehar dirulaguntzak ateratzen ari diren bezala, badirudi guk ez ditugula aterako titularretan edo galde/erantzunetan ez delako agertzen. Ez izan dudarik guk gure esku dagoen dena egingo dugula Aramaio eta aramaioarrak krisi honetatik irten eta elkarrekin aurrera egiteko. Nola? *Normaltasunera* bueltatzen hasten garenean balorazio bat egingo dugu zentzu guztietan; galdetuko dugu zein den jendearen egoera, autonomo zein ez autonomoena; goiko instituzioek hartzen dituzten neurriek udal bezala zein egoeratan uzten gaituzten;... eta balorazioak mahai gainean jarriko digun errealitate horretatik abiatuta Udalak dituen medio guztiak jarriko ditu aramaioarrak eta Aramaio aurrera egiten laguntzeko. Eta hau horrela egin behar dugu, ezin dugulako bestela, gure baliabideak mugatuak direlako eta goiko instituzioen menpekotasuna handia dugulako, zoritxarrez; eta errealitate txiki anitz eta asko direlako gure udalerrian dirulaguntza lerro zehatz bat edo beste bat ateratzeko... Hori bai, herritar guztien galdera, zalantza, kezka, proposamen eta egoerak kontuan hartuko ditugu eta ahal dugun guztian laguntzen saiatuko gara. Momentu hauetan eta egoera honek irauun bitartean, larri edo estu baldin badago autonomo, norbanako edo familiaren bat, mesedez jar dadila Udalarekin harremanetan eta laguntzeko bidea aurkituko dugu. Momentu honetan inoiz baino elkartuago egon behar gara egoera honi buelta eman eta herri bezala aurrera egin ahal izateko.

## Gorbeialdeko argazki eta jaietako kartel lehiaketak martxan dira

Gorbeialdeko Turismo Sailak argazki lehiaketa antolatatu du eta jaietarako kartel lehiaketa martxan dago

**Naroa Urien** ARAMAIO

Gorbeialdeko Turismo Sailak argazki lehiaketa antolatatu du. *Zer ekartzen dizu gogora Gorbeialde?* lelopean, Euskal Herriko bihotz berdeko edozein parajetara eramaten duen objektua hartu eta argazki bat egitera gonbidatzen dituzte herritarrek. Ondoren, argazkiak eta azalpenak partekatuko dira Facebooken eta erabiltzaileek euren proposamen faboritua bozkatzeko aukera izango dute. Boto gehien duena izango da irabazlea eta

Gorbeialdeko produktuen sorta bat lortuko du.

Bestalde, nahiz eta jaien egoera kolokan egon, jaiak iragaritzeko kartel lehiaketa antolatatu du Aramaio Udalak. Hiru kategoria bereiziko dira: umeak, helduak eta nagusiak. Pertsona bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu eta epea datorren maiatzaren 4an bukatuko da. Udaletxean aurkeztu beharko dira, baina egoera berezi honek aldaketaren bat eragiten badu, jakinaraziko dute.



Bailarako komertzio txiki bateko apalategiak. ARTXIBO IRUDIA

## Herriaren eta irriaren arteko elkarlana nagusi

Koronabirusaren krisiak bizitzeko, lan egiteko eta kontsumitzeko modua birpentsarazi du. Garai ilunetan, Aramaio saltoki txikiek zein herritarrek irribarre bat jarri diote egoera bereziari, elkarlanean oinarritutako lankidetzari esker

**N.U. ARAMAIO**

Konfinamendua hasi zenetik, herrian zabalik dauden saltokiak gogor ari dira lanean, biztanle guztiarentzat zerbitzu segurua eta kalitatezkoa izango dutela bermatzeko. "Lan eta ardura handia" dutela adierazi dute merkatariak, baina "pozik eta lan egiteko gogoz" agertu dira denak.

**Lan handiko asteak**

Egoera berezi hau hasi zenetik, lan handia izaten ari dira oinarritzko produktuen saltoki txikiak. "Ohi baino jende gehiago hurbiltzen ari da, eta lan handia dugu. Oso pozik gaude", adierazi dute arrandegitik. Era berean, merkatari batzuek azaldu dutenez, data hauek ez dira "onak" izaten beraiantzat, auzotar gehienak oporretan joan ohi baitira. Baina ikusita oraingoan bizilagunek herrian geratu beharko dutela, bezero kopuruan igoera nabarmena nabaritzen ari dira. Kinttelenan, esaterako,

"lana hirukoiztu" egin dela adierazi dute.

**Gazteek erosketa gehien**

Gazteak dira egun hauetan errekaduak egitera gehien joaten direnak. "Herria elkarlanean ari da, eta laguntza-sarea, bizi-lagunak eta familiak, arrisku taldeko guztien erosketek arduratzen ari dira. Nabari da orain askoz gehiago direla erosketak egitera hurbiltzen diren gazteak", esan dute harategikoek. Kinttelenan, halaber, ikusi dute gazteak direla eroztera gehien hurbiltzen direnak eta laguntza-taldetik egiten ari diren lan handiari balioa eman nahi izan diote: "Gazte asko etortzen dira bizi-

laguntzako erosketak egitera, asko laguntzen ari dira".

**Egoera berezira egokitzen**

Egoera ikusita, asko dira bizi-lagun guztiengana modu eragin-korrean iritsi ahal izateko egokitzen ari diren saltokiak. Laguntza-sarearen lankidetzan, eskaera asko etxe etxe ematen ari dira. Kinttelenak, esaterako, egunean dozena erdi eskaera baino gehiago ematen ditu. Handik gogorarazten dute etxe etxe eskaerak egiteko telefono bat dutela: "Gure dendatik zerbait behar izanez gero, idatzi edo deitu telefono honetara: 656 78 95 89, zure eskaera hartu, prest dagoenean jakinarazi eta arratsaldean eramango dizugu".

**Zapatuan irekita**

Oinarritzko produktuak saltzen dituzten komertzio txikiak itxita izango dira Aste Santuan. Hala ere, guztiek gogorarazi nahi izan dute zapatuan ateak zabalduko dituztela.

**LAGUNTZA SAREAREKIN BAT, DENDA ASKOK ETXERA ERAMATEN DITUZTE EROSKETAK**



ALKATEAREN PARTEA

UNAI ELKORO

## Aurrera begira lanean hasita

Badoa denbora aurrera, laster hilabete beteko dugu salbuespeneko egoera honetan eta dagoeneko askori luze egiten ariko zaizue. Edonola ere, ezin zalantzan jarri egoera berrietara egokitzeko dugun ahalmena; arduraz jokatzeko ari zarete, gustuko ez izanagatik gehiengoaren hobe beharrez neurri zorrotz hauek zintzo betetzen. Zorionak eta nire eskerrik beroenak, beste behin.

Denbora aurrera doan heinean, egoera egonkortzen doa, osasun baliabideak egokitu dira egoera berrira eta ez dago hasierako tentsiorik; positibo berrien kopurua ere egonkortzen eta pixkanaka jaisten doa eta hasiak gara entzuten bueltarako neurriak nolakoak izan litezkeen; beraz, astiro bada ere, badoa hurbiltzen normaltasunera itzultzeko garaia.

Gure aldetik, horretan ari gara lanean: alde batetik, geldialdi honek bereziki kolpatu duen herriko komertzio txikia bultzatzeko neurriak prestatzen. Nahiz eta oraindik ez jakin noiz ireki ahal izango duten, apirilaren bukaerarako prest izan nahi dugu bonu kanpaina berria. Garaiz jakinaraziko zaizue denoi zertan datzan, baina hemendik zuen laguntza eskatu nahiko nuzuke; Udalak egingo du bere esku dagoen guztia, baina zuen parte-hartzea berebizikoa izango da herriari bizitza ematen dioten hauen etorkizuna bermatzeko orduan.

Bestalde, etxean sartuta horrenbeste denbora eman ondoren, ziur naiz animazio beharrezko izango zaretela. Ba, gorde indarrak, prestatzen ari gara-eta herria girotzeko ekitaldiak; ez da girorik faltako hurrengo hilabeteetan. Puntu honetan bereziki eskerrak eman nahi dizkiet AZ Gaubelakeko Ibai eta Mikeli, larunbat iluntzeetan, tartetxo bat bada ere, herria girotzeko egindako ahaleginagatik; zorionekoak gara aretxabalarrok bikote hau gure artean izateagatik.

Udal kudeaketarako ere egoera gogorra izango dugu aurrerantzean. Aurtengo aurrekontuan sarrera murrizketa handia aurreikusten da; gure aurrekontuaren %15, 1,5 milioi euro inguruko sarrera jaitsiera izan genezake. Horrek plan guztiak aldatuko ditu, gastu asko berrikusi beharrezko izango gara, baina etxeko lanak ondo eginak ditugu eta azken bi urteetan aurreztutako diruarekin gai izango gara behar-beharrezkoak diren zerbitzuak mantentzeko.

Amaitzeko, besarkada bat eta nire desiorik onenak gaixo daudenei eta senitartekoei, eta doluminak egoera latz honetan hurbileko norbait galdu duzuenoi.

Beste guztioi, animo eta zaindu zuen burua.

## Lapurrak Caixabanken

Errekabarren kalean dagoen Caixabank bulegoan lapurrak sartu ziren astelehen goizean, 07:00ak bueltan, kristala apurtuta. Alarma deia jaso zen orduan eta bizilagun batzuek berretsi egin zuten hori, "izugarritzko zarata" entzun zuten-eta. Dirua eraman zuten handik Segurtasun Siletik jakitera eman dutenez eta Ertzaintzak ikerketa abiarazi du.



GOIENA

# Merkatariendako biserak egin ditu Lanbide Eskolak

Konfinamendua bukatu eta lanera itzultzen direnerako biserak izango dituzte Aretxarteko merkatariak; Aretxabaleta Lanbide Eskolako kideek eskaini dizkiete eta 70 egin dituzte egunotan, hiru dimentsioko inprimagailuak erabilita

**Mirari Altube** ARETXABALETAKO

Alarma egoeraren luzapenak areagotu egin du "kezka" herriko merkatari eta ostalariengan; izan ere, gutxienez, apirilaren 26a arte itxita izango dituzte saltokiak ezinbesteko zerbitzua ematen ez dutenek. Dena den, merkataritzaren suspertzeko Udaletik proposatutako neurriak "pozik" hartu dituzte. Eta ez da izan proposamena egin dien erakunde bakarra; Aretxabaleta Lanbide Eskolako biserak eskaini dizkie saltokiak zabaltzen dituztenentzako.

**70 bisera eginda**

Lanbide Eskola askok dihardu biserak ekoizten azken asteotan, baita Aretxabaletakoak ere: "Hiru dimentsioko inprimagailuak izanik geuk ere egin genitzakeela erabaki genuen. Homologazioa lortzea oso zaila da, baina baliaduta badaude; hau da, Urduizko ospitaleko osasun langileek oniritzia emanda", adierazi du Joseba Beristain zuzendariak.

Hala, kutsatuta egon daitezkeenekin lanean dihardutenentzako egin zituztela lehenengoak aipatu du; besteak beste, GSR eta Eskoriatzako Jose Arana zaharren egoitzetarako eta Aita Menni ospitalerako, baita Aretxabaletako udaltzainentzako ere.



Ogiberri okindegiko kideak biserak jantzita, martitzenean. MIRARI ALTUBE

Beste batzuek ere behar hori izan zezaketela pentsatzen jarrita, merkatariekin akordatu ziren: "Aretxarteko kideei deitu eta 70 egitekotan geratu ginen. Hain zuzen, egunotan bukatu ditugu horiek".

**Aurpegi guztia babestu**

Arrasateko Goi Eskola Politeknikoko kideekin elkarlanean jardun dute indarrak batze aldera eta lanak bizkorrago egiteko. Bisera bi zati dituela azaldu du Beristainek: batetik, inprimagailuarekin egiten den

plastikozko diadema; eta bestetik dago, binilo gardena, ahoa, sudurra eta begiak babesten dituen. "Simpla da sistema, baina eraginkorra. Eta, gainera, garbitu egin daiteke batek baino gehiagok erabili ahal izateko".

**Aretxarte, eskertuta**

Aretxarteko kideak eskertuta daude merkatariekin akordatu direlako: "Hau guztia bukatzen denean, ez dakigu zelan egin beharko dugun lan; hortaz, ondorriak izango dira". Atzo hasi ziren banatzen lehenengoak.

## Lehen hiruhileko ordainsariari uko egin dio EAJ udal taldeak

Aretxabaletako EAJ udal taldeak 5.715 euro jasotzen ditu hiruhileko ordainsari legez. Urteko lehen hiruhilekoan jasotako diru kopuru horri uko egitea erabaki du, eta koronabirusak eragindako krisi egoerari aurre egiten laguntzeko erabili; hori bideratuko diete "egoera honen ondorioz kalterik handienak jasan dituzten herritarrei".

Jou Diaz  
Karakina

Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETAKO

Mobiliario  
ARENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETAKO



# "Buelatzeko geundela, tentsio uneak izan ziren"

**GARIKOITZ ITURBE HERRITARRA**

Argentinara bidaiari joan arren, aurreikusi baino lehenago bueltatu behar izan dute Garikoitz Iturbe aretxabaletarrek eta familiakoek, alarma egoeratik

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Garikoitz Iturbe eta Larraitz Arando bidaiari izan dira Argentinan, Inder eta Euri semeekin batera, baina, alarma egoerarengatik, apirilaren 3an bueltatu beharrean martxoaren 20an bueltatu behar izan dute, egoera zein zen ikusita. Edozelan ere, azken uneko tentsio egunak kenduta, sentsazio onekin bueltatu direla adierazi du Garikoitz Iturbek.

**Zertan izan zarete Argentinan?**

Larraitzek praktikaldia egin beharra zeukan Patagoniako zona bateko ikastetxe batean, eta egonaldiaren zati bat aisialdirako aprobetxatu nahi genuen;



Garikoitz Iturbe eta Larraitz Arando, Inder eta Euri semeekin, Argentinan. G. ITURBE

beraz, familian joatea erabaki genuen, hango lekuak ikusteaz batera han bertan ditugun lagunekin egoteko... Buenos Aires, Iguazu, Ushuaia, Patagoniako mendi-inguruak... eman digu denbora bidaiatzeko.

**Argentinaz disfrutatu ostean, noiz eta nola erabaki zenuten hona bueltatzea?**

Martxoaren erdialdera, etxetik ez irteteko gomendioa zegoen emanda, baina alarma egoera ezarri gabe zegoen. Europatik zetozen albisteak ere ez ziren onak, eta Huhezi Unibertsitate-tik Larraitzi bueltatzeko eskatu zioten. Hala ere, apirilaren 3an genuen bidaiari bertan behera geratu zitzaigunez, Euskal Herrira bueltatzeko bidaiak begira hasi ginen. Martxoaren 17an, Buenos Airesetik Madrilera zegoen zuzeneko azken hegaldira ez ginen iristen, Patagonian geundelako; beraz, beste hegaldi bat bilatu behar izan genuen. Hala, Brasilen -Sao Paulo- eskala egiten zuen Air China konpainiaren hegaldi bat topatu genuen martxoaren 19an, handik Madrilera zihoana, eta horixe hartu genuen.

**Urduritasun momentuak, beraz?**

Batez ere, *checking* momentuan bizi izan genituen tentsio uneak: informazio ugari iristen zitzagun, txinatarrak goitik behera segurtasun neurri itzelekin jantzita zeuden, maskarak eman zizkiguten, eta sukarra bi orduan behin hartzen ziguten... Horrekin batera, beldur pixka bat ere bageneukan; izan ere, Argentinan geratu izan bagina, bagenuen babesa, lagunak genituen han, eta haien etxean geratu gintzkeen, baina Brasilen, Sao Paulon geratzeko beldurra geneukan. Izan ere, ziurgabetasuna geneukan hara iristean zer gertatuko zen... Hala ere, hegaldia egin, eta hurrengo egunean ezarri zen Argentinan alarma egoera.

**Bidaiari osotasunean egin gabe, ondo aprobetxatuta, ezta?**

Bidaiaren azken txanpan, gauza batzuk egin barik utzi ditugu, lagunak agurtu barik joan behar izan genuen... Hala ere, etxe-koengandik gertu egon nahi genuen, eta ez zeukan zentzurik han geratzeak. Hala ere, bidaiari ederra izan da, oso ondo aritu gara, eta bueltatuko gara aurrerago lagunak agurtzera...

## Debagoieneko GREMIOAK

### ARROZTEGIAK

#### AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

### HONDEAKETAK

#### EXCAVACIONES Y CONTRATAS

##### ARRASATE SL

ARRASATE

Mealzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e. arrasate@gmail.com

### ITURGINTZA

#### EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

#### OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORRIATZA

• Iturgintza eta gasa

• Berogailuak eta petrolio-produktuak

• Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

#### URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

• Instalazioen mantentze-lan guztiak

• Berokuntza eta gasa

• Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

### LOREZAINZTA

#### MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

• Barruko zein kanpoko lorezaintza

• Ureztatze sistemak

• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Inagarkia jarri nahi baduzu,  
deitu 943 25 05 05 zenbakira.



ALKATEAREN PARTEA

JOSERRA ZUBIZARRETA

## Udalak funtzionatu beharra dauka

Orain bertan herrian daukagun helburu nagusia Eskoriatzako Udalak funtzionatzea da. Ez da erraza osasun krisi hau kudeatzea, zatikatuta baitugu udal guztia, eta zati guztiek funtzionatu behar dute, eta lan horretan ari gara.

Pasa den astean udal batzorde informatzailea eta lehenengo osoko bilkura telematikoa egin genuen, eta bide horretan jarraituko dugu, gauzak ez badira aldatzen, behintzat.

Erabakiak hartu ahala, joango gara herritarrei jakinarazten. Badakigu egoera honek ondorioak utziko dituela, eta ari gara zenbait ikusten dagoeneko. Hala, horri aurre egiteko salbuespeneko neurriek zailtasun bereziak eragiten dizkieten zaugarrienei laguntzeko elkartasun sare bat osatu dugu Eskoriatzako Udaletik. Gizarte Zerbitzuak, dagoeneko, 93 pertsonarekin jarri dira harremanetan laguntzarik behar duten ikusteko, eta egun hauetan, 80 urtetik gorakoei deitzen ari dira, eta, aurrerago, 70 urtetik gorakoei deitzea aurreikusten da. Hala, kontaktuan gaude Gurutze Gorriarekin, Caritas-ekin...

Merkatarien, ostalarien eta autonomoen egoera ere kezkatzekoa da, itxita dituzte ateak, eta ez dakite noiz eta nola irtengo diren zulotik. Etorkizuna ikustea zaila da; beraz, ez dakigu noiz bueltatuko garen normalitatera eta zein ondorio izango dituen. Gure partetik, tasak ordaintzeko epeak luzatzeko eta errazteko erabakia hartu dugu Udaletik.

Egoera honetatik noizbait irtengo gara; ez dakigu nola, ez dakigu normalitatera buelta nolakoa izango den, banaka, binaka edo launaka irten ahal izango garen kalera... eta zein erabaki hartuko dituen Espainiako Gobernuak. Beraz, egunez egun joan behar dugu zer dioten entzuten, beharrezko neurriak hartzen, eta pazientziatzat itxaroten. Hala ere, esan beharra dago Eskoriatzako herritarrak ondo ari direla hartutako neurriek erantzuten. Udalean erabaki nagusirik ez dugu hartu aste honetan, nahiz eta badakigun aurrekontuak hankaz gora jarriko ditugula. Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Fondotik datorrigun diru zati bat itzuli beharko dugu, eta, gero, partidak berrikusi beharko ditugu. Baliteke partida bat kendu behar izatea, eta gizarte zerbitzuetara bidali beharra izatea, esaterako,... Hala ere, oraindik ez dakigu zenbat eragingo digun horrek; beraz, ezin dezakegu askoz gehiago esan. Garai zailak datoz, baina gure herritarren ongizateari eta beharrei erantzuteko lanean jarraituko dugu.

## Ahatetxoa pasabidean

Beharrezko produktu eta zerbitzuak lortzeko eta ezinbesteko kasuetarako irten daiteke kalera alarma egoeran, baina konfinamenduak ere baditu gauza positiboak: Eskoriatzako San Pedro eliza pareko zubian, esaterako, ahate bat lasai-lasai aritu da paseatzen, modelo izango balitz bezala, gizaki batek ere ez molestatu gabe.



ENERITZ KORUJO

## "Ez da inor etortzen ari Aingeru gasolindegira"

Aste Santuko eta Pazko asteko irteera operaziorik ez da egongo aurten, eta, fakturazioan eragin nabarmena izango du horrek Aingeru gasolindegian. Hala ere, zerbitzua eskaini behar dute, batez ere, anbulantzien beharrak asetzeko

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako Aingeru gasolindegian, beste hainbat establezimendutan moduan, asko ari dira sufritzen alarma egoera, eta, bereziki, data hauetan. Izan ere, Aste Santuko eta Pazko asteko oporraldian lan karga igotzeaz batera, fakturazioan gorakada handia izaten dute, normalean, baina aurten ez da horrela izango.

Premiazko jardueran diharduten arren, bertako langileak kutsatzeko arriskuan daude une oro, eta, horrekin batera, bezero kopurua nabarmen jaitsi dela adierazi du Ana Unamuno Aingeru gasolindegiko langileak, eta aurtengo fakturazioan asko igarriko dutela gaineratu: "Gure ohiko ordutegia 06:00etan irekizteza eta 22:00etan ixtea da, baina 08:00etan zabaltzen eta 20:00etan ixten hasi gara, konfinamendu neurriek eragindako eskariaren beherakada izugarria izan delako eta ez delako inor etortzen. Egunean, 200 euro inguru ateratzen ditugu, asko jota, eta bezeroekin ez gauden bitartean garbiketa lanak egiteko aprobetxatzen dugu, denda eta bestelako aparailuak lixibarekin ondo desinfektatzen. Izan ere, garbiketa neurriak zorrotz hartu ditugu, eta hasieratik gaso-



Ana Unamuno, Eskoriatzako gasolindegiko langilea. IMANOL BELOKI

lina-hornigailuak bezeroak berak erabili behar du, gainera; lehen ez bezala. Hala ere, badakigu gasolindegiko zerbitzua eskaini beharra dagoela...".

### Gasolinaren prezioa, baxu

Koronabirusak eragindako jarduera produktiborik ezagatik erregaien eskaria jaitsi egin da, eta horrekin batera, prezioa; erregaien faktura azken urteetako gutxieneko historikoetara kokatzeraino. Erregaiaren kasuan, gasolina joan den astean baino %2,81 merkeago dago, eta

diesela %2,49, Europako Bata-suneko petrolio-buletinaren arabera. "Prezioak aldatzen ari diren arren, astelehenean, Eskoriatzako diesela 1,125 eurotan genuen, berunik gabeko 95ekoa 1,185 eurotan eta berunik gabeko 98koa 1,325 eurotan".

### Irteera operazioan, galera

Oporraldira begira, irteera operaziorik ez denez egongo, gasolina gutxi salduko da, baina horrek eragin positiboa ere izango du airearen kutsadurari dagokionez.





# "Xarma berezia duen txokoa da kontzejupea"

Herriko zenbait gaztek Eskoriatzako udaletxeko arkupeetako txokoa eskupilotan aritzeko erabiltzen dute, baina alarma egoera ezarri zenetik ezinezkoa dute. Hala, gogoz daude egoera normalizatu eta bertan txapelketa antolatzeko

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Argazkian ageri den Eskoriatzako kuadrilla horrek alarma egoera aurretik udaletxe azpiko arkupeetan, kontzejupean, eskuz binakako azken partidua jokatzeko aukera izan zuen. Binaka zenbait lagun bertan batu, eta partidak jokatzeko aritu ziren, hiru tantora. Eta, hain zuzen, gogoz daude berriro ere beraien txokora joan eta lagunarteko partidua jokatzeko.

Ohitura dute zenbait gazte eskoriatzarrek kontzejupea joan eta eskupilotan aritzeko, baina denbora batez ezin izan dute izerdia botatzera bertara joan. Hala ere, gogoz daude egoera hau pasa eta domeka goiz bat edo beste bertara joan eta lagunartean dibertitzeko.

## Kirolaz batera, bizipoza

Kontzejupean askotan aritzen den horietako bat da Txomin Illarramendi eskoriatzarra, eta lagunak ahal badute behintzat



Alarma egoera aurretik jokoan. I.B.

hamabostean behin elkartzeko aprobetxatzen dutela adierazi du. Irrikan dago, gainera, berriz bueltatzeko: "Gogoz jokatzeko ditugu partidua, broma gabe, eta, lagunarteko partidua izan arren, pike gogorra izaten da.

Bikotetan banatuta txandakatzen joaten gara, eta esan beharra dago frontoi handi batean baino gusturago aritzen garela. Izan ere, kontzejupeak bere xarma du, eta hormari emanda atzamarrek eta behatzek nolabait bukatzen duten arren, asko gustatzen zaigu bertan aritzea. Gainera, Fernando Eskoriatza plazatik gora edo behera pasatzen diren herritar asko nola jokatzeko dugun ikusten geratzen dira; herri giroa pizteko ekintza ere izan daitekeela esan genezake".

## Lagunarteko txapelketa

Hori horrela, alarma egoera amaitzen denean, eta normalizatera bueltatzean, txapelketa antolatuko dutela adierazi du Illarramendik. "Domeka goiz baterako hitzordua egingo dugu. Normalean aritzen garenek batuko gara, eta animatzen dena ere ongietorria izango da. Hala, apusturen bat ere egingo dugu partiduen ostean gozatzeko".

## GORA ETA BEHERA



## Haurrei eskerrak emateko pankarta

*Bihotz-bihotzez mila esker, eta besarkada erraldoi bana, laster egongo gara zuekin!* izenpean, pankarta jarri dute Jose Arana egoitzan. Ikastetxeetako haurrak egoitzara joaten dira maiztasun batekin, eta, erlazio hori moztu egin denez, marrazkiak, bideoak... bidali dizkiete egoiliarrei.

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus  
edo 688 69 00 07.



DORLETA SOLOGAISTOA



ALKATEAREN PARTEA

EUGENIO OTSOA

## Entretenezko ariketak

Konfinamenduaren laugarren astean sartu gara dagoeneko eta, zorionez, koronabirusarekin kutsatutako positiborik gabe jarraitzen dugu herrian. Jendea arauak errespetatzen ari den seinale da hori, eta horrek ondorio onak ekarri ditu.

Udal mailan, bestalde, hasieran hartu genituen neurri berekin jarraitzen dugu, eta kaleak desinfektatzen jarraitzen ari gara. Horrekin batera, egoera deseroso honek egoera emozional zein fisikoan izan dezakeen eragina ez handitzeko, herritarrei lasaitasuna eta elkartasuna adierazi nahi diegu. Denbora aurrera joan ahala, kanpora irteteko nahia handitzen joango baita, baina zuhurtziaz jokatzeko jarraitu behar dugu. Gauzak ondo ari gara egiten; beraz, jarrai dezagun bide horretan.

Etxetik kanpora irteteko nahi horretatik pixka bat aldentzeko eta egoera honetara nolabait moldatzen joateko, gainera, Leintz Gatzagako Udaleko webgunean, pertsona orok jarduera fisikoa burutzeko errutina batzuk zintzilikatuko ditugu datozen egunotan. Hala, etxean daudenak entrenitu daitezten eta, bide batez, ariketa batzuk egin ditzaten.

Leintz Gatzagako Udala herritarren beharrak asetzeko prest egon da egoera surrealista hau hasi zenetik, eta hala jarraituko dugu, horretan ari gara eta izango gara egoera honek iraun bitartean, eta baita amaitzen denean ere. Krisialdi egoera honi denon arteko elkarlanarekin aurre egin behar diogu, baina pazientziaz hartu behar dugu, hori eskatzen diet herritarrei, pazientzia. Zaindu gaitezen guztiok.

## Pilota txapelketa eta emakume tailerrak atzeratu egin dituzte

Gatzagako kirol eta kultura hitzorduak atzeratuta, berrartzeko asmoz agertu dira antolatzaileak

## Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Martxoan hastekoa zen pilota txapelketa atzeratzea erabaki du Gatzagako Pilota Sailak. Horrekin batera, Sorginak Emakume Taldeko kideak antolatzeokoak ziren zenbait tailer ere atzeratu dituzte egoera egonkortu arte.

Beñat Agirreurreta Kultura zinegotziak adierazi du dena ondo bidean maiztasun hasiko direla pilota partiduekin: "Orain, ezinezkoa denez, maiztasun hasia espero dugu, eta jakinaraziko dugu zein egunetan. Horrekin batera, kolokan dago ekaineko BTT martxa...".

Emakume taldekoen tailerrak ere bertan behera utzi dituztela adierazi du, bestalde, Garazi Orobengoa Ogasun zinegotziak: "Dugun egoera ikusita, ez dugu aukerarik egiteko, baina jendea gogotsu zegoen; beraz, aurrerago egingo ditugu".




Pilotan jokatzeko. GOIENA

**Andramari jaiak, eraginik ez**  
Jaiak irailean dira; beraz, momentuz, dagokien egunetan geratuko direla adierazi dute udal ordezkariak. Hala ere, egoera hau bukatzean, jaiak bat presatatu nahi dutela herrian adierazi gura izan dute.



ALKATEAREN PARTEA

GORKA ARTOLA



## Aprobetxatu dezagun parada

Datuen arabera, momentu kritikoa pasa da, kutsatze-tasak beherantz doaz eta datozen asteetan egoerak egonkortzera egingo du. Baina ondoren zer? Itxialdi honekin bukatuko da edo lehen zikloa bakarrik izan da? Eta bakarra izanda ere, nola irtengo gara egoera berrira?

Familia batzuk kideren bat galduta, lagun edo ezagunen bat gehienok, gertuago edo urrunago tokatu bazaigu ere. Baina konfinamendu garaia sortutako ondorio indibidual ez gain, kolektiboak izango dira. Zenbat denbora pasako dugu lagun talde osoa lasai eta naturaltasunez besarkatu arte? Noiz utziko diogu metro eta erdia errespetatzeari beste bati zuzentzean? Duela 11 urte, Suedian pasa nituen hilabete batzuk eta harritu ninduen gauzetako bat lagun edo lankide artean hizketan uzten zen tarte zen, guk baino espazio askoz gehiago mantenduz. Itzuleran, edozein gertuegi neukan inpresioa nuen eta bati baino gehiago eskatu nion *espazio*

*bita*l pixka bat eman eta urruntzeko. Kostata, baina ohitu nintzen gure distantzietara. Txikikeriak dirudite, baina konfinamendu honetan hartutako ohitura batzuk aldatzea kosta egingo zaigu. Erabaki egin beharko dugu zertzuk itzuli nahi ditugun lehengora eta zeintzuk aldatu nahi ditugun, zeintzuk egoera honek behartu gaituen bezala egiten jarraitu.

Azken 40 urteetan apurto ziren gizarte sare batzuk berreraiki dira 20 egunean, konfiantza erlazioak modu espresean sortuz. Honen ondoren, egun batetik bestera utzi behar al dugu bertan behera 40 urtetan galdu eta 20 egunean halabeharrez errekuperatu duguna? Aldaketa txiki hauek balioan jarri eta mantentzeko gai izango gara?

Azken 20 urteetan osasungintzan –eta beste hainbat arlotan– egindako murrizketa eta pribatizazioak agerierian utzi eta kritika sakonak jaso dituen honetan, antzeko prozesuen aurrean begiak itxi eta amen egiten jarraituko dugu aurrerantzean?

Ekonomia ez dugu lagun izango eta ez da zaila aurreikustea efizientzia eta austeritatearen izenean halako prozesuak laster izan ditzakegula mahai gainean.

Eta ekonomiaz hasi naizela. Honen ondoren, egoera latzak izango ditugu esku artean. ERTEak orain, zenbat ERE izango dira gero? Langabezia tasa gora, familien egoera behera. Aberastasunaren banaketa desorekatua. Etorkinak, emakumeak, talde zaurgarrietako kideak edo guztia batera. Bakarrik utziko al ditugu etxe-kaleratze, gose edo edozein motatako abusuen aurrean?

Pentsa dezagun nola aldatu nahi ditugun gauzak. 2009ko krisia gogorra

### DATOZEN HILABETEOTAN BALIABIDE GUZTIAK BIDERATUKO DITUGU HERRITARREN OINARRIZKO BEHARRAK ZIURTATZEKO

izan zen, neurri handi batean bakardadean aurre egin behar izan ziolako familia asko eta askok. Oraingoan, gizarte bezala erantzun beharko diogu eta hobeto erantzuteko bezala izango gara, baina guztioi dagokigu ingurukoekiko konpromisoa hartzea. Erakunde publikoek ere izango dugu zer esana eta zer egina. Perspektiba baliabide publikoek dagokienez, ez da batere polita; diru sarrerak asko gutxituko dira, %20 inguruko murrizketak jasatea oso posible izango da eta honek bergararrondako inportanteak izan zitezkeen proiektuak oraingo alde batera utzi beharra ere ekarriko du, egoera berriko errealitateari aurre egiteko. Baliabide guztiak bideratu beharko ditugu datozen hilabeteetan, kasurik onenean, gure herritarren oinarritzko beharrak asetzen direla ziurtatu eta ehun ekonomikoari bultzada bat emateko.

Aldaketa garaia da. Aprobetxatu dezagun, beraz, parada. Gelditu eta hausnartu dezagun nola irten nahi dugun eta prestatu edozeri aurre egiteko, asko dugu-eta irabazteko.



Bergarar bi Santa Marina elizako aterpetik igarotzen, erosketa-orgekin. IMANOL SORIANO

## 39 bergarar ari dira sare boluntarioa baliatzen

Alarma egoera ezarri zenetik 210 boluntario daude erosketetarako, botikak erosteko edota zaborra botatzeko, eta laguntza horri gehitu zaio telefono bidezko akonpainamendua eta maskotak paseatzeko aukera; 010 telefonora deituta, 39 herritarrek eskatu dute laguntza

### Jokin Bereziartua BERGARA

Alarma egoera ezarri eta berehala jarri zuen martxan Udalak herritarren boluntario sarea, koronabirusaren aurrean arrisku taldeko herritarrek direnei edota laguntza berezia behar dutenei zuzenduta. Gaur-gaurkoz, 210 boluntario daude sare horretan, eta, 010 telefono zenbakira deitu ostean, 39 bergarar ari dira zerbitzu hori baliatzen. Eskaintzen den laguntza da erosketak egiteko, botikak ekartzeko eta zaborra ateratzeko. Eta orain dela egun batzuk, zerbitzu berri bi eskaintzen dute boluntario horiek: telefono bidezko akonpainamendua eta maskotak paseoan ateratzea.

Egun, 39 herritar dira, baina aukera zabalik dago oraindik ere: "Bakarrik bizi den eta beharrezko dagoen beste pertsonaren batek laguntza behar badu, 010 telefono zenbakira deitu behar du. Laguntza eskatu, eta egun batera hasiko zaio laguntza ematen". Horrez gain, Udala astero ari da herriko 1.200 etxetara telefonoz deitzen, zer moduz dauden jakiteko eta laguntza behar duten galdetzeko.

### Neurri ekonomiko berriak

Etorkizun hurbilean ziurgabetasuna nagusi izango dela jakinda, Udalak joan den astean iragarri zituen neurri ekonomiko batzuk: uraren eta zaborraren tasen ordainketa gutxienez zutailaren 30era arte etetea; itxi behar izan duten saltokiei eta beste jarduerari uraren kontzeptu finkoaren tasa eta zaborraren tasa ez kobratzea egoerak iraun artean; Ondasun Higiezinaren Gai-neko Zerga ordaintzeko epea irailaren 15era arte luzatzea; eta urteko abonatu eta ikastaroetako tasarik ez kobratzea apirilaren 1etik eta itxita dagoen bitartean.

Asteon, beste neurri batzuk ere iragarri dituzte: Diputazioaren enpresa txiki eta autonomoek zuzendutako dirulaguntza lerro berria; kreditu finantzarioen kuoten atzerapena eskatzeko tramiteetan erraztasunak; eta hil diren senitartekoei zuzendutako dola-zerbitzua, Gipuzkoako Psikologoaren Elkargoaren batera. Bestalde, umeentzat itxialdia atsegina izan dadin hainbat aukera eskaintzen dute honako lotura honetan: [www.bergara.eus/umeak](http://www.bergara.eus/umeak).





Familia bergarar bat balkoian bazkaltzen, txorimalo eta guzti. Erramu zapatua beste era batera ospatzea tokatu da aurten. XAXAU

## Konfinatuta ere, posible delako jaiiaz disfrutatzea

Erramu zapatua balkoitik ospatu zuten hainbat bergararrek eta itxialdian gozatzeko egitaraua antolatu zuen Xaxau konpartsak "balorazio oso positiboa" egin du; maiatzaren 29tik ekainaren 2ra aurreikusita dauden jai nagusiekin ez da erabaki ofizialik hartu

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Koronabirusak erabat baldintzatu zuen Erramu zapatua, bergarar gehienendako urteko zapaturik bereziena dena. Egin zuen eguraldi ederra ikusita, askok penaz hartuko zuten ohi moduan ospatzeko aukerarik ez izatea; azoka, herri bazkaria eta kalean egin beharreko ekitaldi guztiak bertan behera geratu

ziren. Hala ere, Xaxau konpartsak egindako deiari erantzunda, herritar askok balkoitik egin zuten bat festarekin.

### 125 bat txorimalo balkoietan

Antolatzaileek, egoera zein zen ikusita, "balorazio oso positiboa" egin dute eta horren adierazle bi datu eman zituzten: txorimalo lehiaketan 125 bat lagunek

hartu zuten parte, eta euren balkoiak ederto apaintzeko baliatu zuten aukera. Bestalde, Elosuko behi bat bideo bidez erakutsi ostean haren pisua asmatzeko lehiaketa egin zuten; 400 bat lagunek hartu zuten parte eta irabazleek familia guztiarendako Xaxauko kamisetak jaso zituzten opari –behiak 650 kilo pisatzen zuen–. Auazoetan

ere bat egin zuten eta Angiozarrren, esaterako, txorimaloak egin eta etxe atarrietan jarri zituzten, "birusa uxatzeko".

### Pentekosteak, arrisku larrian

Herriko jai nagusiak maiatzaren 29tik ekainaren 2ra bitartean ospatzea dago aurreikusita, baina gaur egungo egoera ikusita oso harritzekoa litzateke normal ospatuko balira. Konfinamendurako arauak arintzen joango balira ere modu batera edo bestera ospatu ahalko lirarteke, betiere orain arte ezagu-

tu den jai ereduak erabat aldatuta. Argi dagoena da konfinamenduaren gaineko erabakiak hartzea ez dagokiola Udalari, eta, "lehenbailehen" egiteko asmoa badute ere, behin betiko erabaki ofizialik ez dute hartu oraindik.

## PENTEKOSTEETIKIN ERABAKIRIK EZ DAGO, BAINA HARRITZEKO LITZATEKE BETIKO JAI EREDUAZ OSPATZEA

## "Oso pozgarria izan da balkoitik ere herriak nola erantzun duen ikustea"

ANDREA GONZALEZ XAXAU JAI HERRIKOIKEN KONPARTSAKO KIDEA

### Zergatik erabaki zenuten Erramu zapatua ospatzea?

Etxean geratu behar izanda eta muga handiak izango genituela jakinda ere, ospatu beharrekoa zela uste genuen.

### Erantzun zuen Bergarak?

Ederto erantzun zuen. Espero genuen erantzungo zuela, denok gaudelako etxean sartuta, baina oso pozgarria da ikustea herriak nola erantzuten duen. Aurretik egindako lan guztiak eman du fruitua, eta hori gozamina da.

### Sare sozialak ezinbesteko izan ziren festarako. Arazo teknikorik izan zenuten?

Aurreikusten genuen arazo teknikoak egon ahalko zirela, besteak beste, ez dugulako horrenbeste denboraz emititu Youtubeko kanal baten. Kaosa izan zen tarteka, baina, lehen aldia zenez, ulergarria da.



GOIENA

### Lana egon da atzean, ezta?

Bilera asko egin behar izan ditugu eta egunean bertan batzuk estresatu ere egin ziren. Kezka izan genuen, bai, baina asko disfrutatu genuen.

### Errepikatuko duzue itxialdia luzatu eta Pentekosteak kalean ospatu ezin badira?

Oraindik ez gara elkartu, eta ez dakigu. Baina konfinamendua luzatzen bada, jaiak atzeratu daitezela; bost eguneko egitaraua online antolatzea lan itzela litzateke, eromena.

## Koronabirusak ezingo du Koldo Eleizalde lehiaketa suspenditu

Moldaketekin, baina 35. edizioa egitea erabaki du Euskara Zerbitzuak; lanak aurkezteko azken eguna hilaren 24a da

**J.B.** BERGARA

Koronabirusak ezingo du Koldo Eleizalde lehiaketarekin. Izan ere, COVID-19aren ondorioz alarma egoeran egonda ere, Udalak erabaki du aurten 35. edizioa biziko duen lehiaketa-

rekin aurrera egitea. Hori bai, Udaleko Euskara Zerbitzuak moldaketa batzuk egin ditu aurtengo. Hasteko eta behin, aurten lanak ezingo dira papelean aurkeztu, eta honako webgunetara igo beharko dira

guztiak: <https://euskara.bergara.eus/koldo-eleizalde-lehiaketa>. Bestalde, herritarrek etxean egon behar dutenez, lehiaketako genero guztietan –ipuin idatzia eta poesia; bertsoa edo koplak; komikia; interpretazioa eta kontaketa–, familian aurkezteko aukera gehitzea erabaki dute.

Lanak entregatu beharko dira apirilaren 24a baino lehen. Sariak banatzeko ekitaldia ekainaren 6an egitea dago aurreikusita, Seminarixoan (12:00).



Irabazleetako lau Seminarixoko agertokian, iazko sari banaketa ekitaldian. GOIENA



ALKATEAREN PARTEA

BEÑARDO KORTABARRIA

## Aurrera begira

Luzapenean gaude, norgehiagoka gehienak irabazi edo galtzen diren unean. Akats txiki batek lehen ondo egindako guztia bidal dezake pikutara! Talde-lanari etsi behar diogu, elkar zaintzen jarraitu behar dugu, gehien ematen ari direnak babestu behar ditugu... etorkizuna daukagu jokoan!

Etorkizunean pentsatzeko unea ere bada. Egoera honetatik noizbait irtengo gara. Berdin bizitzen jarraitu behar dugu? Ez genuke saiatu behar zerbait aldatzen? Gaur egungo balioek balioko dute aurrerantzean? Aberastasuna ondo banatua dago? Eta ez badago, onargarria da? Osasun-sistema publikoak, kirola, azpiegitura handiak, turismoa, dohaineko hezkuntza publiko bikaina... zer da lehentasuna?... Galdera potoloak dira, baina erantzun beharrekoak.

Antzuolan bertan, jende guztia berdin aterako da egoera honetatik? Ez, argi dago ezetz. Eta Udalak zer egin behar du horren aurrean? Aurreko astean, Gipuzkoako alkate askok bilera birtuala eduki genuen Diputazioko agintari nagusiekin. Zitaren helburuetako bat, argia, argazkia eta *Teleberri*-rako bideoa ateratzea zen; mezu nagusia, baina, hau izan zen: Aldunditik agindutakoa baino %20-25 gutxiago etorriko zaizu, zuhurtziaz joka!

Ba, ez, Gipuzkoako Aldundia, ez da zuhurtziarako denbora. Kaltetu ugari aterako da egoera honetatik eta udaloi, daukagun baliabideen araberrako laguntza ematea tokatzen zaigu. Diru gutxiago iritsiko zaigula? Bale, baina ez trabarik jarri daukagun apurra guk geuk erabakitzen dugun modu eta neurrian erabiltzeko. Izan ere, ez ahaztu, baliabide horiek herriarenak eta herritarrenak dira. Pertsonen ongizatea dago jokoan, ez dugu penaltietara, jaurtiketa askera edo *foto-finish*-era jo behar... loteriara, bizitza ez delako zozketa bat. Segi zeuen burua eta ingurukoena zaintzen. Askok gure esku dago. 24 orduko telefonoa: 630 45 51 14.

### Zalantzak zalantza, udalekuak antolatzen dihardute, oraingoz

Aurtengo udalekuen egutegia aurrera doala azaldu du Antzuolako Udalak; hala, uztailearen 15era bitartean egingo dira, momentuz. "Benetan aurrera doan edo ez aurrerago ikusiko dugu. Momentuz, ez da kobratuko", adierazi du Garazi Larrea zinegotziak.

Zalantzak zalantza, aurtengo udalekuak antolatzen dihardute. Izena ematea apirilaren 20tik 30era bitartean egingo da, telefono bidez (943 76 60 65), 09:00etatik 12:00etara, hain zuzen ere. Egingo diren ziurtasuna izanez gero, ekainean kobratuko litza-teke tarifa. Ohiko prezioa 72 euro da; familia ugariendako, aldiz, 48 euro.

### Meditazioa egunero egiteko aukera dute Nigan saioei esker

Nigan ekimenak abian jarri du meditazioa egunero-egunero egiteko aukera. Hala, arratsaldero, zazpietan, propio sortutako Whatsapp taldean batzen dira herritarrak eta meditazio saioa elkarbanatzen dute.

"Ordu erdiz, Ana de las Heras adituak meditazio gidatua eskaintzen du. Whatsapp taldean 450 lagun gaude eta egunero batzen gara. Ekintza simplea eta efektiboa da, egunerokotasunari beste ikuspegi positibo bat emateko balio duena. Gurekin harremanetan jar daiteke interesa duenak [jesusmarimata@yahoo.es](mailto:jesusmarimata@yahoo.es) helbidera idatzita", azaldu du Nigan saioen sustaile Jesus Mari Matak.



Alaitz Jauregi alabekin etxean ostadarraren marrazki esanguratsua eskuetan dutela. A. J.J

## Gurasoak irakasle bilakatu dira egunotan

Eskolako lanak, solfeo zein ingelesekoak.... Laugarren astez, gurasoek irakasle dihardute etxeko haur, gaztetxo eta nerabeekin. Konfinamendu egoeran, jarrera txalogarria eta eredugarria izaten ari direla askoren iritzia ere bada, jakina

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Ostadarra haur eta gaztetxo guztien ikur bilakatu da bizi dugun egoera honetan. Alarma-egoera eta konfinamenduan egon behar diren dekretua arduraz ulertu dute eta zintzo betetzen dihardute, nagusiki. "Haurrei azaldu diegunen zein egoera bizi dugun, hasiera-hasieratik ulertu dute eta ez dute eragozpenik jarri. Helduoi, ordea, hasieratik neurriak ondo ulertzea kosta egin zitzaizkigun", azaldu du Alaitz Jauregi hezitzaile antzuolarrak.

Jauregi bi alabaren ama da, eta ogibidez hezitzailea den arren, ez dela erraza irakasle lanetan jardutea aitortu dio GOIENARI:

"Gurasoak irakasle bilakatu gara. Ez da erraza izan eta niri ere kosta egin zait; izan ere, ez dira eskolako lanak soilik: solfeoa, ingelesa... arlo asko dira. Ikusi ditut zenbait guraso arduratuta; bereziki, batxilergoko nerabeak dituztenak. Egun batetik bestera irakasle lanetan dabilta eta ahal dutena egiten dihardute".

### Teknologia berria

Baina etxe guztietan baliabideak eta azpiegitura teknologikoak ez dira berdinak, eta, ondorioz, ikasle horien ikaste erritmoa kaltetu ere egin daitekeela ohartarazi du hainbat erakundek. "Aldaketa oso azkarra izan da

eta ez dakit denok prestatuta gauden. Egun batetik bestera bideo deiak egitea ohiko bilakatu da, baina herritar orok ez dauka Internetarako konexio bera. Gainera, egunotan sarea kolapsatuta ere badago eta etxeko lanak entregatzeko epea betetzeko zailtasuna izan duenik ere ezagutzen dut".

### Gaztetxoak animatzeko

"Lehenik, marrazkiak egiteko proposamena egin nuen sare sozial bidez. Oraingoan, tximelata bat egiteko ekimena dago martxan. Nire asmoa ere bada, ordea, guk egiten genituen betiko eskulanak egitea. Xinkonaren Facebooken dituzue ideiak".

## Sanisidroak, bertan behera

Ospakizunez beteta eta indartuta zetorren aurtengo San Isidro eguna. Aihertarren bisita ere espero zuten herrian, eta, pena handiz, bertan behera uzteko erabakia hartu dute antolatzaileek eta udal arduradunek. "Eguna iristen doan heinean zerbait aldatzen doala ikusiz gero, agian, feria xume bat egitea erabaki dezakegu", azaldu du Garazi Larrea zinegotziak.







ALKATEAREN PARTEA

IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA

## Bakoitzak beretik, asko egin dezakegu

Ohitura bihurtzen ari zaigu duela hilabete batzuk entzutez soilik ezagutzen genuen gai bati buruz jardutea. Harrezkero, gero eta gertuago sentitu dugu birusaren mamua. Elgetar bat eraman digu COVID-19ak. Herri txikiok berezko dugun gertutasunetik, besarkada bat familiari, behar duzuenarako prest gauzkazue.

Luze doa konfinamendua, eta are luzeago izango dela dirudi. Baina, zalantza barik, higienarekin eta behar beste egiten ez diren testekin batera, birusaren hedapen azkarra murrizteko modu eraginkorra da. Ondo ari gara betetzen, oro har, Elgetan, baina ezin gara lasaitu, ezin dugu etsi; eutsi!

Udal Gobernuan hasi gara 2020ko aurrekontuan COVID-19ak izango duen eragina aztertzen. Foru Funtsetik espero baino gutxiago jasoko dugu, baita zenbait udal tasa eta zergetatik ere. Horrek hainbat proiektu ezin gauzatzeko ekarriko du, eta horriengatik espero genituen dirulaguntzak ere ez jasotzea.

Aurrekontua, gutxi gorabehera, 250.000 euro murriztea ekarriko du honek, %14. 2019ko aurrekontuan, ordea, 100.000 euro pasatxoko gerakina izatea espero dugu, eta horrek egoera pixka bat hobetuko du.

Hemendik aurrera lehenetsunak markatu beharko ditugu, eta dagoenarekin aurre egin, gogotsu. Krisialdi honek bereziki kolpatu dituen ondoan egon beharko lirateke erakundeak, eta herri bezala aurre egin, kohesionatuta, gizarte justu eta orekatuago baterako bidean.

Eragindako kalte honi guztiari denok batera egin behar diogu aurre, eta datorrigunerako prestatu. Bakoitzak beretik, apurka-apurka asko egin dezakegu!

Gogoratu, ez irten etxetik ezinbestekoa ez bada, garbitu ondo eta sarri eskuak, inguruko pertsonetik tartea utzi eta zentzuz jokatu! Laguntza behar izanez gero, deitu: 943 76 80 22 edo 634 43 84 58.



L.Z.L.

## Bi hilabete Zaldibar amildu zela

Astelehenean, hainbat herritarrek bat egin zuten Zaldibar Argitu plataformak deitutako burrunba protesta ekintzarekin. Erantzukizunak argitzeko, zabor azpian desagertuta dauden bi langileak aurkitzeko, hondakinen kudeaketa eredia aldatzeko eta herritarrei zor zaizkien azalpenak emateko exijitzen jarraitzen du plataformak.

# Topaleku bihurtu dira balkoiak eta leihoak

Hainbat dira txaloak jo eta musika elkarrekin entzuteko elkartzen diren elgetarrak, eta egunero ipintzen dute 'Txoria txori' herrian. Astelehenekoa, baina, saio zaila izan zen, COVID-19ak Elgetan eragindako lehen heriotzaren berri izan baitzuten herritarrek

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Torrealdean Beheko kaleko jai batzordeko kideek dihardute, ahal duten neurrian, ekintzak antolatzen. Oxel Erostarbe hasi zen musika jartzen eta laster batu zitzaion Gorka Arizmendiari. "Eraikin berean gaude, baina leihoak alde desberdinetan ditugu. Saiatzen gara musika alde bietan jartzen", azaltzen du Erostarbek. "Playlist bat daukagu eginda Spotifyn eta ahalegintzen gara kantuak modu sinkronizatuan ipintzen. Zaila da, baina halako batean lortuko dugulakoan gaude", dio Arizmendiari.

Txaloak jotzen dituzte lehenengo Torrealdean eta ondoren entzuten dituzte kantuak. *Txoria txori* lehenengo eta gero gero-rokoak. "Aukera dagoenean auzotarren bati eskatzen diogu kantuak aukeratzeko. Urtebetez osatzen diren saiatzen gara. Auzotarren baten eguna dela baldin badakigu, kantuan egiten diogu". Aste bukaerak beti izaten dira bereziak. "Bermutaren Ordua egin dugu honako honetan, eta Umeen Festa aurrekoan". Marrazki lehiaketa ere antolatu dute. Asmoa da jasotako lanak ikusgai jartzea auzoko jaietan. Ospatzen badira, noski. "Domeka honetan Aberri Eguna da eta badihardugu zerbait berezia egin nahian. Euskal Jaia egin nahi dugu", dio Erostarbek.

Salbador kaleko bizilagun talde bat ere txaloen eta musikaren bueltan elkartzen da, egunero. Valeriano Beteta auzotarrak jartzen du musika. "Txaloak jo eta kantu bat entzuten dugu egunero", azaltzen du kaleko bizilagun Bea Bouzasek.

San Roke kalean ere egunero egoten da mugimendua. "Martxoaren 14an hasi ginen musika jartzen, mugikorrarekin eta bozgorailu txiki batekin hasieran eta ordenagailuarekin eta gajeon gordeta genuen amplifika-



Eguerdiko bermuterako mahaia prest balkoi batean, domekan. MAITE MANDALUNIZ

## ASTELEHENEAN TXALO ZAPARRADA LUZEAGOA ETA OZENAGOA EGIN ZUTEN ELGETARREK

dore batekin gero", azaltzen du Maite Mandalunizek. "*Txoria txori* jartzen dugu, egunero, 20:00etan. Gero, txaloak jotzen ditugu, eta amaitzeko, alaiagoa den beste kantu bat egoten da. Inguruko bizilagun ia guztiak irteten dira balkoira, baita inguruko baserri bateko bi pertsona nagusi ere. Egunero irte ten dira, eta horregatik bakarrik merezi du".

Domeketan, berriz, eguerdiko bermuta egiten dute. "Balkoitik balkoira egin genuen plana, eta 13:00etan dugu hitzordua astero. Musika jartzeko eskatu zidaten niri. Ordutik, domekero egin dugu. Gero eta pintxo landuagoak ikusten dira, gainera".

### Astelehena, egun gogorra

Zaila izan zen astelehen iluntzeko saioa. Ostegunean jakin zen baieztatutako COVID-19 kasu

bat zegoela herrian, lehenengoa. Eta herritar horren heriotzaren berri izan zuten elgetarrek astelehenean. Familiaren samina-rekin bat egin zuen hainbatek, eta txaloek esanahi berezia hartu zuten astelehenean. Ohikoa baino luzeago eta ozenago entzun ziren.

### Bost salaketa zapatuan

Hiritarren Segurtasunerako Legeak ezartzen duen konfinamendua hausteagatik Ertzaintzak salaketa bana ipini zien zapatuan Domingo Iturbe kaleko bost laguni. Oraingo, ez dute isunaren zenbatekoaren gaineko jakinarazpenik jaso. "Instruktoreak baloratuko du isunik dagoen, eta balego, kopurua", azaldu dute.

### Jaiegunak eta komertzioa

Bihartik aurrera hainbat jaiegun datoz jarraian, eta, osasun larrialdia izanik, zapatu goizean farmazia zabaltzea erabaki dute Elkoro botikan. Ordutegia izango da 10:00etatik 13:00etara.

Goikoetxe harategiak ere zerbitzua eskainiko du bihar, egue-na. Bea Bouzasek eguen zein zapatu goizean egingo du lan.



ALKATEAREN PARTEA

IZARO ELORZA

## Segi dezagun bidea eraikitzen

Konfinamendua beste hamabost egunez luzatzeko asmoa iragarri berri da. Hasiere batean bi aste inguruko neurri ematen zuena luzatuz doa eta, gutxienez, hil eta erdi egingo dugu konfinaturik. Ezin uka uste baino luzeagoa eta nekezagoa izaten ari dela prozesua. Orain arte ezagutzen ez genuen errutinan gaude murgildurik: etxean sartuta, kaleko hizketaldiak ia erabat baztertuta, deskonexiorako ihesalditxoak egin ezinda...

Hori bai, aitortu beharra dut pribilegiatu sentitzen naizela. Izan ere, familiarekin nago, sekula baino denbora gehiago egiten dugu elkarrekin, osasuntsu gaude, lehentasunezko produktuak erosteko arazorik ez daukagu eta hil bukaerara iristen gara. Zer gehiago eska nezake? Ezertxo ere ez, zoritxarrez, bestelako egoerak ere baditugu-eta herrian. Besteak beste, kontratu gabeko lanpostuetan dabilta hainbat herritar, errolda lortzeko arazoekin, besteen etxeetan bizitzen, etxea beste familia

### GOGOAN DITUT INDARKERIA FISIKOA, PSIKOLOGIKOA EDO JAZARPENA JASATEN DUTEN GUZTIAK

batzuekin konpartitzen... Horiek guztiek sekulako zailtasunak dituzte hilabete bukaerara iristeko, lehentasunezko produktuak erosteko, ez baitituzte dirulaguntzak eskatzeko beharrezko diren dokumentu minimoak. Oraingoan ere, goraka doa sektore zaurgarrien zaurgarritasuna. Ekonomian ez ezik, emozioetan ere badu eragina COVID-19ak. Gogoan ditut etxez etxeko lanetan ari direnak, baita bakarrik bizi diren heldu zein gazte oñatiarrak, egunen joan-etorriak inorekin hitzik egin barik igarotzen dituztenak, buruari bueltaka, isileko bakarrizketan... Gogoan ditut, era berean, urrundurik dauden senideei espetxeetara bisitan joaterik ez duten herritarrak, ziurgabetasun konstantean bizi direnak, birusa lau hormen artean sar ez dadin erreguz. Eta, zela ez, gogoan ditut minbiziak harrapatutakoak, biriketako gaitzak dituztenak, gaixo kronikoak... gaixotasunek ez dute-eta emergentzia egoerez ulertzen. Doazkizue indar keinuak zuei guztiei. Bestetik, gogora ekarri gura nituzke indarkeria fisikoa, psikologikoa edota jazarpena jasaten duten emakume, haur zein nerabeak. Oñati ez da egoera horietaz salbu den herria, inondik inora ere. Normaltasun batean agerian ez dauden egoerak are ezkutuago dira orain. Imajina dezagun une batez: egun guztia nobere erasotzailearekin etxean egon beharra, beste inora joateko aukerarik gabe, arazoa inorekin konpartitu ezinik, isiltasunean. Jakitun gara konfinamendu garaiotan egoerari eustea izan dela askok hartu duten erabakia. Gogorarazi gura nizueke, besteren artean, lagungarri izan dakizuekeen telefono zenbakiak dituzuela aurreko astean zeuen etxeetan jasotako informazio eskuorrietan.

Aurreikus daiteke konfinamendua bukatu ostean ere izango dela laguntzarako beharrik. Esan, gizarte zerbitzuetatik lan eta lan ari garela egungoari zein ostekoari aurre egiteko, larrialdi egoerarako dirulaguntzak tramitatuz, arreta psikologikoa eskainiz, okerren daudenei jarraipena eginez... Eta badakigu ezen guztien laguntza ere badugula. Prozesu hau guztiontzat ari dela izaten irakasgai: besteen azalean jartzen ikasten gabiltza, geure onena ateratzen, laguntza eskaintzen... Duda barik, hori guztia baliagarri izango da osterako. Hor ere beharrik baita boluntariotza, elkartasuna... Finean, esan dezakegu elkar zaintzarako beharra ez dela COVID-19arekin batera desagertuko. Beraz, segi dezagun bidea eraikitzen.

# Zergen ordainketa epeak atzeratzea erabaki dute

Hainbat zergaren ordainketa atzeratzea, etxebizitza sozialen alokairuaren kobrantza etetea, oinarrizko produktuak eskuratzeko bonuak sortzea eta gehiago dira Neurri Ekonomikoen Mahaiak hartutakoak. Beste neurri batzuen lanketan ere badihardute

Miren Arregi OÑATI

COVID-19aren eraginez herriko hainbat sektore pairatzen ari diren kalteak arintzera bideraturiko neurri ekonomikoak zehazteko mahaiak eratu zuen joan den astean Oñatiko Udalak: COVID-19 Neurri Ekonomikoen Mahaiak. Udalbatza osatzen duten alderdi bietako udal ordezkariak osatzen dute hori. Izaro Elorza alkatea, Xabier Igartua Ogasun eta Sozioekonomia batzordeburua, Anik Zubizarreta Partaidetza eta Garapen Komunitario batzordeburua, Ainhoa Galdos oposizio-ko udal bozeramailea eta Jon Kepa Gerrikagoitia Sozioekonomia batzordeko kidea dira mahai-ko kide, baita hainbat alorretako udal teknikariak ere –Ogasun, Sozioekonomia eta Gizarte Zerbitzuen alorretakoak–. Hain zuzen ere, joan den egubakoitzean egin zuten lehen bilera, eta, besteak beste, gaur artean harturiko neurriak jakinarazi dituzte asteon Gobernu Taldeko kideek.

Hainbat zergaren ordainketa epea atzeratzeko erabakia dago horien artean: Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga irailaren 15era atzeratu da; Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga abuztuaren 1etik irailaren 15era atzeratu da eta IBI iraunkorra, garaje eta kanposantuko tasak irailaren 7tik urriaren 15era atzeratu dira. Gainera, kiroldegiko urteko kuotaren zati proportzionala itzuliko da eta ez da bide okupazioagatik –hesiak, aldarmioak, eraikuntza materiala...– zein baratze parkearen erabilgarritasunagatik tasarik kobratuko.

Horiekin batera, bestelako ekinbideak ere jakinarazi zituzten. Maker komunitateko kideek EPIak egin dituzten materiala erostea edo Udalak alokairuan dituen tabernei –Eltzia eta Zubikoa Kiroldegia– alokairurik ez kobratzea alarma egoeran derri- gorrean itxita egon beharra duten bitartean, Olaburuko zein



Oñatiko kaleak, atzo goizean. MIREN ARREGI

### HERRIKO SALTOKI ETA TABERNEI BEGIRAKO NEURRIEN LANKETAREKIN DABILTA MAHAIAN

Olalaneko guneen alokairua ere ez da kobratuko horiek itxita dauden bitartean eta etxeko lanak telematikoki egin ezin dituzten ikasleei Internet sarea ahalbidetzeko 2.000 euroko partida bat sortuko da.

Ostera, Gizarte Zerbitzuen alorrean ere hartu du neurririk Oñatiko Udalak. Besteren artean, etxebizitza sozialen alokairuaren kobrantza eten du; martxan jarri dira diru-sarrerarik ez dutenek oinarrizko produktuak eskura ditzaten bonuak; 20.000 euro gehiago izango dira gizarte arriskuko dirulaguntzetarako eta 35.000 euro gehitu zaizkio gizarte larrialdietarako dirulaguntzen partidari. Orain, 205.000 eurokoa da partida hori.

#### Profesionalei begirako neurriak

Horrez gain, herriko saltokiei, tabernei, kafetegiei, jatetxeei eta

bestelako jarduera profesionalei begirako neurrien lanketarekin ere badabiltzala eman dute aditzera. Esaterako, lanean ari dira alarma egoerak irauten duen bitartean aipaturiko horiek uraren kontzeptu finkoaren eta zaborraren tasarik ordaindu beharrik izan ez dezaten; izan ere, Gipuzkoako Urak-i dagokio horiek kobratzea. Era berean, ez da mahaiaren eta aulkien bide-publikoaren okupazioagatik tasarik kobratuko, eta, gainera, uztaillaren 1etik urriaren 15era atzeratuko da horren ordainketa.

Joan den egubakoitzekoa izan da COVID-19 Neurri Ekonomikoen Mahaiaren lehen bilera eta lanean jarraituko dutela eman dute aditzera, "hori hasiera besterik ez baita. Lanean segitzen dugu, proposamen berriak lantzen, inguruko ereduak aztertzen, eredu propioak sortzen, hainbat proiektu garatzen, sektore zaurgarrien egoera ezagutzen... Berandu baino lehen neurri berriak adostuko ditugulakoan nago. Esaterako, herriko dendariei, ostalariei eta bestelakoei laguntzeko proposamen berriak lantzen dihardugu", azaldu du Izaro Elorza Oñatiko alkatea.



# Zuhurtziaz jokatzeko dei egin dute jeltzaleek

2019ko aurrekontuaren likidazioaren gerakina zertara bideratu behar den "prezipitatuta" hartutako erabakia dela uste du EAJk. Haien ustez, gaurko egoerak ekarriko dituen ondorioak aztertzea zen lehentasuna, gero erabakiak hartzeko

**Miren Arregi OÑATI**

2019ko likidazioaren gerakina zertara bideratuko den erabakia azkarregi eta jeltzaleek ekarpenik egiteko aukerarik izan barik hartu dela azaldu du Oñatiko EAJk. "2019ko aurrekontuaren likidazioak 13.021.803,20 euroko diruzaintza gerakina utzi digu", azaldu dute jeltzaleek. "Gastuen gauzate maila baxu horren arrazoi nagusia da 2019ko aurrekontuetan jaso ziren 14.655.895,19 milioiko inbertsioetatik 4.474.171,13 euro baino ez direla gauzatu. Gerakina 13 milioi ingurukoa bada ere, horietatik ia 8 milioi eta erdi konprometituta daude eta horien txertaketa alkatearen dekretu bidez egin da", azaldu du Ainhoa Galdos bozeramaile jeltzaleak. Jeltzaleek azaldu dutenez, 2 milioi inguruko kreditu gehigarri hori zertara bideratu osoko bilkuran onartu behar zuen udalbatzak. "Udal Gobernuak proposamen itxia eraman zuen bai Ogasun batzordera eta baita osoko bilkurara ere. Ez zaigu ekarpenik egiteko aukerarik eman eta prentsari eta oposizioari aldi berean helarazi zaigu", diote.

Izan ere, Galdosen ustez, bi milioi eta erdiko kreditu gehigarri hori zertara bideratu "elkarrekin adostea" izango litzake egokiena, eta bereziki, "COVID-19 gaitzak eragingo duena aztertzea, erabakiak prezipitatuta hartu aurretik". Bozeramaileak azaldu duenez, "dokumentua martxoaren erdialdean idatzi zen eta geroztik egoera erabat irauli da. Oñatiko autonomoen, negozio txikien, merkatarien, ostalarien langileen... egoerak okerrera egin du nabarmen eta aurreikus daiteke hemendik aurrerako egoera ere ez dela hobea izango; beraz, arduragabea iruditzen zaigu egungo egoera aintzat hartzen ez duen proposamen bat onartzea. Bizi dugun egoera honetan lehentasunak beste batzuk dira eta gure



EAJko kideak ekainean, inbestidura egunean. GOIENA

## OÑATIAK ERAKUTSITAKO "ZUHURTZIA ETA ERANTZUKIZUNA" TXALOTU DITU EAJ-K

ustez egokiagoa zen gaia mahai gainean uztea eta likidazioa aurrerago onartzea, krisiak nola eragingo digun hobeto jakin ondoren eta horri aurre egiteko baliabideak ezarrita". Kreditu gehigarria egoera berriari aurre egiteko proposamenik txertatu ezenez, jeltzaleek proposamenaren aurka bozkatu zuten.

### Udalaren egoera ekonomikoaz

Jeltzaleek gaineratu dute koronabirusak sortutako krisialdiari aurre egiteko Udalak duen egoera ez dela egokiena. "Behin eta berriz eskatu izan dugu azken urteotan kiroldegiko obrei aurre egin ahal izateko aurreikuspenak egitea; tamalez, ordea, ez dira gure eskaerak aintzat hartu eta krisiak bete-betean harrapatu gaitu. Kontu-hartzaileak egindako txostenak jasotzen du Oñatiko Udalak 11,3 milioiko zor bizia

duela eta Udalaren zorpetze maila %6,58koa dela, Oñatiren antzeko Gipuzkoako udalen batzereko zorpetze maila baino 2,27 handiagoa", azaldu du.

### Neurri ekonomikoen mahaiaz

Bestetik, COVID-19 gaitzak eraginda herriko hainbat sektore pairatzen ari diren kalteak arintzera bideraturiko neurri ekonomikoak zehazteko mahaia eratu izanaz pozik dira jeltzaleak. EAJtik Ainhoa Galdos udal bozeramaile eta Jon Kepa Gerrikagoitia Sozioekonomia batzordeko kidea dira mahai horretako kideak. "Osoko bilkuran egin genuen neurri fiskalak arintzeko eta dirulaguntzak bideratzeko proposamena, eta orain, mahai horretan hartu dira erabakiak, elkarlanetik", azaldu du Galdosek.

Azkenik, jeltzaleek azaldu dute kezka eta arduraz bizitzen ari direla egoera hau herritarren osasunean eta bizimoduetan izaten ari den eragina eta txalotu egin dute "oñatiarrek erakutsitako zuhurtzia eta erantzukizuna". EAJk azaldu du krisi hau gaindituko dela eta bide horretan batasunean eta elkarlanean aritzeko dei egin dute.



NIRE USTEZ

MIEL GURIDI

## Argi izpiak iluntasunean

Dagoeneko badaramatzagu lau aste etxealdi/itxialdi honetan, eta tarte horretan gauza onak eta ez hain onak ikusi ditugu.

Alarma egoera honek denoi eragin digu: ikasleei, enpresei, langileei, osasungintzakoei... eta, zer esanik ez, tarte honetan hurbilekoren bat galdu dutenei. Bihoakie azken horiei nire doluminik sentituena.

Badaude eragindako gehiago ere; esate baterako, itxi behar izan duten denda, jatetxe eta tabernak. Egoera horri aurre egiteko, pertsona horiei laguntzeko plataforma bat sortu dela iritsi zait sare sozialen bidez. Kuttuna du izena, eta Oñatiko Magnet kooperatibak sortu du musu-truk. Plataforma hori une honetan itxita dauden denda, komertzio eta ostalaritza laguntzeko dago pentsatuta. Parte hartu nahi duten komertzioek izena eman ondoren, guk, gainerako herritarrok, bertan sartu eta egoera normaltzen denean egin ahal izango ditugun gastuetarako bonuak erosteko aukera izango dugu.

Ekimen polita iruditzen zait, egoera ilun honetan argi izpirik ere azaltzen da noizean behin.

## 'Kuttuna', komertzio txikiei laguntzeko sortutako zerbitzua

Magnet kooperatibak 'Kuttuna' zerbitzua jarri du martxan, egoera honetan komertzio txikiei laguntzeko

**M.A OÑATI**

Merkataritza eta zerbitzu txikietan erabiltzeko bonu txartelak erosteko web plataforma bat da *Kuttuna*. Edozein merkataritza erregistratu daiteke plataforman, eta erabiltzaileak ikusten du ze merkataritza edo komertzio dauden bertan erregistratuta. Hala, erabiltzaileak bonu txartel bat eros diezaioke merkataritari. Erabiltzaileak momentuan ordainduko du, eta behin konfinamendua bukatzean erabili ahal izango du. Modu honetara, itxita dauden hilabete honetan jasoko dute

dirua komertzioek. Hau da, herritarrek aukera izango dute merkatariei laguntzeko hilabete txar hau gainditzen. Bonu txartelak 5 eta 200 euro artekoak izan daitezke, erabiltzaileak jarri gura duen diru kopuruaren arabera.

Dagoeneko izena eman duten komertzioak dira Oñatiko Kantue, Ta Puntu, Nagore Goñi, Candeluka, Bidebarrieta Fisioterapia Zentroa, Mauxka eta IraMira; Arrasateko Aula XXI eta Dirdir eta Azpeitiko Tilin Talan.

## Liburutegiko zenbait ekintza telematikoki mantenduko dira

Martxoko etenaren ostean, Yurre Ugartek eta Iban Repilak gidatzen dituzten *Tertulixa* irakurle taldeak berrartuko dira apirilean. Bestalde, Silvina Fondrak gidatutako psikologia irakurle saioak ere mantenduko dira. Apirilaren 23ko Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, hitzaldi formatu irekia antolatu dute, online, Ugarte eta Repilarekin.

## San Migel Txiki jaiak ez dira bere horretan ospatuko maiatzean

Kale Zaharreko San Migel Txiki batzordeak jakinarazi du maiatzaren 8an, 9an eta 10ean ospatzekoak ziren kaleko jaiak ez direla bere horretan ospatuko. Egun horietarako antolatuta ziztuzten ekintzak bertan behera gelditu dira. Hala ere, egun horietarako alternatiba bila dabiltzala aurreratu du batzordeak, ez dela festa girorik faltako.

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Uxue Otxoa (Arrasate, 1990) kirol psikologoa da, edo, euren lanbidean esaten duten moduan, "kirol errendimendu errezailea", nahiz eta enprekin ere jarduten duen, taldeen kudeaketan, lidergoan eta bestelako kontzeptuetan lanean. Iaz arte Kirolgi-ko kirolariek ibili da, eta egun, futbol jokalariek –UDAKo lehenengo taldearekin dihardu–, arraunlariak, ziklistak eta surfariak ditu bezeroen artean. Kirol ikuspuntutik abiarazitako elkarrizketa da hau, nahiz eta egungo egoerari aurre egiten dabilen edonorendako den baliagarria.

**Lan askorekin ari zara egun haue-tan?**

Ezin naiz kexatu, egia esan. Egia da konfinamenduko lehen egunetan beherakadatxo igarri nuela. Bezeroei eskaini nien eurekin egiten dudana lan-saioa modu telematikoa egitea. Batzuek segituan onartu zuten, besteren batek esan zidan gurago zuela saioa aurrez aurrekoa izatea eta, oraingoz, eten bat egingo zuela, eta denbora apur bat eskatu zidatenak ere egon ziren, eta gehienak animatu egin dira modu telematikoa jarraitzera. Nik ere gurago ditut aurrez aurreko elkarrizketak, baina saio txukunak egin daitezke horrela ere.

**Kirol psikologian egiten duzu lan, bereziki, eta Ziklo aldizkarian kolaboratzen duzu. Bertan idatzi duzun artikuluan diozu prozesu honetan –koronabiruraren krisialdian– izaten dugun jarrerak baldintzatuko duela indartuta ala makalduta irtengo garen.**

Badirudi gauza oinarritzkoa dela, baina garrantzi handia du. Egun osoa pasatzen badugu ondokoak daukanari begira eta guri zer falta zaigun nabarmentzen, ba, jai dugu. Esaterako, txirrindularitza munduko adibide txiki bat: Aleix Espargarok eta Purito Rodriguezek *Ni etxean entrenatzen naiz* lelopean bideoa igo zuten sare sozialetara. Eta noski, euren logelek gimnasioa ziruditen, ez zitzairen ezer falta. Horren aurrean gure jarrera baldin bada: nik ez daukat arrabolik, ez daukat ergonometrorik, ez ditut pisuak, etxean ez dut lekuri... Hor mentalki ez nabil nire buruari batere laguntzen. Kontua da non jartzen dugun arreta, eta arreta horrek eragingo du nire jarreran. Hori



Uxue Otxoa kirol psikologoa. MIKEL ALBERDI

# "Kirolariek orain dute aukera mentalki indartzeko"

**UXUE OTXOA** KIROL PSIKOLOGOA

Arrasatearra modu telematikoa dabil egunotan kirolariek lanean: "Gure jarrerak baldintzatuko du egoera honetatik indartuta irtengo garen, ala makalduta"

horrela, ziklista profesionala banaiz, eta arreta jartzen badut Suitzako txirrindulari batek egunotan entrena dezakeela eta nik ez, edo Chris Froome Hegoafrikan bizikleta gainena ibiliko dela pentsatzen... bada, pentsamendu negatiboak izango ditut. Hala, gauza asko ez daude gure kontrolpean, eta horien gainean ezin dugu eragin. Baina bai kontrola dezakegu non jartzen dugun fokua, arreta, hori gure esku dago. Egia da, hala ere, abiapuntua ez dela erraza.

**Erabiltzen duzun esaldia da: "Bilakatu mehatxu hau erronka".**

Sarritan nabarmentzen dugu hori psikologok. Gure egoera egokitu behar dugu, eta, kasu honetan, gure kirol jarduera egokitu behar dugu egungo egoerara. Horregatik, orain, kirol errendimendua hobetzea ezin da izan lehentasuna, ez da inoizko sasoi onena bilatzeko momentua. Askoz ere helburu erreala da sasoi mantentzen ahalegintzea. Horregatik, garrantzitsua da egunotan kirol

errutina batzuk izatea, eta, kontraesana badirudi ere, errutina horiek aldatzen joatea.

**Egunotan, kirolari asko ikusten ari gara sare sozialen bidez etxean kirola egiten, gorputzeko giharrak lantzen. Baina lepo gaineko giharra ahaztu egiten dugu, sarritan.**

Hori da profesional moduan pertsonalki dudana eronketako bat; izan ere, mentalki entrenatzea oso baztertuta egon den kontu bat da. Are gehiago, estigmatizatuta ere egon den gaia da. Gaur egun ere batzuek pen-

tsatzen dute kirol psikologo bat duen kirolariak ahulgune bat duela, pentsa.

**Stephen Hawkins-ek utzitako esaldi bat oso aproposa da egun haue-tarako: "Inteligentzia aldaketetara egokitze gaitasuna da".**

Eta halaxe da. Sarritan esaten dut bizitza ez dela zer gertatzen zaizun, baizik eta gertatzen zaizun horretatik ze interpretazio egiten duzun. Hori horrela, egiten duzun interpretazioaren arabera egoera berrira egokitzen asmatuko duzu, ala ez. Horren adibide oso ona da egunotan arrakasta handia izaten dabilen *El día menos pensado* [Netflix] dokumentala. Sei kapitulutan iazko denboraldiko Movistar ziklismo taldearen nondik norakoak kontatzen ditu, eta kirol psikologiaren ikuspuntutik oso emankorra da bertan azaltzen dena. Chentek [Garcia Acosta, kirol zuzendaria] esaten duenean lidergoa falta dela taldean, Mikel Landak esaten duenean erlojupekoan pentsamendu negatiboak izan dituela, Richard Carapazek esaten duenean oso urduri zegoela, edo Alejandro Valverdek nabarmentzen duenean Munduko Txapelduen irabazteko gosea galarazi diola. Hor, den-dena, kirol psikologia da, eta, harrigarria bada ere, badaikit, galdetzen ibili naizelako, UCI World Tour barruan oso talde gutxi daudela kirol psikologia lantzen dutenak.

**Errendimenduan eragin daiteke kirol psikologiatik?**

Ni ez nabil esaten, esaterako, Mikel Landak ondoan kirol psikologo bat izateagatik Tourreko erlojupekoan denbora hobea egingo zukeenik, baina pentsamenduen kontrol handiagoa izango zuen, duda barik. Eta mentalki ondo ez dagoenak nekez izango du kirol errendimendu ona. Hor bilatu behar da oreka sasoi fisikoaren eta psikologiaren artean.

**Aste hauetan kirolari gehienek diotena da konfinamendua noiz amaituko den eta lasterkeretan noiz hasiko diren ez jakitea dela okerren daramatena. Hau da, ezin dutela ezer planifikatu.**

Halaxe da. Egunotan, pare bat txirrindulariekin berba egin ahal izan dut, eta nire gomendioa da egun hauek irudikatzea lesionatuta egongo balira moduan. Errendimendu altuko kirolari batek badaki zer den lesionatuta egotea. Badaki ondo erreku-



peratzeko lan egin behar duela, baina ez daki noiz erreku-peratuko den erabat, eta noiz bueltatuko den lasterketetara. Egoera horrela enfokatzeak lagunduko digu ezjakintasun hori hobeto kudeatzen. Izan ere, halaxe daude kirolariak, sasoi fisikoa zenbat galdu duten jakin barik, eta horrek ezinegona sortarazten die.

**Aste hauetan kirolariek –eta gaintzeko herritarrek– haserrea, beldurra eta halako sentimenduak izan dituzte.**

Sentimendu normalak dira. Beldurra sentitzea, esaterako, normala da, ikusten dugulako birusarekin kutsatzeak ze ondorio izan ditzakeen. Eta haserrea egotea ere normala da. Esperimentiatik diot, hasierako egunetan ni ere halaxe sentitu nintzen, haserre. Eta eliteko kirolaria dago haserre orain zetozelako lasterketa garrantzitsuak, edo urte olinpiarra pikutara joan delako... Bada, hori sentitzea beharrezkoa da, ondoren egoerara egokitzeko. Eta ondoren tristura dator; haserreak atzean ezkutatzeko den sentimendua da tristura. Izan ere, horrenbeste ematen digun kirol jarduera ezin dugu egin, baina, gainera, gure egunerokoa ere hankaz gora geratu da, ezin dugu egin horrenbeste atsegin dugun hori: lagunekin egon, bikotekidearekin paseo bat eman... Horrenbestez, sentimendu normalak dira, eta kudeatu egin behar ditugu.

**Ziklisten kasuan, egin beharreko entrenamendu saioak eramangarriagoak izan daitezkeen arrabolarekin funtzionatzen duten hainbat plataforma digitalek sekulako gorakada izan dute.**

Korrika egiteko zintak baino gehiago, ikusten ari gara kirolari askok arrabolak dituztela

**"ONDOKOAREKIN ALDERATZEAK EZ DIGU MESEDERIK EGINGO"**

**"ORAIN EZ DA SASOI BETEAN JARTZEKO MOMENTUA"**

**"LAN FISIKOAREN ETA MENTALAREN ARTEAN OREKA BEHAR DA"**

etxean. Eta arrabola egiteko Bkool edo Zwift moduko plataforma digitalak oso baliagarriak dira, berez aspergarria den zerbaite entrenigarriago egiten dutelako; mendate bateko irudiak ikusten ditugu pantailan, alda-pa dagoela simulatzen du arrabolak. Bale, oso ondo. Baina uste dut elite mailako kirolariak horiekin ez direla behar moduan entrenatzen, ez dabilzalako arlo mentala lantzen. Pantaila bidez aplikazioak estimulu batzuk bidaltzen ditu, eta gorputzak erreakzionatu egiten du, baina mentalki ez gabiltza lanean, ez gabiltza pentsamenduak kudeatzen, arraboleko ordubetea ahalik eta azkarren pasatzea bilatzen gabiltza. Eta hori egin beharrean, uste dut kirolariek aukera paregabea dutela egunotan prozesu mentalak deritzona lantzeko.

**Eta zelan egiten da hori?**

Modu asko daude. Esaterako, arrabolean gabiltzan bitartean, eta gure bihotz taupadak atalase-mailatik gora ditugunean [bihotz taupada altuetan ibiltzea] ezagutzen ez dugun kanta bat jar genezake, eta letran jarriko dugu erreparoa. Zergatik? Frogatuta dagoelako kirolari batek pentsamenduekin konektatzen duenean errendimenduan behera egiten duela; hau da, zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta watt gutxiago mugitzeko kapaz izango gara. Baina mentalki entrenatzen banaiz eta lortzen badut gauzetan pentsatzen nabilen bitartean watt kopuru berbera mantentzea, kontrarioaren aurrean abantaila lortzen nabil. Egia da ez dela erraza.

**Diozu, baita ere, entrenamenduetan lasterketetako kondizioak simulatu behar direla.**

Sarritan esaten dut hori, bai. Lasterketetan izaten dugun presio mentala entrenamenduetara eramane behar da. Bestela, gerta daiteke gure egunerokoan ondo entrenatzen ibiltzea, baina lasterketa eguneko tentsioa eta estresa moduko faktoreek gura duguna baino gehiago eragitea errendimenduan. Horregatik gomendatzen dut, tarteka, arrabol gainera lasterketetako mailotarekin igotzea eta dortsal bat bizkarrean jartzea. Hala, fikziozko errealtate bat eraiki genezake, eta mentalki prestatzen lagunduko digu. Modu asko daude, horregatik diot momentu ezin hobea dela arlo mentala lantzen hasteko.

# Herriz herriko txapelketa jokatzeko aukerarik bai?

**PILOTA** Maiatzaren lehenengo egunean hasi behar zuten Gipuzkoako klubetan artean dagoen txapelketa maitatuena. GOIENA Bergarako eta Oñatiko klubetako ordezkariak izan da, eta zail ikusten dute txapelketa bere horretan jokatzeko

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Aurreko asteotan, koronabirusak Debagoieneko kirol taldeen ligitan izan duen eragina jaso du GOIENAK, edo bertan behera geratu diren lasterketen egoera. Hala, pilotako denboraldian ere eragin zuzena izango du honek guztiak. "Pentsa, Debarroko txapelketa orain hastekoak ginen, eta, oraingoz, bere horretan utzi behar izan dugu. Aurten, gainera, Antzuolari tokatzen zitzaion txapelketa antolatzea, eta, hain justu, herriz herriko txapelketaren egun berean jokatu behar zituzten finalak, ekainaren 27an", dio konfinamendua betetzen dabilen Oñatiko taldeko ordezkari Josu Osak.

**Aldaketekin izan beharko du**

Hala, oraindik ez dago garbi aurtengo herriz herriko txapelketa jokatu ahal izango duten ala ez: "Ilusioz prestatzen dugun torneooa da, baina zail ikusten dut, hainbat motiborengatik. Hasteko, maiatzaren lehenengo gainean dugulako eta egoera zein den ikusita pilotan jokatzeko ez delako lehentasuna. Horrekin batera, pilotariak denbora behar dute osterera ere kirol jarduerara egokitzeko. Etxean badabilza ariketak egiten, baina eskuak pilotaren kolpera ohitu behar



Bergarako pilotariak Adunakoen kontra jokatzeko, iaz. GOIENA

dira osterera ere". Bergarako pilota taldeko ordezkari Julen Aranburu ere iritzi berekoa da: "Ez dakit uztaileira atzeratuta edo azarora, baina torneooa maiatzean jokatzeko ez dut posible ikusten".

**Profesionalak, publiko barik**

Badirudi hori izan daitekeela pilotari profesionalak izan dezaketen irtenbidea: "Baina herriz herriko moduko txapelketa batean ez du zentzurik publiko barik jokatzeko. Profesionalak kontratuak eta bestelakoak di-

tuzte, ados, telebistaz emango dituzte partiduak. Baina ze zentzu du amateur mailako torneoak publiko barik jokatzeko? Hain zuzen, hor dago gure txapelketen grazia, herritarrek frontoietara joan ahal izatea. Penagarria izango litzateke, baina horrela jokatzeko hobe da aurten txapelketarik ez antolatzea".

Hain zuzen, Bergaran oraindik Soralue Txapelketako finalak dituzte jokatzeko: "Baina pilotariak ez diegu esango finala egun batetik bestera jokatzeko, prestatu beharra daukate".

## Arrasateko enduro lasterketa bertan behera utzi dute

**MENDIKO BIZIKLETA** Ekainaren 26an egin behar zuten lasterketa: "Ez dugu ondo antolatzeko modurik"

**X.U.** ARRASATE

Aurreikuspenak betetzen dabilza. Koronabirusaren eragina martxoko eta apirilako kirol hitzorduetatik harago doa. Hala, Arrasateko enduro lasterketa antolatuko ez dutela adierazi

dute antolatzaileek: "Penaz hartu dugu erabakia, zirkuitu berria prestatzen lan handia egin dugu eta; ikusgarria izan behar zuen. Baina ez dugu ikusten lasterketa behar den moduan antolatzeko aukerarik dagoenik".

Gurpil potoloekin jarraituta, ikusteko dago uztailearen 11n Antzuolan egitekoak diren DH lasterketa iristen denerako zein den egoera.

**Musakolako martxa ere ez**

Musakolako mendi bizikletako martxako –maiatzak 3– antolatzaileak egunotan dira batzekoak. "Garbi dago maiatzerako ezingo dugula martxa antolatu, baina erabaki behar dugu udazkenera atzeratzen dugun ala ez", adierazi du Iban Diazek.

# Kultur eragileak, irtenbideen bila

COVID-19aren eraginez bertan behera geratu dira Debagoieneko erakundeek eta bestelako eragileek antolatutako kultura ekitaldiak; ikuskizun batzuk atzeratu egin dituzte eta beste bide eta formula batzuk ere aztertzen ari dira irtenbidea aurkitzeko

**A. Aranburuzabala/ N. Urien** ARRASATE Herri handietan kultura ekitaldi gehiago izaten dira; hortaz, horien eskaintzan izan du COVID-19ak eragin handiena; hala ere, herri guztietan ari dira egin bako ekitaldiei irtenbidea topatzeko lanean.

**Udaletako gehienak, atzeratuta** Martxoaren 13an itxi zituzten Seminarixoko ateak; harrezkerro, bertan behera geratu ziren film emanaldiak eta beste hainbat ekintza; atzeratu egin dituzte *Yonunca* (Compañía de Krisol) antzezlan, 2021eko martxoaren 6ra, aurtengo azaroaren 20ra Xabi Solanoren kontzertua, eta 2021eko urtarrilaren 2ra, *Safari* umeentzako antzerkia. "Gainerakoak konfirmatzeko ditugu oraindik; eta Bergarako Musika Eskolaren Apirilean Musika egitarauaren barruan Seminarixoan aurreikusita zeuden emanaldiak ekainerako aurreikusitakoak, baldin eta ordurako aretoa zabaltzeko moduan baldin bagaude", dio Kultura teknikari Maider Osak.

"Erori direnak ez du esan nahi egingo ez direnik; besteak beste,

lotuta genituen honako hauek: Bandaren kontzertuak; Oñatz dantza taldearen 50. urteurreneko martxoko, apirileko eta maiatzeko ekitaldiak; Beratu jaialdia; liburutegiko ekintzak eta herriko Letagin eta Willis

Drummond-en kontzertua", dio Oñatiko Kultura zinegotzi Iñaki Olalde, eta zera gaineratu: "Agenda bete egin da Oñatin; beraz, denok egin beharko dugu ahalegina denontzat tokia egon dadin elkartzun keinu batekin".



Xabi Solanoren Seminarixoko kontzertua azaroaren 20ra atzeratu dute. I. S.

Arrasaten ere hainbat ekitaldi atzeratu dituzte; horien artean, udazkenean eskainiko dituzten *Simplicissimus Kabaret* (Tartean Teatroa) eta *Ave, Osos!* (El Mono Habitado taldea) antzezlanak. "Zine emanaldiez gainera, ez ditugu zuzeneko bost emanaldi eskaini: horietako bi, Udalak antolatutako antzerki emanaldiak eta herriko eragileek antolatutako beste hiru: Ozenki elkartearen eskutik opera emanaldia; AMS eta EskoZap elkarteek proposatutako Leo Bassiren ikuskizuna eta Arizmendi Ikastolaren Abesbatza Topaketa. Horrez gainera, Kulturaren antolatutako hainbat ekintza ere jausi egin dira, eta baita Udaberriko Musikaldiaren baitan aurreikusita zeuden Argentinako Opus 4 taldearen eta KUP abesbatzaren emanaldiak ere", kontatu du Kultura Saileko arduradun Jon Garaik.

## Puntaik Punta ere, zalantzan

Antzuolan ere apirilerako proposatutako guztiak bertan behera geratu direla azaldu du Kultura zinegotzi Mikel Bargielak, aurtien Antzuolan maiatzean egitekoak diren Puntaik Punta Bidezidorren Jaialdiarekin zer gertatuko den zehaztu barik dutela gaineratuta: "Ez dakigu egin ahal izango dugun; gaur egun daukagun informazioarekin esan dezakeguna da ez dela segurua egingo pentsaturik zegoen formatuan; eta bertan behera gelditzea ere aukera bat da".

**BERTAN BEHERA UTZI DITUZTEN KULTURA EKITALDI GEHIENAK ATZERATU EGIN DITUZTE UDALEK**

"Elgetan, Liburuaren Eguneko *Ganbara* ikuskizun familiarra eta *Liburutegia kalera* ekimena bertan behera gelditu dira, eta baita apirilaren 26ko *Herrixa Dantzan* ere; eta 1936ko gerrako Debagoieneko haurrei egitekoak ginen omenaldi ekitaldia urriaren 4ra atzeratu dugu. *Artista liburuak* sormen tailerra, ipuinen ordu saioa eta Hitzez Pitz berbalagun saioak egoerara moldatu ditugu. Guztiontzat lekua egitea gura dugu", dio Kultura eta Euskara zinegotzi Ane Bilbaok.

Martxorako eta apirilerako programatutakoekin "ez dakitela zer gertatuko den" dio Inma Migel Aretxabaletako Kultura teknikariak, "Ojala Zelaiko erromeria ere kolokan dagoela" adierazita. Eskoriatzako Kultura teknikari Arantxa Unzuetak dio "apirileko ekitaldiak eta maiatzeko lehenengo domekan eginen den Atxorrotx Eguna ere bertan behera" geratu direla.

Aramaion apirilean egitekoak ziren Gazte Egunik ez da izango, eta "maiatzerako aurreikusita dauden Trikitixa Eguna, Musika Astea eta Lirika kontzertuarekin zer egin ikusteko" dagoe la dio Kultura zinegotzi Ana Martiarenak. Leintz Gatzagako Beñat Agirreurreta zinegotziak azaldu du "orain egitekoak ziren tailerrak jausi" egin direla.

**Sortzaileak babesteko neurriak** *Noaua* Usurbilgo komunikabideak honela argitaratu zuen

**SAREAN IKUSGAI DAUDE ERAKUNDEEK, ELKARTEEK ETA SORTZAILEEK IGOTAKO KULTURA EKOIZPENAK**

## ETXETIK PLAZARA

**SORTU ETA BIDALI ZURE BIDEOAK HORIZONTALAN**

688 69 00 07



**goiena**  
Zu hemen zaude.



martxoaren 30ean: "COVID-19ak kultur eragileek bizi duten prekaritateareagotu egin duela argudiatuta, kontratu horiek *sine die* atzeratzea erabaki dute, bertan behera utzi gabe; hala, aurrerapen bat orain ordaintzea erabaki dute -%30-, eta gainerakoa, emanaldiaren ostean".

Debagoienean, momentuz, ez dute halako neurririk hartu; Arrasaten, gaiaren inguruan Udalak ez duela erabakirik hartu dio Jon Garaik, eta, "kasuan kasu begiratzen ari direla" gaineratu du, "sinatutako kontratuak, adostutako baldintzak eta kontuan hartuta". Eta honako hau dio Oñatiko zinegotziak: "Saioak berreskuratzeko saia-kerak egingo ditugula adierazi diegu sortzaileei; kontratu berrien aurrean lehenetsuna dira eta zorretan gaude eurekin. Agendak koordinatzea zaila

izango den arren". Bergarako Kultura teknikariak zera gaineratu du: "Udaleko Kultura Sailerako zerbitzuak eskaintzen dituzten azpikontratatuak enprekin jarri gara harremanetan, eta bakoitzarekin landuko dugu hartu beharreko erabakia". SGAE elkarteak ere bazkideendako 15 milioi euroko funtsa abian jarri du; informazio gehiago, *Sgae.es* atarian.

#### Sarea, irtenbide estimatua

Berrasmatzen ari dira kultur-gintzan ere, eta horren erakusle dira sarean eskuragarri dauden askotariko sormen lanak. Seminarixoko emanaldien grabazioak Udalaren atarira -*Bergara.eus*- igotzeko lanean ari direla azaldu du Osak: "24 eskaera egin ditugu, momentuz, eta dagoeneko ari gara baimenak jasotzen. Horien artean: Miriam

Moñuxen eta Leire Ugarteren kontzertua, Arrasateko Ain\_1 taldearena eta Kontakatillu taldearen *Katilikadak* haurrentzako txotxongilo emanaldia".

Herri guztietako bibliotekak ari dira *online* zerbitzuarekin, eta sarearen bitartez askotariko ekitaldiak eskaintzen.

#### Kooltur Ostegunak, bukatuta

Arrasateko gaztetxean eguinetan egiten duten Kooltur Ostegunak musika zikloaren hamargarren denboraldia bukatutzat jo dute, hala adierazi dute antolatzaileek astean igorri duten oharrean.

Oñatiko Beratu elkartearen asmoa da aurrerago egitea musika jaialdia: "Lotuta genituen guztiak egin gura ditugu; ikusiko dugu jaialdi, ziklo edo kontzertu solte formatuan izango den. Eskerrak eman nahi dizkiegu artistei eta hornitzaileei".

1. Nola eragin du COVID-19ak zure lan-jardunean?
2. Bertan behera diren ekitaldien ordainik jaso duzu?
3. Kultura eskaintza handia sarean; ona da artistendako?



**ASIER ALTUNA**  
ZINEGILEA

**1.** Aspektu askotan eragin digu: batetik, maiatz bukaeran telesail bat errodartzeko asmoa genuen, eta orain, ez dakigu beharrezko bermeak izango ditugun horretarako; eta bestetik, uste dut proiektuak prestatzen ari garenei ez zaigula gaizki etorri itxialdia, lan asko egiteko aukera eman digu. Hori bai, konpetentzia izugarria izango da, denok ari gara-eta idazten, memoriak prestatzen eta sortzen!

**2.** Sortzaileak prekaritate iraunkorrean bizi gara, eta orain, areagotu egingo da hori.

**3.** Saretik ez zaio ezer iristen sortzaileari, baina pentsa zein inportanteak garen sortzaileak, guk *Aupa Etxebeste*-rekin etxe barruan hilabete pasa eta airoso ateratzeko pistak ematera iritsi ginela.



**RUPER ORDORIKA**  
MUSIKARIA

**1.** Nire eginkizuna erabat eten du egoera honek. Orain dela 20 egun, bertan behera utzi zuten lehenengoa, Gasteizen, eta, oraingoz, zortzi atzeratu dizkigute; asteon Kuban egon beharko nintzateke kantuan.

**2.** Kontratuaren arabera izaten da; gehienak kontratu nahiko informalak izaten dira eta atzeratzearekin adosten dira, gehienbat; ez dut uste inork jasoko duenik aurrez dirurik. Kasuistika ezberdinak izango dira, baina autonomoak gara gehienak; hortaz, beste langileen moduan jaso beharko genituzke dirulaguntzak.

**3.** Jende askok aspalditik du kultura saretik kontsumitzeko ohitura, baina ez dakit nola baloratu egunotako ekoizpen zaparrada. Denbora beharko da lehengora itzuli nahi bada.



**EDU MURUAMENDIARAZ**  
DANTZA KOREOGRAFOA

**1.** Hasieratik etxean nago; ez in dut dantza klaserik eman, eta ezta entsegurik egin ere. Klaseak Internet bidez eman ahal izateko moldatzen eta ikasten nabil ni ere, egoera honi irtenbide bat emateko. Zuzeneko gure dantza ekitaldi guztiak ere bertan behera gelditu dira.

**2.** Egoera hau sortu zenetik hona genituen emanaldi guztiak bertan behera gelditu dira, eta, momentuz, behintzat, inork ez dit bestelako traturik eskaini, ezta aurrez zerbait ordaindu ere.

**3.** Kultura eskaintza izatea beti da ona, baina ez dugu ahaztu behar sortzaileontzako, hau da, kultur langileontzako, gure bizimodua dela hori; beraz, ezin dugu, nire ustez, beti musu-truk lan egin.

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena klubeko apirileko sariak!



#### SPC Heaven 10.1 tableta

Parte hartzeko sariaren izena:  
Tableta



#### Sarrerak

Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktusak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "sarioren izena" (bazkidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indararen dugun LDFD 15/2009 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunitate Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilaketa horien helburu bakarra da norbanan dagpen zuzteperako gestioak. Eskubidea izango duzu datuak sartze, aldatu, zuzentzeko edo ezaritzeko, helbide: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...

2020ko bazkide-tza: 56€  
Deitu: 943 25 05 05  
[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



Euskadi Gaztea irratiauren aurkezpen ekitaldia, 1990eko martxoan. EITB

# Gazteako uhinetatik gazteengana heltzen

Gazteak euskarara eta irratira erakartzeko helburu sendoarekin ipini zuten martxan Euskadi Gaztea, 1990eko martxoaren 21ean. Hiru hamarkadako ibilbidean asko izan dira protagonistak, esatariak, erronkak, saioak, ekintzak eta lehiaketak

**Mireia Bikuña Madrid** ARRASATE

"Egunon. Euskadi Gaztea irratia dagokion sintonia da hau. 1990eko udaberriarekin jaio den sintonia berria: Euskadi Gaztea. Gazteriari luzatu nahi diogu mezua, eta baita gazte sentitzen den orori". Horiek izan ziren Jakeline Barker esatariak Euskadi Gaztearen lehen emisioa hasteko erabilitako hitzak. 1990eko martxoaren 21a zen. Hertzainak taldearen *Aitormena* izan zen uhinetan entzun zen lehen abestia. "Asteak pasa genituen probak egiten, irratsaioan zuzenean ariko bagina bezala lanean, baina bagenekien beste aldean inor ez zegoela; gu geu trebatzeko saioak ziren. Baina goiz hartakoa egiazkoa zen... zuzenekoa! Mikrofono aurrean hizketan hasi, eta gogoratzen dut Joxe Mari Oterminek estudioko atea ireki eta barrura sartu zela, eta zuzenean geunden", gogora ekarri du Jakeline Barkerrek berak.

Jose Mari Otermin zen garai hartan Euskadi Irratiko zuzendari, eta Euskadi Gaztea EITB taldearen babesean jaio zen, helburu zehatz batekin: adin

jakin bateko gazteak irratira, euskaraz egiten zen irratira erakartzea.

Proiektu hori aurrera ateratzeko, Edurne Ormazabal aukeratu zuten. "Kontziente ginen proiektu berritzaile bat genuela esku artean, baina, era berean, proiektuan sinisten genuen guztiok. Errotzeko denbora behar-ko zuen proiektua zela uste genuen, baina arrakastatsua izango zela ere bai", dio Ormazabalek.

Euskadi Gazteari "forma" ematen hasi zenerako, esatariak aukeratuta zituzten Jose Mari Oterminek eta Jose Mari Iriondok. Seikote bat. Jakeline Barkerrekin batera, Joseina Etxeberria, Joxean Arratibel, Marijo Oria, Edurne Otaegi eta Jone Larrañaga. Azken hori, antzularra. "Oso irratizalea nintzen orduan. Euskadi Irratian iragarki bat entzun nuen: "Gaztea bazara, musika gustatzen bazazu eta irratia ere bai, zatoz!". Unibertsitateko azken ikastaroko urtarrila zen, eta proba egitera joan nintzen. Probak gainditu, eta lanean hasi nintzen Euskadi Gaztean. Lau urte eta

## Gaztean hasi zineneko ze oroitzen dituzu?



**JONE LARRAÑAGA**  
ANTZUOLA

**"Teknologiez baliatzen naiz irratia entzuteko"**

"Gaur egun hainbeste baliabide daude... Informazioa eta musika lortzeko eta entzuteko moduak ikaragarri aldatu dira. Adibidez, gure garaian, orduero, AEBetatik CD formatuan iristen zitzaigun arrakasta bat jartzen genuen. Horrez gain, gaur egun, teknologia eta sare sozialek irratia egiten ari denaren eta entzulearen arteko harremana erabat aldatu dute. Ni neu teknologiaz baliatzen naiz irratia entzuteko. Podcastak asko entzuten ditut. Askok gustatzen zait Julia Oterok irratia egiteko duen modua".



**ARKAITZ VILLAR**  
OÑATI

**"Nahiko askatasun eduki nuen kantuak aukeratzeko"**

"Ni ibili nintzen garaian euskal musika zen ezberdintasun nagusia. Gainontzeko irratiformuletan ez zuen lekurik; abesti oso ezagunak ez baziren, behintzat. Bestalde, autore-saio batzuk ere egiten ziren: *Noiz pop* saioa, adibidez. Oroitzapen oso onak ditut. Nik neuk nahiko askatasun nuen kantuak aukeratzeko. Irratiak badu magia berezi bat. *Global funk* eta *Elektro radio grama* irratia saioetan gonbidatuak izan nituen zuzeneko emanaldiak egiten estudioan. DJ emanaldiak izan ziren haiek."



**FERMIN ETXEGOIEN**  
OÑATI

**"Musika saio ezberdina egiteko eskatu zidaten"**

"2003an hasi nintzen Gaztean, orduko zuzendaritzak eskatuta. Ohiko irratiformulatik harago, zerbait ezberdina egiteko eskatu zidaten. Orduan sortu zen *Ekaitz perfektua*. Saio librea zen, eta diseinua nire esku utzi zuten. Hasieran, gidoiak idazten nituen, baina gero, konturatu nintzen unean unekoak, zuzenekoak, ematen ziola beste erritmo bat saioari. Eta, alde zurretik, aukeratutako kantu menu erraldoi batetik, zuzenekoan bertan aukeratzeko nuen hurrengo kantu. Oroitzapen oso onak ditut, benetan".



**OIHAN VEGA**  
BERGARA

**"Gazteek kontsumitzen duten musika asko aldatu da"**

"13 urte hauetan, gazteek gauza berberak sentitzen eta sufritzen dituzte. Modak aldatu egin dira, ordea, eta, alde horretatik, baita kontsumitzen den musika mota ere. Gaztean hasi nintzenez, popa eta rocka ziren nagusi: Gatibu, Zea Mays, Berri Txarrak, Encore, El Canto Del Loco, El Sueño De Morfeo... Gaur egun, elektro-latinoak eta rap eta trap doinuek hartu dute indarra. Eta Euskal Herrian ska musikaren berpizkundea egon da: Vendetta, ETS, Modus Operandi... Gainera, talde asko elektronikarekin jotzen hasi dira dagoeneko".



**AINHOA VITORIA**  
ARRASATE

**"Dida' saioa benetako masterra izan zen niretzat"**

"Unibertsitateko azken urtean deskubritu nuen irratigintza. Ikusi nuen eroso sentitzen nintzela arlo horretan, eta Gaztearako proba batera aurkeztu nintzen, udako ordezkapenak egiteko. Ez ninduten hartu, baina nire probarekin gustura geratu, eta segituan hasi nintzen musika albisteak ematen. Ostera, *Dida*-n hasi nintzen, albiste xelebreak kontatzen, eta hura izan zen benetako masterra. Hiru erraldoi nituen alboan, Joseina, Edurne eta Jon Gotzon; eta ni egunero urduri lanera, ia lotsatuta, baina ikasteko gogo handiarekin".





Etxeberria, Karrera, Larrañaga, Mujika, Arratibel eta Barinagarrementeria. J.L.

erdi egin nituen euskarazko irratiformula egiten", gogoratzen du Larrañagak.

#### Hastapenetan, bi emisio

Euskadi Gaztearen hastapenetan bi emisio ezberdin egiten zituzten: euskarazkoa bata, Donostiatic egiten zutena Otaegik, Oriak, Arratibelek, Barkerrek, Larrañagak eta Etxeberriak; eta gaztelarazkoa bestea, Patricia Gaztañagak, Cristina Ardanzak, Eli Legardak, Jon Uriartek eta Iñigo Lejarzak Bilbotik egindakoa. Hori bai, bietan musika aukeraketa berbera egiten zuten. "Bi mentalitate oso ezberdin eta markatuta zeuden orduan. Euskarazkoa Gipuzkoan eta Nafarroan kontsumitzen zen eta gaztelarazkoa, Bizkaian eta Araban. Urte batzuen ostean, 1992an, euskarazkoaren aldeko apustua egin genuen", dio Ormazabalak.

Goizeko zazpietatik gaueko hamarretara musika ipintzen zuten Euskadi Gaztearen sintonian. Kanta bat bestearen atzetik. Kantuak aurkezterakoan, musika motaz, artistaren nondik norakoez, abestiarekin edo abeslariarekin zerikusia zuten gaiez hitz egin genezakeen. Askoz gehiagorik ez. "Emisio zegoen

## "ASTEAK PASA GENITUEN PROBAK EGITEN, ZUZENEOAN ARIKO BAGINA MODUAN, IKASTEN"

orduetan esatariaren ahotsa bakarrik aldatzen zen. Irratiformula hutsa egiten genuen", azpimarratu du Barkerrek.

#### Musika aurkeztu

Gazteendako produktu bat egiteko helburuarekin jaio zen Euskadi Gaztea. "Garai hartan, gazteendako egiten ziren produktu guztiak musikarekin lotuta zeuden. Baziren beste irratikate batzuk, musika egiten zutenak, baina beste profil bateko pertsonendako. Gurea berezia zen, gazteendako zelako, eta euskaraz, gainera".

Euskadi Gaztearen sorreran, gazte askorendako gaztelaniaz egiten zen *40 principales* zen erreferentziatzko irratikate musika. Eredu hartako irratikate nagusia. "Esatarion helburua ez zen euskarazko *40 principales* bat egitea. Musika aurkeztea, edukiak lantzea eta ordura arte irratiz euskaraz erabili ez zen hizkera freskoa sortzea eta moldatzea egokitu zitzaigun. Erronka bat izan zen guztiondako, baina aise gainditu genuela uste dut", esan du Barkerrek.

#### Binilatik digitaliziora

1990etik 2008ra arte egon zen Ormazabal Euskadi Gaztean arduradun. Irratiak 30 urteko bizitzan bizi izan dituen berrikuntza, eraldakuntza eta aldaketa asko bizi izan zituen. "Pentsa, irratikate emisioak hasi genituen, biniloak erabiltzen genituen. Gaztea utzi nuenean,

erabat digitalizatuta zegoen guztia. Bilakaera handia bizi izan genuen. Internet ere ez genuen ezagutzen hastapenetan; eta, orain, Internet barik ez gara ezer. Ezin dugu ezer egin. Aldaketa handiak izan dira, eta, beste askoren moduan, egokitzen eta moldatzen jakin dugu. Pozgarria da hori".

Irratigintzak berezkoa izan duen bilakaeraz gain, azpimarragarria da Euskadi Gaztearen uhinetatik pasa diren esatariak. Hasierakoez gain, Klaudio Landa, Manu Etkezortu, Garikoitz Udabe, Joseba Iriondo, Ilaski Serrano, Susana Mujika eta Dani Arizala, besteak beste.

#### Gidoi landuak

30 urteko bilakaerak eragina eduki du Gaztearen programazioan. Hasierako irratikate-formula hartatik, entretenimendu irratikatezera pasa da. 24 orduan etengabe emititzen du, eta eguna saio berezietan dauka banatuta: *Dida, Gu, B alde, Be Positive, Top Gaztea...* "Badirudi irratian inprobisazioa dela nagusi. Eta, inprobisatzeko tartea ematen badu ere, Gazteako saio guztien atzean gidoi oso landua dago. Bestela, ezin daiteke lau orduko zuzeneko bat egin. Bide batzuk markatzen ditugu, eta gero, lantalde bakoitzak, egiten duen saioaren arabera, badaki zerekin jokatu ahal duen. Esatariak baino gehiago dira. Euskaraz ondo berba egiten duten esatariak baino askoz gehiago", esan du egungo Gazteako koordinatzaile Jon Lamarkak.

#### Ospakizunak, noizko?

Edozein urteurrenek merezi ditu ospakizunak, eta horiek egitekoak ziren Gaztean, martxoaren 20ko eta 21eko asteburuan. Orduan egin behar ziren hainbat kontzertutarako sarrerak banatu zituzten irratian. Hala, koronabirusak guztia hankaz gora ipini zuen. Era berean, bertan behera geratu zen aurreko zapatuan, hilaren 3an, egin beharreko maketa lehiaketaren finala. Data berri barik atzeratu dute Bilboko finala.

## "EUSKADI GAZTEAN BINILOEKIN HASI GINEN, ETA EGUN, GUZTIA DAGO DIGITALIZATUTA"



Hor Konpon taldeko kideak. HOR KONPON

## Maketa lehiaketak, 29 urte

Euskadi Gaztea uhinetan hasi eta urtebetera, euskal musikarien artean erreferentzia bilakatu den lehiaketa ipini zuten martxan: Euskadi Gaztea Maketa Lehiaketa. "Ez genekien zer-nolako bidea egingo zuen maketa lehiaketak, baina garbi ikusi da euskal musikariendako eta musika taldeendako plataforma ezin hobea izan zela", gogora ekarri du Jon Lamarkak. Lehenengo lehiaketa EH Sukarra taldeak irabazi zuen. Azkena, iazkoa, Suak. Bide horretan, punta-puntako taldeek jaso dute epaimahaiaren saria: Zea Mays, Berri Txarrak, Encore, Delorean, Skasti, Keronia, Lain... 1995ean eman zuten lehen aldiz Entzuleen Saria. Urte hartan Latzen oñatiarrek irabazi zuten, eta 2000n Anger arrasatearrek. Aurretik, epaimahaiaren saria, sari nagusia, alegia, irabazi zuten Hor Konpon oñatiarrek, 1993an.

## "Irrati bisuala egitea izan behar da gure hurrengo erronka"

JON LAMARKA GAZTEAREN EGUNGO KOORDINATZAILEA

Edurne Ormazabalen lekukoa hartu zuen Jon Lamarkak 2008an. 30. urteurrenako ospakizunetaz harago, badituzte beste helburu eta erronka batzuk zehaztuta.

#### Osasuntsu dago Gaztea?

Esango nuke baietz. Musika erabiltzen dugu gazteengana heltzeko, sorrerako helburuekin bat eginez. Daukagun lantaldea bikaina da. Egiten dutenean irmoki sinisten duten esatariak ditugu. Edozein bide, erronka edo proiektu berri hasteko gertu daudenak. Programazioa oso ondo pentsatzen eta prestatzen dugu. Bai, osasuntsu gaude. Zalantza barik.

#### 30 urteko ibilbidearen ostean, zeintzuk dira aurrera begirako erronkak edo asmoak?

Musikaren erreferente dagoeneko ez da irratia. 2000tik hona jaiotako gazteek musika modu askotan kontsumitzen dute. Guk jarraitu behar dugu musika ipintzen, eta, bereziki, euskal musika



GOIENA

taldeendako plataforma izaten. Baina teknologia berrietara ere moldatu behar dugu. Irrati bisuala egiteko erronka daukagu aurretik. Internet eta sare sozialak dira gazteek kontsumitzen dutena, eta Gazteak hor egon behar du. Ikasturte honetan hasi gara podcastak egiten. Hori da etorkizuneko irratia.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Arrasate erdian komertzio bat zabaltzeko lokal baten bila nabil. Interesatuok deitu telefono honetara: 655 70 28 56

## 4. LANA

402. ESKAERAK

**Arrasate edo Oñati.** Neska euskalduna orduka etxeak eta atariak garbitzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 663 04 53 99

**Arrasate eta inguruak.** Emakumea garbiketa lanetarako edota zintzara nagusien zintzarako prest. Ordutegi malgua eta moldatzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 25 79 96

**Arrasate.** Soziosanitario titulua daukan emakumea zaintza eta garbiketa lanak egingo lituzke, kontratuarekin eta gizarte segurantzarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 83 32 44

**Bergara edo Arrasate.** Neska bergararra gertu arratsaldetan edota gauean nagusiak eta umeak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Bergara.** Beharrezko agiriak eta esperientzia dituen emakumezkoa, orduka pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. 666 07 42 98 (Claudia)

**Debagoiena.** 30 urteko neska arduratsua eta langilea, nagusiak eta umeak zaintzeko zein

garbiketarako egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Deitu 639 74 03 22 telefonora

**Debagoiena.** 30 urteko neska gertu nagusiak eta umeak zaintzen eta garbiketarako aritzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 98 97 13

**Debagoiena.** 44 urteko emakumea gertu nagusiak zaindu edota bestelako lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 687 10 41 59

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu orduka, egun eta gau solteetan edota asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta beharrezko agiri guztiekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 22 54 01

**Debagoiena.** Erabateko prestutasuna duen emakumea zaintza lanetarako prest. 631 93 11 90

**Debagoiena.** Esperientzia duen gizona nagusiak zaintzeko eta kalera, medikutura eta abarretara laguntzeko gertu. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 09 55 46

**Debagoiena.** Esperientzia duen neska zaintza eta garbiketarako aritzeko gertu. Baita orduka edo asteburuetan ere. 600 02 74 13

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan eta pertsona nagusien zaintza esperientzia duen emakumea naiz. Etxe barruan bizitzen, kanpoan, asteburuetan zein orduka lan egiteko prest nago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 641 67 18 74

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko nitzuzke. Erabateko prestutasuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 37 65 40

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 643 14 38 75

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko eta tabernan aritzeko gertu. Orduka eta baita gauean ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 642 90 41 05

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko eta tabernan aritzeko gertu. Orduka eta baita gauean ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 642 90 41 05

**Debagoiena.** Nagusiak edota umeak zainduko nitzuzke, egun osoko jardunez, baita etxean bertan bizi izaten zein asteburuetan ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 612 23 89 09

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen, etxeko lanak egiten zein bestelako garbiketa lanetan aritzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 641 67 18 74

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko nitzuzke. Erabateko prestutasuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 37 65 40

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko nitzuzke. Erabateko prestutasuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658 92 43 73

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu nago. Baita asteburuetan ere. 612 27 82 34

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu nago.

Erabateko prestutasuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 98 22 90

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, urdaitegian edota denetariko garbiketarako egiten esperientzia duen neska lan bila dabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 61 89 96

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697 80 78 58

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko

edota garbiketarako egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunez zein asteburuetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 31 51 43

**Debagoiena.** Nikaraguako mutila gertu nagusiak zaintzen, nekazaritzan edota frutategian lan egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 19 75 84

**Debagoiena.** Prest nago nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Erabateko prestutasuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 19 75 84

**Debagoiena.** Soziosanitario titulua duen neska nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 13:30ak eta 19:00ak

arte, mesede. 943 50 47 29

**Debagoiena.** Zainketa, garbiketa eta taberna lanetan aritzeko titulazioak daukan neska. Lanerako gertu nago. Deitu 600 01 48 81 telefonora.

**Debagoiena.** Zaintza eta garbiketa egingo nitzuzke. Erabateko prestutasuna. 632 87 91 90

## 6. MOTORRA

602. EROSI

**Land Rover bila nabil.** Land Rover Defenderra behar dut baserrirako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, matxuratuta, kolpearekin. Salgai baduzu deitu 623 17 95 37 telefono zenbakira.



**ibargarai 3 • BERGARA**  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmokokroستي.com

### ETXEBIZITZAK SALGAI

**BERGARA:**

- Lizain, 62 m<sup>2</sup>, 3 logia, ipogailua, berrituta, biatzera sartuta. 165.000 €.
- Bala, 180 m<sup>2</sup>, 3 logia, ipogailua, traxelakoa. Bi ganjel, biatzera sartuta. 340.000 €.
- Saneamentu berri, 75 m<sup>2</sup>, 2 logia, parkinga, buroio, biatzera sartuta. 175.000 €.
- Zubikurre, 63 m<sup>2</sup>, 2 logia, traxelakoa, ipogailua, biatzera sartuta. 95.000 €.
- Ibona (Libagorriate) 59 m<sup>2</sup>, 3 logia, traxelakoa. 65.000 €.
- PREZIO JEITSIERA.
- Oñate, 72 m<sup>2</sup>, 3 logia, berrituta, biatzera sartuta. 100.000 €.
- Lizain, (San Lorenzo), 63 m<sup>2</sup>, 2 logia, traxelakoa. 151.000 €.
- PREZIO JEITSIERA.
- A. Fleming, (Ipogailua) 60 m<sup>2</sup>, 2 logia, traxelakoa egokituta 30,70m<sup>2</sup>. 140.000 €.
- Alameda Etxea, 349 m<sup>2</sup>, triplexa, berri, ganjel. Biatzera sartuta. 350.000 €.
- Bazarri, 70 m<sup>2</sup>, 3 logia, biatzera sartuta. Ganjel osaketa. 129.500 €.
- Zubikurre, 70 m<sup>2</sup>, 2 logia, berrituta, berri, ganjel. Biatzera sartuta. 156.250 €.
- Arriola, 180 m<sup>2</sup> duplexa. 4 logia, ipogailua. Biatzera sartuta. 373.500 €.
- Bala, 65 m<sup>2</sup>, traxelakoa, ipogailua, biatzera sartuta. 139.000 €.
- PREZIO JEITSIERA.
- San Antonio, 74 m<sup>2</sup>, berrituta, ipogailua jabearen kuxera. 99.000 €.
- PREZIO JEITSIERA.
- Iñaki puzolakoa, 83 m<sup>2</sup>, ipogailua, berri, ganjel. Biatzera sartuta. 160.000 €.
- PREZIO JEITSIERA.
- Zubikurre, 60 m<sup>2</sup>, 2 logia, berri, ganjel, mardorakoa. 75.000 €.
- Zubikurre, 89 m<sup>2</sup>, 2 logia, ipogailua, berrituta, biatzera sartuta. 130.000 €.
- Mendemika, 75 m<sup>2</sup>, 2 logia, biatzera sartuta. 149.000 €.
- Manta, 40m<sup>2</sup>, 2 logia, ipogailua, biatzera sartuta. 130.000 €.
- Ibarra, 54m<sup>2</sup>, 2 logia, ipogailua, biatzera sartuta. Ganjel 2 osaketa. 216.000 €.
- Adarrena, 40m<sup>2</sup>, 2 logia, traxelakoa, biatzera sartuta. 100.000 €.
- Zubikurre, 70m<sup>2</sup>, 3 logia, biatzera sartuta, egokituta. 114.192 €.
- Zubikurre, 54m<sup>2</sup>, 3 logia, 2 traxelakoa, biatzera sartuta. 96.000 €.
- Oñate, 79 m<sup>2</sup>, 3 logia, ipogailua, berri. Azkara oso. 70.000 €.
- Oñate, 75 m<sup>2</sup>, 3 logia, traxelakoa berri. Azkara oso.
- Mendemika, 86 m<sup>2</sup>, 3 logia, altxorak baze. Berrituta, biatzera sartuta. 150.000 €.
- Freixakari, 100 m<sup>2</sup>, 3 logia, ipogailua. 198.000 €.
- Matxistegi, 96 m<sup>2</sup>, 4 logia, berri, ganjel, ipogailua. 139.500 €.
- PREZIO JEITSIERA.
- Freixakari, 100 m<sup>2</sup>, 4 logia, traxelakoa, ipogailua. 180.000 €.
- Biakurutzeta, 130 m<sup>2</sup>, 4 logia, ipogailua, traxelakoa. 270.000 €.
- PREZIO JEITSIERA.
- Zubikurre, 60 m<sup>2</sup>, 2 logia, biatzera sartuta. 65.000 €.
- Mendemika, 80 m<sup>2</sup>, berrituta, azkara oso. 60.000 €.

**UBERA:**

- Bazarria eta 15 hektareako lurralde (pinak, zelaiak) 340.000 €.
- PREZIO JEITSIERA.

**ANTZUOLA:**

- Errekalde, 90m<sup>2</sup>, 3 logia, ipogailua, biatzera sartuta 125.000 €.
- PREZIO JEITSIERA.
- Bala, 60 m<sup>2</sup>, 2 logia, berrituta. Biatzera sartuta. 120.000 €.
- Errekalde, 70 m<sup>2</sup>, 2-3 logia, ipogailua, biatzera sartuta. 125.000 €.
- Koldorrena, 79 m<sup>2</sup> - 77m<sup>2</sup>. Berrituta. 61.000 € - 51.000 €.
- Koldorrena, 80 m<sup>2</sup>. 1go pisua 60.000 € - 2. pisua - ganjel 70.000 €. Berrituta.
- Errekalde, 61 m<sup>2</sup>, 3 logia, ipogailua, berri. 165.000 €.

**ELGETA:**

- San Rikie, Duplexa, 83 m<sup>2</sup>, berrituta, biatzera sartuta. 190.000 €.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

## HERRITARREK BIDALITAKO BIDEOAK

'Etxetik plazara' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30



GOIENA

## POTX ETA LOTX PAILAZOEN 'ETXEAN' IKUSKIZUNA

'Bereziak' Zapatua, 18:00 eta domeka, 11:30

EGUBAKOITZA, 10	ZAPATUA, 11	DOMEKA, 12
09:00 Kantari Arrasate 3	09:00 Kantari Arrasate 5	08:00 Etxetik plazara 3
09:30 Kantari Aretxabaleta 7	09:30 Kantari Arrasate 4	08:30 Txanbaxiak
10:00 Hemen Debagoiena	10:00 Kantari Arrasate 6	09:00 Zirikatzen 3
11:00 Osasun ariketak	10:30 Zirikatzen 3	09:30 Kantari Arrasate 4
11:30 Hala Bazan: Bertsolaritza I	11:00 Osasun ariketak	10:00 Kantari Arrasate 5
12:00 Hemen Debagoiena	11:30 Etxetik plazara 3	10:30 Kantari Arrasate 6
13:00 Kantari Aretxabaleta 8	12:00 Hemen Debagoiena	11:00 Osasun ariketak
13:30 Kantari Arrasate 1	13:00 Galdegazte: Aitor Mendizabal	11:30 Potx eta Lotx etxean
14:00 Hemen Debagoiena	13:30 Zirikatzen 3	13:00 Hala Bazan: Bertsolaritza I
15:00 Astearren errepasoa	14:00 Hemen Debagoiena	14:00 Elkarrizketa: Urko Aristi
15:30 Kantari Arrasate 2	15:00 Elkarrizketa: Urko Aristi	14:30 Galdegazte: Aitor Mendizabal
16:00 Astearren errepasoa	15:30 Zirikatzen 3	15:00 Hemen Debagoiena
17:00 Astearren errepasoa	16:00 Bertsok: Dizdaitte	16:00 Galdegazte: Aitor Mendizabal
17:30 Osasun ariketak	16:30 Kooltur: Moonshakers	16:30 Zirikatzen 3
18:00 Hemen Debagoiena	17:30 Osasun ariketak	17:00 Kantari Arrasate 6
19:00 Kantari Arrasate 3	18:00 Potx eta Lotx etxean	17:30 Osasun ariketak
19:30 Elkarrizketa: Urko Aristi	19:30 Etxetik plazara 3	18:00 Kantari Arrasate 4
20:00 Hemen Debagoiena	20:00 Hemen Debagoiena	18:30 Elkarrizketa: Urko Aristi
21:00 Hala Bazan: Bertsolaritza I	21:00 Bertsok: Dizdaitte	19:00 Hemen Debagoiena
21:30 Etxetik plazara 3	22:30 Galdegazte: Aitor Mendizabal	20:00 Etxetik plazara 3
22:00 Hemen Debagoiena	23:00 Kooltur: Moonshakers	20:30 Kooltur: Moonshakers
23:00 Kooltur: Moonshakers		21:30 Hala Bazan: Bertsolaritza I

EGUAZTENA, 8

### URKO ARISTIRI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa'

21.30

EGUAZTENA, 8

### EIDER MENDOZARI ELKARRIZKETA

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

EGUAZTENA, 8

### EGUNEKO ALBISTE NAGUSIAK

'Gaurkoak'

15:00/16:00/17:00

ASTEBURUAN

### MOONSHAKERS TALDEA

'Kooltur Ostegunak'

Egubakoitza, 23:00/ Zapatua, 16:30/ Domeka, 20:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: [goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)  
Edo eskaneatu aldarmeneko qr kodea.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldatetarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen modulua. Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).



ESKER ONA

**Maria Magdalena Iraolagoitia Murua**  
Ignacio Albusuaren Alarguna



2020ko apirilaren 1ean hil zen, 93 urte zituela.

*Eskerrik asko, amatxo, amama, eman eta erakutsi diguzun guztiagatik.*

Larrialdi egoera gainditzen dugunean zehaztuko dugu hileta eguna eta ordua. Eskerrik asko inguruko danei.

Bergaran, 2020ko apirilaren 8an.

ESKER ONA

**Rosario Ugalde Lasagabaster**  
Bixente Arregi 'Axei'-ren alarguna



2020ko apirilaren 6an hil zen, 91 urte zituela.

*Eskerrik asko zurekin ikasi eta bizi izan dugun guztiagatik, amama.*

Egun hauetan jasotako maitasun eta laguntzagatik, eskerrik asko bihotz-bihotzez familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko apirilaren 8an.

ESKER ONA

**Maria Markuleta Azurmendi**  
Carlos Iñurritegiren alarguna



2020ko apirilaren 4an hil zen, 97 urte zituela.

*Hainbeste gurotzen zure familixa honen partetik, gero arte bat.*

Larrialdi egoera gainditzen dugunean zehaztuko da hileta eguna eta ordua. Eskerrik asko inguruko denei.

Oñatin, 2020ko apirilaren 8an.

OROIGARRIA

**Sor Irene Bikuña Igartua**



2020ko apirilaren 2an hil zen, Bartzelonan, 86 urte zituela.

*Muxu goxo bat, tia!*

Anai-arrebak eta ilobak.

Larrialdi egoera gainditzen dugunean zehaztuko dugu hileta eguna eta ordua.

Oñatin, 2020ko apirilaren 8an.

OROIGARRIA

**Rosario Ugalde Lasagabaster**  
Lurdes Arregi lankidearen ama



2020ko apirilaren 6an hil zen, 91 urte zituela.


*Gure bihozmina adierazten diegu familakoei.*



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak. Leintz bailaran, 2020ko apirilaren 8an.

OROIGARRIA

**Ramon Elkoro Gabilondo**  
(Apaiza)



2020ko apirilaren 4an hil zen, 75 urte zituela.

*Emandako laguntza eta babesa, jaso barik joan zara.*

Larrialdi egoera gainditzen dugunean zehaztuko da hileta eguna eta ordua.

Arexabaletan, 2020ko apirilaren 8an.

HILDAKOAK

**Maria Pilar Kortazar Garro.**

Arexabaletan, apirilaren 2an. 79 urte.

**Rufino Madinabeitia Guridi.**

Oñatin, 2an. 73 urte.

**Sor Irene Bikuña Igartua.**

Bartzelonan, apirilaren 2an. 86 urte.

**Inazio Goitia Arozena.**

Bergaran, apirilaren 3an. 92 urte.

**M. Clara**

**Martinez Gonzalez.**

Arrasaten, apirilaren 4an. 68 urte.

**Rosario**

**Ugalde Lasagabaster.**

Arrasaten, apirilaren 6an. 91 urte.

**Ramon**

**Elkoro Gabilondo.**

Arexabaletan, apirilaren 4an. 75 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 10	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Zapatua, 11	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Domeka, 12	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 13	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Martitzena, 14	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguaztana, 15	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Equena, 16	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 10	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 11	URRITIKOETXEA: Orizondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 12	URRITIKOETXEA: Orizondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 13	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 14	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztana, 15	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Equena, 16	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 10	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 11	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 12	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 13	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 14	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztana, 15	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Equena, 16	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	
2020ko abuztuaren 31ra arte:	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	
2020 osoan:	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:  
 CDF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
 edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**  
**ARRASATE** Goiena: Otarora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.  
**BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.  
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.  
**ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.  
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



**BABESLEA**

**OROILORE**  
 Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Momentu zail hauetan, lankideok, Jonek, Ibanek, Mariok eta Maribik, sentsibiltate eta maitasunarekin lan egingo dugu Zure senideak ahalik eta ondoen agurtuko ditugu Beti izan dugun lan egiteko eran.*




*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

**maribi 617 44 21 55**  
**BERGARA • ANZUOLA**


## TXUTXU-MUTXUAK



1



3




4



5



6



7



8

**1. Erramu zapatua ospatzen**

Aitor Arantzabalek eta alaba Maitanek ederto ospatu zuten, etxetik, Bergarako jaiegun herritarrena. Zapia lepoan ipini eta balkoira atera ziren ospatzera.

**2. Balkoitik**

Erramu zapatu konfinatuan balkoia jendez bete ziren. Batzuetan, txorimalo eta guzti. Horixe bera egin zuten Nerea eta Eider Najera ahizpek.

**3. Amesten eta ospatzen**

Argider Isasti oñatiarrek urteak bete zituen konfinamenduan. Baina Izar eta Julen seme-alabekin ederto ospatu zuen. Begiak itxita, desio bana eskatu zuten.

**4. Zenbakiak erreparatzen**

Horixe egiten dihardu azken egunetan Irati Egañak, etxeko arbelean. Eskolan ikasitakoa erreparatzen dabil: zenbakiak banan-banan idazten.

**5. Dantzan eta kantuan**

Izar eta Sara Arenaza oñatiarrek Amaia Txintxurretaren *Kantari* erronka onartu zuten. Kantua abestu eta koreografia grabatu zuten, Goienara bidaltzeko.

**6. Txorimaloarekin**

Bergarako Erramu zapatuko protagonistetako bat txorimaloa da. Ion eta Maider Elorza anai-arrebek balkoian ipini zuten eurena, egun handia ospatzeko.

**7. Kuadrillakoeekin ospatzen**

Elgetan ere ospatu zuten Erramu zapatua. Lili Arantzabalek eta ama Mireiak kuadrillakoeekin ospatu zuten, bideokonferentzia bidez.

**8. Suzuki taldekoak entseatzeko**

Eskola presentzialak etenda dauden honetan, talde askok *online* entseatzeko dute. Horixe egin zuten Bergarako musika eskolako Suzuki taldeko neska-mutikoeak.




## ZORION AGURRAK



OÑATI  
**Ekain Leibar Zumalde**  
Apirilaren 23an, 7 urte.  
Zorionak, *pitxin!*  
Jarraitu zaren bezain  
maitakorra izaten.  
Zazpi tirakada  
belarritik eta patxo  
handi bat, etxeko  
danon partetik.



OÑATI  
**Uxuri Olalde**  
Apirilaren 21ean, 8 urte.  
Geure printzesari, zorionak, politta!



OÑATI  
**Nahia Guridi Olalde**  
Apirilaren 18an, 11  
urte. Zorionak! Ondo  
pasatu zure eguna,  
nahiz etxetik ezin  
urten. Baina zu lasai,  
ospatuku bakoitik  
balkoira bizilaguneikin!  
Muxu erraldoi bat.



ARRASATE  
**Daniel  
Azpiazu Barrena**  
Apirilaren 17an, 9 urte.  
Zorionak, Daniel! Patxo  
handi bat familia  
danon partetik!



ARRASATE  
**Izar Ullibarriarana  
Sagasta**  
Apirilaren 15ean, 2  
urte. Zorionak, politx  
hori! Muxu handi bat  
etxekoen eta, bereziki,  
Lierren eta Pauleren  
partetik.



OÑATI  
**Helene Fuente Garcia**  
Apirilaren 14an, 8 urte.  
Zorionak, printzesa!  
Azkenean heldu da  
zure eguna; aruten,  
berezia, gainera, baina  
kriston parranda  
egingo dugu etxean.  
Patxo handi bat,  
amatxoren eta  
aitaxoren partetik.  
Maite zaitugu!



BERGARA  
**Itxaso Agirre Benitez**  
Apirilaren 13an, 11  
urte. Zorionak, *guapa!*  
Ondo-ondo pasatu  
zure eguna. Muxu  
handi bat, zure aitaren  
eta amaren partetik.  
Mua!



ARRASATE  
**Ilazki  
Lorenzo Martinez**  
Apirilaren 12an, 4 urte.  
Ilazki, zorionak! Asko  
asko maite zaitugu,  
bihotz-bihotzez! Patxo  
handi bat, etxeko  
danon partetik!



ARETXABALETA  
**Haizea Leiba Arenaza**  
Apirilaren 12an, 7 urte. Zorionak, maitia!  
Ondo-ondo pasatu zure egunien eta patxo potolo  
bat, etxeko guztion partetik!



ELGETA  
**Xare  
Zabala Sarasketa**  
Apirilaren 12an, 2 urte.  
Zorionak, printzesa!  
Ondo pasatu eguna  
etxeko danon partetik;  
eta jakin hau dana  
pasatzen darian, berrito  
ospatuko douela.




OÑATI  
**Unai  
Sanchez Arroiabere**  
Apirilaren 11n, 4 urte.  
Zorionak, maitia!  
Ondo-ondo pasatu  
zure eguna eta patxo  
handi bat, maitte  
zaitugun danon  
partetik!



ESKORATZA  
**Lander Bañares  
De La Torre**  
Apirilaren 11n, 6 urte.  
Zorionak, maitia,  
familiako guztion  
partetik!



OÑATI  
**Katrin Lazkano**  
Apirilaren 11n, 4 urte.  
Zorionak eta urte  
askotarako, Katrin!  
Egun politta pasatu  
dezazula! Muxu potolo  
bat, familia danaren  
partetik!



OÑATI  
**Izaro  
Bellido Gonzalez**  
Apirilaren 10ean, 8  
urte. Zorionak,  
printzesa! Aurten  
desberdin ospatuko  
zure urtebetetzea.  
Segi beti bezala hain  
alaia eta maitakorra.  
Muxu erraldoi bat,  
familia osoaren  
partetik.



ESKORATZA  
**Marilu  
Kortazar Uribesalgo**  
Apirilaren 10ean, 72  
urte. Zorionak amama,  
amatxo, tia... Marilu!  
Geroago primeran  
ospatuko dugu. Patxo  
erraldoi bat, etxeko  
danon partetik.




BERGARA  
**Isolde  
Beristain Laskurain**  
Apirilaren 9an, 9 urte.  
Zorionak, neska handi!  
Ondo-ondo ospatu  
zure eguna. Eta muxu  
handi-handi bat,  
familia osoaren  
partetik.



OÑATI  
**Ane Aranzeta**  
Apirilaren 9an, urte 1.  
Zorionak, Ane! Patxo  
handi bat etxeko  
danon partetik.  
Ondo-ondo pasatu  
zure eguna.



ANTZUOLA  
**Elene Kone Mujika**  
Apirilaren 8an, 5 urte.  
Urte askotarako,  
printzesa! Muxu potolo  
bat Ainararen,  
Aitziberren, Aitorren  
eta Iratiren partetik.




OÑATI  
**Leire Maiztegi Lete**  
Apirilaren 8an, 9 urte.  
Zorionak, prexioxa.  
Ondo pasatu eta muxu  
potolo bat, etxeko  
danon partetik.



OÑATI  
**Ganix Mendibe Garai**  
Apirilaren 5ean, 6 urte.  
Zorionak eta musu  
asko etxeko  
bihurrienari, etxekoen  
eta, batez ere,  
Ainhizeren partetik! Ea  
laster ospatzen dugun!



BERGARA  
**Ainere  
Gallastegi Lete**  
Apirilaren 4an, 7 urte.  
Zorionak, *larrox!*  
Etxeko goxotasunean  
ospatuko dogu egun  
berezi hau. Milaka  
muxu, maitxia!



ARRASATE  
**Markel  
Errasti Canales**  
Apirilaren 4an, 5 urte.  
Zorionak, *Markelin!*  
Patxo hadi bat familia  
osoaren eta, bereziki,  
Haizearen, Juneren,  
Aitorren eta Alazneren  
partetik!



ARRASATE  
**Aratz Sanzberro Iria**  
Apirilaren 4an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo  
potolo pila bat, familia danaren partetik!



ARETXABALETA  
**Beñat Pastor Alonso**  
Apirilaren 3an, 13 urte.  
Zorionak, laztana!  
Ederto pasatu egun  
berezi hau! Patxo  
handi bat, familia  
osoaren partetik.



ARRASATE  
**June, Lide eta Arrate**  
Zorionak apirilko loreei! Junek apirilaren 2an, Lidek 3an eta Arratek 7an.  
Ondo pasatu! Patxo bat Xabiren eta Laiaren partetik!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitze Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Asteleheneko 12:00ak  
arte jasotako zorion  
agurak bakarrik  
iragarri ditugu.

Hortik aurrera  
jasotakoak hurrengo  
zenbakian  
argitaratuko ditugu.





AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

## Zaharrak berri

Azken hilabetean izan dugu sekula ezagutu ez dugun gizadiaren aurkako arriskua baztertzeko borroka; bakardadea sortzen duen borroka hainbatetan. Ditzosozko koronabirusa da gurean protagonista, eta honek ekarri dituen eraginaren artean, zahar etxeen egoeran ipini dute azpimarra komunikabideek.

Ez da zilegi esaldi gordinekin gure zaharrak eta ingurukoak beldurtzea, ez baita egia osoa zahar etxeetan daudela kutsaturik gehienak, zahar eta gazteen artean aukera egin behar dela ospitaleetan zein salbatu erabakitzeke eta horrelako itxuragabekeriak une oro botatzea. Ez dut gogoko notiziak ematerakoan gehiegikeriak erabiltzea, ez eta leku batean gertatutako egoera triste eta bihozgabeak orokorrak balira bezala saltzea. Zaharrak ere sendatzen baitira.

Gure osasun eta gizarte langileen bihotz zabaltasuna eta laguntzeko bokazioa dira egoera zail hauetan adibide azpimarragarriak. Oso egoera ederrak ikusi ditugu egunotan teknologiari eta gizatasunari esker: aurrez aurre ezin bada ere, zein polita den "maite zaitut, ama" edo "maite zaitut, aitaita" esatea tele-deiaren edo bideokonferentzia bitartez.

BUKATZEKO

# Animaliak, galdutako habitata berreskuratzen

Hiri-airearen kutsadura %30 jaitsi da Euskal Autonomia Erkidegoan martxoko bigarren hamabostaldian. Bitartean, sare sozialetan, animaliak ezohiko tokietan eta kaleetan agertzen diren bideo asko dabilta partekatzen

**Naroa Urien Berrio** ARRASATE

Konfinamendua hasi zenetik, animaliak protagonista izaten hasi dira sare sozialetan: basurde taldeak eta basurde emeak kumeekin ezohiko tokietan eta kaleetan, orkatzak herriguneetan sartzen gauez, eta beste hainbat. "Azken urteetako joera bat da eta beste faktore batzuekin erlazionatuta dago; besteak beste, baserri inguruaren eraldaketa edo hustea eta animalia batzuen populazioaren gorakada handia", dio Oñatiko Natur Eskolako Imanol Biainek.

**Isiltasuna faktore**

Agian, hurbileneko naturarekiko pertzepzioa aldatu egin da; izan ere, egun hauetan, irratian eta telebistan behin baino gehiagotan entzun da jendeak inoiz baino txori kantu gehiago entzuten duela etxeetako leihotatik eta balkoietatik. "Baina lehen baino txori gehiago dago, edo kantu gehiago egiten dute orain? Ez, ez dago gehiago eta ez dute kantuan gehiago egiten. Balkoira edo leihora irteten garenan, egoera berri batean gaude, ez dago trafikorik, industria geldia dago, kaleak hutsik



Aste honetan ahateak kalean, Oñatin. OIHANA ELORZA

daude... eta isiltasuna da nagusi", azaltzen du Biainek.

**Zirkulazio gutxiago**

Denok daude etxeetan konfinatuta, baina herrigunetik kanpo bizi direnek autoa hartu beharra daukate erosketak egitera, farmaziara edo beste edozein beharretara kalera joateko. "Errepideetan ere nabaritu dut aldaketa bat animaliekin erlazionatuta; izan ere, errepide bazterrean hilda agertzen diren animalia kopurua asko gutxitu da", dio Biainek.

**Kutsaduraren jaitsiera**

Hiri-airearen kutsadura %30 jaitsi da, Ekologistak Martxan erakundearen arabera. Hilabete geldia egonda, airearen kutsadura maila asko jaitsiko dela diote adituek; batez ere, hiri handietan. Edozelan ere, munduan dauden ingurumen arazo larriekin ia ez dela ezer nabarituko dio Biainek: "Ingurumen arazo larri guztiek hor jarraituko dute gure konfinamendua bukatzen denean ere. Gure ardura da egoera honetaz ikasi eta hausnartzea".

**Hausnarketarako unea**

Pandemiak eta etxeko itxialdiak hausnarketarako aukera handia ematen du. Biain hausnarketaren alde dago: "Ikusteke dago itxialdia bukatu ondoren gure jarrera pertsonalak eta kolektiboak aldatuko ditugun. Ondorio eta ikasgai mamitsuak atera ditzakegu, baina baliteke denbora laburrean dena ahaztea eta normaltasunera itzultzea eta ezer gertatu ez balitz bezala jarraitzea".

# ETXEAN

GOIENA TELEBISTA, POTX ETA LOTX PAILAZOEN IKUSKIZUNA

ZAPATUAN, APIRILAREN 11N, 18:00ETAN

DOMEKAN, APIRILAREN 12AN, 11:30EAN

goiena  
Zu hemen zaude.

